

puntu 30 urte melek lehiatzen eta entseguak egiten

Irati Jimenez idazleari elkarrizketa



MIKEL IRIARTE 'JOXEMIEL'



XABIN FERNANDEZ



MAIDER TRIVIÑO 'MAIDER MIMI'



ASIER GALARZA

Argazki txikietan, ezkerretik eskuinera: Amaia Ruiz de Galarreta, Ander Malbadi, Gaizka Sarasua, Ion Martinez Txiki, Joana Arakistain, Josu Arrizabalaga, Joxe Aldasoro eta Manex Astigarraga.



'ALGARAKA' HASTEKO UNEA HELDU DA

Gaur hasiko da 'Algaraka' bakarrizketa lehiaketa: Bergarako Seminarioxoa aretoko agertokian izango dira lehenengo lau lehiakideak; datozen bi asteburuetan, gainerako zortziak / 48

PENTEKOSTEAK 2024

PENTEKOSTEAK 2024 / 21

SINADURAK

	KARME URIBESALGO / 39
	XABIER MUGARZA AIASTUI / 8
	LOREA SUAREZ IBARGUREN / 44
	JOSU ZUGASTI / 11
	MIKEL ARREGI ASKASIBAR / 56

Hemen garbiketak

Ura bezain garbia

T.- 943 71 48 45

BULEGOAK ALOKAGAI GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOAN

Start-up-ak | Enpresak | Ekintzaileak | Autonomoak

60 eta 1.000 m2 artean

GARAIA

Informazioa:
ptgaraia@ptgaraia.eus
943-03 88 46

Arrasate da BPG handiena duena eta lanpostu gehien dituen

Bi kasuetan, Oñatik jarraitzen dio zerrendan; gainera, Gipuzkoako hirugarrena eta hamargarrena dira. BPG txikiena duten Debagoieneko bi herriak, berriz, Aramaio eta Leintz Gatzaga dira; era berean, bi herri horiek dira lanpostu gutxien dituztenak

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) aberastasunaren gainean kaleratutako datuen arabera, Arrasate da Debagoiengan Barne Produktu Gordin handiena daukana, 1.007.656.000 euroekin, eta bigarrena Oñati da, 636.828.000 euroekin. Datu esanguratsua bigarren hori; izan ere, biztanleria kopuruari erreparatuta, Bergarak biztanle gehiago ditu. Hala, Oñatin biztanle gutxiagorekin diru gehiago sortzeko ahalmena erakusten du. Era berean, bi herri horiek Gipuzkoako BPG handiena duten hamar herrien artean daude: Arrasate hirugarren tokian eta Oñatik du handiena, 55.823 euroekin, eta Elgeta da bigarrena, 55.730 euroekin. Balantzaren beste aldean ez dago aldaketarik; hala, Leintz Gatzagak du Debagoieneko *per capita* BPG txikiena, 12.888 euroekin, eta Aramaio dago ostean, 13.192 euroekin. Hala eta guztiz ere, datu horrek ez du herri horren aberastasun maila adierazten; herrian sortzen den diruaren eta biztanle kopuruaren arteko kalkulua besterik ez da.

Mondragon Unibertsitateko Ekonomia irakasle Julen Bollain izan zen *Hemen Debagoiena* saioan datu horien gaineko irakurketa egiten, eta logikotzat jotzen ditu: "Arrasate du biztanleria handien, eta, beraz, enpresa gehiago daude, logika baten barruan sartzen da. Bigarren postuan Oñati dago, eta egia da Bergarak baino biztanle gutxiago dituela, baina Oñatiren ehun produktiboak berezitasun batzuk ditu, eta, alde horretatik, puntan dauden sektore ekonomikoak izaten dira horrelako datuak ematen dizkigutenak". Gainera, BPG aztertzeak tranpak dituela dio: "Egia da Euskal Autonomia Erkidegoko lehen hamar herrien artean ez dagoela Debagoienekorik, baina, noski, Oñati eta Arrasate ezin daitezke konparatu Bilbo eta Gasteiz bezalako hiriekin". Bestetik, bailarako BPG txikiena duen herria Leintz Gatzaga



da, 2.874.000 euroekin, eta Aramaio dago ondoren, 19.537.000 euroekin.

'Per capita' handiena, Oñatik

Barne Produktu Gordina biztanle kopuruaren arabera banatuz gero, hau da, *per capita* BPG kontuan izanez gero, Oñatik du handiena, 55.823 euroekin, eta Elgeta da bigarrena, 55.730 euroekin. Balantzaren beste aldean ez dago aldaketarik; hala, Leintz Gatzagak du Debagoieneko *per capita* BPG txikiena, 12.888 euroekin, eta Aramaio dago ostean, 13.192 euroekin. Hala eta guztiz ere, datu horrek ez du herri horren aberastasun maila adierazten; herrian sortzen den diruaren eta biztanle kopuruaren arteko kalkulua besterik ez da.

Bollainek dio *per capita*-ren datuak "garrantzitsuak" direla, baina hor ere B aldea dagoela adierazi du: "Barne Produktu Gordinak, nahiz eta aberastasuna neurtu, ez digu esaten herri batean edo herrialde batean dagoen desberdintasun maila nolakoa den. Horregatik, oso garrantzitsua da BPGz haratago dauden neurgailuak erabiltzea, herrietan dauden desberdintasunak nolakoak diren erakusteko; esaterako, lanpostu kopuruan badira beste indize batzuk herri batean dagoen desberdintasun maila erakusteko".

Lanpostu kopurua herriak

Herriek dirua sortzeko duten ahalmena ulertzeko, lanpostu kopuruari erreparatu beharra dago. Logikari jarraituz gero, Arrasate da biztanle gehien dituen udalerrria, eta, era berean, baita lanpostu gehien dituen ere: zehazki, 14.222 dira. Bigarren tokian, berriz, Oñati dago, 7.806 lanposturekin; BPGrekin gertatu bezala, gainera, Bergararen aurretik dago Oñati, nahiz eta biztanle gutxiago izan. Txanponaren beste aldean, aldiz, lanpostu gutxien dituzten udalerrriak daude; hurrenez hurren, Leintz Gatzaga -51 lanpostu- eta Aramaio -318 lanpostu- dira.

Udalerrri bakoitzean dagoen lanpostu kopuruak, ordea, ez du bermatzen lan horiek bertako herritarrek egiten dituztenik, eta, beraz, biztanleek herrian lan egiteko izango luketen aukerari erreparatzea ere posible da. Hala, udalerrietako biztanleek herrian lan egiteko aukera izango balute, Elgeta da nabarmentzen dena Debagoiengan: hain justu, %86,50ekoa da lanpostu kopurua Elgetako biztanleriarekiko; alegia, hamarretik zortzi elgetarrek baino gehiagok izango lukete herrian lan egiteko aukera -ondorioz, lanpostu kopurua biztanleekiko aintzat hartuta, herrian aberastasuna sortzeko portzentaje handiena duena ere bada-. Aramaio da, aldiz, herritarren lanpostuak udalerrian bertan egotea gutxien

"DIBERTSIFIKAZIOA BEHAR DA, NEGOZIO EREDUEN AZTERKETA BAT EGINDA"

KOLDO AZKOITIA, MANKOMUNITATEKO GARAPEN AGENTZIako ARDURADUNA

ahalbideratzen duen herria: hamarretik bik -%22,04k- du, zehatz, horretarako aukera.

Dibertsifikazioa

Hain zuzen, lanpostuei lotuta, Koldo Azkoitia Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziako arduradunaren hitzak jaso zituzten *Hemen Debagoiena* saioan, gaur egun bailarako enpresen egoera nolakoa den jakiteko: "Debagoienak talde kooperatibo asko ditu eta industriarekiko pisu handia du. Horietan kapitala errotuta dago lurraldean, eta horrek berme bat ematen du etorkizunera begira. Enpresa industrialak ere tradizio handikoak dira eta ondo kokatuta daude merkatuan. Gainera, kasu gehienetan, ondo kapitalizatuta dauden enpresak ditugu".

Dena dela, etorkizunera begira hainbat erronka azpimarratu ditu; horietako bat, dibertsifikazioa: "Gure sektoreetan dibertsifikazioa gutxitu egin da, eta, gaur egun, automozioaren dependentzia handia dugu; ia enpresen erdia horra bideratuta dago. Gainera, eraldaketa sakonean murgilduta dagoen sektorea da, eta etorkizunera begira birplanteaketak beharko dituen. Beraz, dibertsifikazio baten beharra egongo da, eta, horretarako, negozio ereduaren beste azterketa bat egitea eskatuko du". Bollainek bat egiten du dibertsifikazio falta dagoela aipatzean, eta gaineratu du une "egokia" dela ikusteko "non gauden eta non lehiatu nahi dugun etorkizuneari".

Krisi demografikoa

Bestetik, enpresek duten erronka nagusienetakoa "talentua lantzea" edo pertsonak "etorkizuneko lanpostuetarako prestaztea" dela dio Mankomunitateko Garapen Agentziako arduradunak, eta hori krisi demografikoarekin lotzen du: "Orokorrean, biztanleria beherantz doa; hala, hurrengo hamarkadetan eragina izango du, lan merkatua uzkuritu egingo delako. Horrek eragina izango du enpresetan. Ahalegina egin behar dugu bertakoak behar bezala prestatzen; izan ere, jende askok hartuko du erretiroa. Lanpostu kritikoak dituztenak dira, eta zailtasunak izango ditugu haiek ordezkatzeko. Arazo larri baten aurrean gaude".

Barne Produktu Gordina herriak

	Milioi eurotan
Arrasate	1.007,656
Oñati	636,828
Bergara	553,896
Aretxabaleta	231,950
Eskoriatza	140,999
Antzuola	80,765
Elgeta	61,972
Aramaio	19,537
Gatzaga	2,874

ITURRIA: EUSTAT

Barne Produktu Gordina biztanleko

	Eurotan
Oñati	55.823
Elgeta	55.780
Arrasate	46.502
Antzuola	37.723
Bergara	37.514
Eskoriatza	34.000
Aretxabaleta	32.660
Aramaio	13.192
Gatzaga	12.888

ITURRIA: EUSTAT

Julen Bollainek gaineratu du etorkizuneari BPG eta lanpostuen beharrak ez direla eskutik joango: "Geroz eta digitalagoak gara eta, agian, geroz eta lanpostu gehiago suntsituko dira. Jendea prestatu beharra dugu datozen lanpostuetarako, baina jakitun izan behar dugu lanpostu suntsiketak ere egongo direla. Gaur egun, oraindik zaharkituta dauden industriak ditugu, eta buelta bat eman behar diegu horiei.

"ENPRESEN KEZKA TALENTUA ERAKARTZEA ETA MANTENTZEA DA"

ALAITZ OSA, BAILARA ELKARTEA

Enpresen oinordetzak mahai gainean jarri behar dira, eta uste dut horri aurre egiteko lan handia egiten ari direla eskualdeko Mankomunitatea eta Garapen Agentzia".

Enpresen elkarlana sustatu

Erronka horiek, baina, enpresa handiei zuzendutakoak dira; horregatik, Debagoiengan Bailara elkarteak sortu da erronka horiei aurre egiteko. Egun, hamasei enpresa txiki etaertainek osatzen dute elkarteak, eta, hilabete gutxiko jarduna badu ere, erronkei elkarlanean aurre egiteko helburu irmoa erakutsi dute hasieratik. "Azkenaldian arreta hiriburuetan zegoen jarrita inbertsio eta interes aldetik. Hori dela eta, Bailararen helburua Debagoieneko enpresak ezagutzera ematea da. Horretarako, mapa birtual bat sortu dugu, enpresak zer egiten duten jakiteko, eta elkarri laguntzeko", dio Alaitz Osak, Bailara elkartearen presidenteordeak.

Dena dela, aurretik aipatutako krisi demografikoari ere erreparatzen diote Bailara Elkartetik eta horregatik talentua erakartzeko erronka dutela ere azpimarratu du: "Agerikoa da azkenaldian enpresak kezkatuta daudela talentuaren inguruan, izan enpresa handia,ertaina edo txikia. Talentua nola erakarri, nola fidelizatu eta nola mantendu. Ikusten da demografia ere behera egiten ari dela; beraz, egoerak ez du hobera egingo. Horren harira, guk ere proiektu bat abiarazi dugu horretarako".

Dena dela, Osak aitortu du bailaran enpresa handietan jende gehiago dagoela erronka horiei nola aurre egin jakiteko edo bideratzeko. Hori dela eta, Bailara elkarteak enpresen arteko elkarlana sustatu nahi du erronkei aurre egiteko: "Enpresaertain eta txikietan oso bestelako egunerokotasuna izate dute, eta aurretik aipatutako erronkak alde batera uzten dira. Hori dela eta, taldean jarduten badugu erronka hauei aurre egiteko unean, indartsuagoak izango gara". Julen Bollainek garrantzitsutzat jo ditu Bailara ekimena bezalako elkarteak: "Enpresa handiek, esaterako, jasangarritasuna aztertzeke sail bat izan dezakete; txikiek, ordea, ez. Horrek esan gura du trantsizio

Lanpostu kopurua udalerrrika

Arrasate	14.222
Oñati	7.806
Bergara	7.496
Aretxabaleta	3.318
Eskoriatza	2.169
Antzuola	948
Elgeta	948
Aramaio	318
Gatzaga	57
GUZTIRA	37.282

ITURRIA: EUSTAT

Lanpostu kopurua biztanleriarekiko

Elgeta	%86,50
Oñati	%67,91
Arrasate	%65,56
Eskoriatza	%51,73
Bergara	%50,86
Aretxabaleta	%46,31
Antzuola	%44,18
Gatzaga	%27,27
Aramaio	%22,04

ITURRIA: EUSTAT

ekologikoak ere eragina izango duela enpresa txikiarengan, nahiz eta haiek aztertzeke beta gutxiago izan. Beraz, horrelako tamaina duten enpresei laguntzen dieten ekimenak oso beharrezkoak dira, aurrera joateko modu bakarria komunitatean egitea delako".

Antzuolak errenta handiena

Herrien eta herritarren aberastasun maila jakiteko, errenta

"BPG-K EZ DIGU HERRI BATEAN DAGOEN DESBERDINTASUNA ERAKUSTEN"

JULEN BOLLAIN,
EKONOMIALARI

osoari dagokion datuak hartu behar dira kontuan: lanaren errenta, kapital higigarriaren eta higiezinaren errentak, jardueraren errentak eta transferentziak. Hain zuzen ere, Antzuola da errenta oso handia duen herria, 27.629 euroekin, eta Oñati dago bigarren, 26.948 euroekin. Aldiz, errenta oso txikia duten herriak Arrasate -23.391 euroekin- eta Aramaio -23.976 euroekin- dira.

Gizonezkoek errenta handiagoa

Generoari dagokionez, gizonezkoen eta emakumezkoen aldeari erreparatuz gero, Antzuolan dago arrakala handiena; izan ere, gizonezkoek emakumezkoek baino 14.655 euro gehiago jasozten dituzte errentan. Alderik txikiena, berriz, Eskoriatzan dago, 6.545 euroko aldearekin; bi kasuetan, ordea, gizonezkoak gailentzen dira.

Emakumezkoen errenta osoari begiratuta, Oñatin dago handiena, 22.326 euroekin, eta txikiena Leintz Gatzagan, 18.729 euroekin. Bollainek dio nahiz eta azken urteetan aurrerapausoak eman diren oraindik arrakala "handia" dagoela eta "neurriak" hartu beharko lirakeela: "Sektore maskulinizatuak eta feminizatuak daude, eta bailarak sektore maskulinizatueta pisu handia du. Hemen aurrera egin ahal izateko, instituzioen eta gobernuaren aldetik arautu beharko litzateke. Eta ikusi da neurri feministak aurrera eramane diren tokietan arrakala jaitsi egin dela".

Pobrezia

Aberastasunari lotuta pobrezia aipatzea ere "garrantzitsua" dela azaldu du Bollainek, eta hemen ere badagoela dio: "Gaur egun nahiko errekurtsu ditugu pobrezia amaitzeko, eta gorritu egin beharko genuke. Egia da Debagoiengan beste eskualde batzuetan baino pobrezia txikiagoa dagoela, baina hor dagoen gaitza da, eta uste dut erakundeek ez dutela egiten nahikoa hori amaitzeko. Zoritzarrez, pobrezia ezingo da amaitu gehiegizko aberastasuna dagoen bitartean". Arrakala horri lotuta, gaineratu du, lehenik, "gehiegizko pobrezia" amaitu beharra dagoela pobrezia amaitzeko, eta ez direla inoiz gehiengo sozialaren askatasunari lotutako "aurrera-pausoak" emango.



Markulete eta Garagartza artean ari dira gaur egun lanak egiten. IÑIGO BARRENA

Asfaltatze lanak egiten ari da Foru Aldundia Debagoiengan

Markulete eta Atxabalpe artekoak dira martxan jarri dituzten azken lanak; momentuz, Garagartzaraino

I.B.K. DEBAGOIENA

Gipuzkoako Foru Aldundia hainbat asfaltatze lan egiten ari da azken hilabeteetan Debagoiengan. Martxan jarri dituzten azken lanak Markuletetik hasi eta Atxabalperaino iritsiko direnak dira. Lanen aurrekontua milioi bat eta erdikoa da eta bost hilabete epean amaituta egotea espero dute. Hain zuzen, bi tarteri eragingo diete: Markuleteko biribilgunetik Garagartza auzoko biribilguneraino eta Garagartzako biribilgunetik Atxabalperaino. Lehen zatian trafikoa astun handia ibiltzen da eta bigarrenean, berriz, trafikoa astun txikia igarotzen da.

Gaur-gaurkoz, Markulete eta Garagartza arteko zatia birgaitzen hasi da Aldundia eta errei bateko asfalto erabat altxatu dute lanei ekiteko. Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi duenez, lan horien birgaitzerako, beste errepedeetako fresatze lanetatik erreperatutako materiala erabiliko dute. Bien bitartean, errepede zati hartatik igarotzen zen ibilgailuen trafikoa Markuleteko industrialde barrutik bideratu dute.

Gorla-Elosua, amaitzeaz

Amaitzeaz dauden lanen artean Gorlatik Elosura daraman errepedeak daude. Sei kilometro pasatxoko zatia ari dira konpontzen, eta, lanen zatirik handiena amaituta dagoen arren, bide-zoruaren azken zatia jartzea falta da. Geruza hori aplikatzeke, ordea, hezetan eta tenpe-

ratura jakin batzuk behar dira; beraz, Foru Aldundia klimatologia egokiaren zain dago hori egin ahal izateko. Neguan ez dira baldintza horiek izan, eta, hala, bide-zoruaren azken lana maiatzean egitea espero dute. Lanak irailean hasi zituzten eta hasiera batean bost hilabete epea jarri zuten; eguraldiak baldintzatuta, lanak luzatu egin dira.

Epeleko lanak, amaituta

Dagoeneko amaitu dituzten lanak Epeleko biribilgunekoak dira. Autobidetik biribilgunera sartzeko adarrean goizeko lehen orduetan gertatzen ziren auto-pilaketan ondorioz, bigarren errei bat ahalbidetu dute, biribilgunera bi ibilgailu batera sartu ahal izateko. Horrez gain, biribilguneko irlatxoak moldatu eta margotu egin dituzte eta drainatze sisteman hobekuntzak egin dituzte. Behin lanak amaituta autobideko irteeran izango diren hobekuntzak aztertu, eta ondoren erabakiko dute neurri gehigarriak behar diren edo ez. Lanak 136.538 eurotan esleitu ziren eta hiru hilabete epea izan dute. Epeleko biribilguneko jarduketak Bidegik egin du.

MARKULETE ETA ATXABALPE ARTEKO LANAK BOST HILABETEKO EPEAN EGITEA ESPERO DUTE

Patologia dualei aurre egiteko, Katearen Loturak

Patologia duala sufritzen duten pertsonen familiek eta lagunek sortutako elkarte da Katearen Loturak, eta, aurkezpena aste honetan izan den arren, 2019an sortutako elkarte da eta ordutik hona dihardute lanean bertako kideek

Julen Murua Mesonero ARRASATE Kulturaren egindako ekitaldi baten bidez aurkeztu dute Katearen Loturak elkarte, Debagoienean patologia duala sufritzen duten pertsonen familiek eta lagunek osatutakoa. Hasiere batean Arrasaten droga-mendekotasuna duten pertsonen laguntzeko funtzioa zuen arren, dro-

ga-mendekotasunaren munduan sartzen zihoazen heinean Debagoienean patologia duala sufritzen zuten pertsona ugari zuela identifikatu zuten, eta haien jarduna horrantz bideratzea erabaki zuten.

Patologia duala pertsona berak menpekotasun-nahaste bat eta gaixotasun mental bat izatea da,

eta "edozeinek" sufritu dezakeela dio Regina Herizek, elkarteko presidentea. Elkarteko kideek diotenaren arabera, ikerketa zientifikoek frogatzen dute mendekotasuna, substantziei lotuta egon ala ez, buruko nahaste bat gehiago dela. Gainera, menpekotasunak eta gaixotasun mentalak elkar eragiten dute, eta ezin da jakin bietako zein hasten den lehenago. "Ez dakigu zer doan lehenengo; pertsona batzuek porro bat erretzean agerraldi psikotiko bat izan dezakete eta beste batzuk eskizofrenia izanda substantziak hartzen hasten dira; alkohola, adibidez", dio Gabriela Michel Zugazabeitiak, elkarteko kidea.

Ekitaldian, Javier Ogando psikiatra erretiratu eta Lourdes Fernandez abokatua eta familia-bitartekaria izan ziren. Ogandok adierazi du 1977an Aita Mennin bere ibilbidea hasi zuenetik gaur egunera arte "egoera asko aldatu" dela, eta



Katearen Loturak elkartearen aurkezpena. GONTZAL BELATEGI

egun dauden hutsune eta arazoak agerian utzi zituen. Fernandezek, berriz, gaizki artatu izanaren eraginez patologia duala sufritzen duten pertsona askok "kartzelan edota bestelako zigorrekin" amaitzen dutela adierazi du; gaineratu du "giza ingurunearen laguntzarekin elkarriketa abiatu" behar dela, "mina jaso duen pertsona konpondua, ulertua eta entzuna sentiarazi eta arau-hauslea erantzukizuna hartze horretara iristea ahalbideratuz".

Instituzioetan eragina

Elkartera orain aurkeztu arren, 2019tik hona jardun mamitsua izan dute. Espainiako hainbat elkarterekin egin dute harre-

mana, elkarte guztiek norabide berean joan behar dutela sinesten dutelako. Bestalde, politika instituzionalean ere izan dute eragina. Gipuzkoako Batzar Nagusiek patologia duala sufritzen duten pertsonak artatzeko zentro bat irekitzea adostu zuten; EH Bilduren, Elkarrekin Gipuzkoaren eta Alderdi Popularraren aldeko botoekin. Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eta Osakidetari helarazi diete erabakia. Hala ere, patologia duala artatzeko zentro bat egotea aurrerapauso garrantzitsutzat duten arren, egiteko hainbat lan daudela adierazi zuten elkarteko kideek; tartean, "gaiarekiko gizartearen sentsibilizazioa".

COPRECI COPRECI, KOOP. E

2024ko OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIALDIA

Kontseilu Errektorearen erabakiz, elkartearen ohiko batzar orokorrera deitzen da. Batzarra **Aretxabaletako kiroledegian** egingo da 2024ko maiatzaren 17an. 15:30ean lehen dela eta, kasua balitz, bigarrena 16:00etan, egun eta toki berean, eguneko gai-zerrenda honen arabera:

GAI ZERRENDA

1. Akta(k) onartzeari buruzko informea eta akordioa.
2. Memoria irakurtzea eta onartzea.
 - 2.1. 2023ko Gestioari buruzko akordioa.
 - 2.2. 2024ko Gestio Plana onartzea.
3. 2023ko memoria ez-finantzariora.
4. 2023ko urteko kontuen azterketa.
5. 2023ko emaitzen banaketa.
6. Erregimen ekonomikoari buruzko estatutu xedapenak.
7. Osagaien Dibisioari eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
8. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak.
9. Kanpoko auditoreak izendatzea.
10. Fagorreko Batzarrerako ordezkariak hautatzea.
11. Galderak eta eskaerak.

Kontseilu Errektoreko Lehendakaria
Aretxabaleta, 2024ko apirilaren 19an

(*) 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskiako Kooperatibena beren 35.7. artikuluan espresuki aurreikusten da deialdiaren iragarrian adieraziko dela bazkide guztiek eskubidea dutela gai-zerrendari lotutako dokumentu guztiak sozietatearen egoitzen aztertzeke, baita, izatekotan, sozietatearen inportantean ere.

Hitzaldi informatiboa egingo du Leintz Bailerako Ekiolak

Maiatzaren 16an, 18:00etan, Kulturaren egingo du Ekiolak hitzaldi informatiboa. Kontseilu Errektoreko kideak izango dira han eta gai hauek jorratuko dituzte: instalazio fotovoltaiakoaren egoera eta hurrengo urratsak, bazkideen argindar-enpresa merkaturatzailearen aldaketaren prozesua eta behin instalazioa martxan jarri ondoren bazkideek jasoko duten fakturaren edukiak eta azalpena.

Hitzaldia Ekiolako bazkideendako eta bazkide ez direnendakoko da, eta informazioa lortzeko edo erakundearekin eta haren jarduerekin lotutako edozein zalantza argitzeko aukera izango dute bertaratuek.

"Erabateko jarraipena" izan du Aspaceko langileen grebak

Greba deialdiak egin dituzte asteon Gipuzkoako Aspace eguneko zentroetako eta hezkuntza eta arreta goiztiarreko langileek. ELAren arabera, Aspacek "erabat blokeatuta" du hitzarmenaren negoziaketa, baina langileek urratsak egiteko eskaria egin dute: "Administrazio publikoari eta Aspacei eskatzen diote, erosalmena bermatzeko soldata hobetzeaz gain, gainontzeko hobekuntzak bermatzea: lana eta bizitza kontziliatzeko neurriak, hobekuntza sozialak eta enpresaren beraren antolaketa eta funtzionamendua hobetzea". Aspacek eta administrazioak "jarriera aldatu ezean" mobilizazioekin jarraituko dutela esan dute.

109 milioi euroko emaitza positiboa izan zuen iaz Eroskik

Kontuak 2024ko urtarrilaren 31n itxi zituen Eroski taldeak, eta 109 milioi euroko emaitza positiboarekin amaitu du 2023ko ekitaldia kooperatibak; salmenta gordinen %1,89 da hori, eta iazko ekitaldiko kopuruekin alderatuta -64 milioi euroko emaitza positiboa izan zuen)-%70,31ko igoera dakar horrek. Salmenta gordinekin jarraituta, ekitaldi horretan 5.729 milioi eurokoak izan dira, aurreko ekitaldian baino %6,23 handiagoa. Horrek eragiten du jardueraren bolumena ere handitzea; hain zuzen ere, %16,66 igo da kooperatiba matrizearen jardueraren bolumena: 1.969,7 milioi eurora da, hain zuzen ere.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industrialia
- | Automatizazio eta Robotika Industrialia

Espezializazio ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa
- | Eragiketa - Teknologikoen inguruneetan zibersegurtasuna

» Oñati gestio heziketa

- | Salmenten Kudeaketa
- | Administrazioa eta Finantzak

mondragon.edu/lanbideheziketa

#LanerakoGertu

IZEN-EMATEA

Maiatzaren 6tik 24ra



MGEP: 664298683 // 664298704

OÑATI GESTIO HEZIKETA: 943718009



Oihana Barandiaran, Aritz Otxandiano eta Hector Olabegogeoaskoetxea, Duinduz proiektuaren aurkezpenean. TXOMIN MADINA

'Duinduz' proiektua martxan da dagoeneko

Etxeko zaintzan aritzen diren langileei eta zaintza zerbitzua jasotzen duten familiei laguntzeko asmoz jarri dute proiektua martxan Fagor Taldeak eta adinekoak euren etxean hobeto bizitzeko zerbitzu eta produktuak eskaintzen dituen Bihar ekimenak

Julen Murua Mesonero DEBAGOIENA Zaintza sektoreak bizi duen errealitatea hobetzeko helburuarekin, *Duinduz* proiektua jarri dute abian Fagor Taldeak eta Mondragon Korporazioaren *Bihar* ekimenak. Prekarietateari aurre eginez eta bertako profesionalak balioetsiz, "datozen bi urteetan indarrean egongo diren hobari ekonomikoaren programa aitzindari bat" jarri dute martxan. Hain zuzen ere, Fagorrek konpromisoa hartuko du hilean 380 euroko ekarpen ekonomikoa egiteko zerbitzu horiek erabiltzen dituzten familientzat, eta, hala, ekimen horren bidez, helburua da familia horien "finantza egoera arintzeaz gain zaintzaileen ongizatea hobetzen laguntzea, bidezko konpentsazioa eta euren lan balioetsuagatik errekonozimendua jasoko dutela bermatuz. Bestalde, Bihar S. Coop-ek etxean zaintzeko zerbitzu pertsonalizatua eta profesionala bermatuko du, pertsonen eta familiei erabat egokituta".

Hori posible izateko, Fagor Taldearen iraunkortasun estrategia jarraituz eta herri eta komunitate iraunkorrakoak lortzeko asmoz, Taldearen gizarte funtsetik 300.000 euro bideratuko dira *Duinduz* proiektura: aurtun, 150.000 euro, eta datorren urtean, beste hainbeste. "Herri eta komunitate iraunkorrakoak lortzeko helburu horretan zaintzarena da dugun erronka nagusietako bat, inklusioarenarekin batera, eta, zelanbait, proiektu honek, *Bihar* ekin batera garatuko dugun proiektu honek, bi adar ukitzen ditu: zaintzarena eta inklusioarena. Badakigu zaintzaren sektore honetan zaintzaileen lan-baldintzak ez direla izan

ZAINITZA SEKTOREAK BIZI DUEN EGOERA HOBETZEA DU HELBURU 'DUINDUZ' PROIEKTUAK

beharko liratekeen bezain onak, ezkutuko ekonomia handia dagoela, eta elkarlan honekin bilatzen duguna da ekonomia hori azalratzea eta laguntzak eskaintzea familiei zaintzaile lanak egiten dabiltzan pertsona horiei kontratuak egin eta haien lan baldintzak duindu ahal izateko", adierazi du Aritz Otxandiano, Fagor Taldeko iraunkortasun arduradunak.

Hasierako baldintzak

Debagoiengan bizitzea edo Fagor Taldeko kidea izatea dira laguntza eskatzeko hasierako baldintzak, eta, proiektua xehetasun handiagoz ezagutzeko, Mondragon Korporazioaren *Bihar* ekimenak Arrasateko Olarte kalean duen bulego berrian hartuko dituzte bai etxeko langileak eta baita familiak ere. Asteleheneetik asteazkenera goizeko hamarretatik arratsaldeko ordu bietara egongo da zabalik bulegoa; eta eguenetan, arratsaldeko bostetatik zortziak arte.

Asteburuan ospatuko da Puntaik Punta jaialdia Elgetan

Askotariko ekintzez osatutako egitaraua izango dute eta autobus zerbitzu berezia egongo da Bergaratik Elgetara

J.M.M. ELGETA

Zortzigarrenez ospatuko da aurtun Puntaik Punta Debagoieneko bidezidorren jaialdia, eta Elgetak hartuko du, asteburu osoan, askotariko ekintzez osatutako egitaraua. Debagoieneko Mankomunitateak, Elgetako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak elkarlanean antolatutako jaialdia da eta aurkezpenean adierazi zuten "aukera paregabek" dela "bailarako ondare naturala eta ondare kulturalaz gozatzeko".

Egitarau zabalak

Askotariko ekintzek eta adin guztietakoei zuzendutakoek osatzen dute egitaraua. Irteerak, dantzak, kontzertuak, jolasak eta beste hainbat kontu izango dituzte ostiraletik domekara bitartean Elgetara joaten direnek. Egubakoitzean, jaialdia hasteko, *Mendiz mende* argazki erakusketaren irekiera egongo dute Buztin gelan, 16:30ean; ilunkean, 20:30ean, Intxorta Txiki gauez argizatuzera joateko aukera egongo da, Kantsatzeko mendia taldearekin batera, plazan hasita. Zapatuan, 10:30ean, Intxortxako frontea ezagutzeko ibilbide tematiko gidatua egongo da, eta, horrez gain, senderismo eta artisau azokak egongo dira, berrikuntza nagusi gisa. Gainera, *food truck* delako gunea egongo da plazaren aurrean, eta haur eta gaztetxoentzat abentura-gu-

nea ere izango da, 11:00etatik 14:30era eta 16:30tik 20:00etara, Bolatoki aurreko zelaian. Bitartean, *pump track* erakustaldira eta ikastarora gerturatzeke aukera izango dute interesdunek, eta, horretarako, *pump track* pista joan beharko da, 17:30ean. Domekan, mendira irteera gidatua egongo dute, 10:00etan, Arrasateko Elgetara -GR-289 ibilbidea-, eta 13:30ean burrunzti herrikoia egongo dute. Musikari dagokionez, Unai Cantabrana bakarlarri elgetarra eta Gozategi izango dira kontzertuak emango dituztenak herriko plazan, zapatuan, 12:30ean eta 22:30ean, hurrenez hurren.

Autobus zerbitzu berezia

Debagoiendarrak Elgetara joan ahal izateko, autobus zerbitzu berezia egongo da bai zapatuan eta baita domekan ere. Zerbitzu berezi hori, baina, Bergara eta Elgetako autobusei bideratuta egongo da. Bailarako gainontzeko herrietako autobus zerbitzuek ez dute aldaketa edo berezitasunik izango. Elgetako geltokiak aldaketa bat izango du: herriko plazan izatetik Berroandokoan izatera igaroko da, horrela, erdigunea oinezkoen bideratuta gera dadin. Autobusen ordutegiak ikusgai daude lurraldebus.eus webgunean.



Egitaraua ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.



2024ko Puntaik Punta jaialdiaren aurkezpena Elgetan. TXOMIN MADINA

Arizmendi Ikastolako ikasleak, gizartean eragiten

GORKA GARCIA SASOIBIDE ELKARTEAREKIN ELKARLANEAN (GIKAI-KO IKASLEA)

FELI ARMIÑO AITA MENNI ZENTROAN BOLUNTARIO (ERIZAINZAKO IKASLEA)

ADRIAN GALLEGOS GURUTZE GORRIAN BOLUNTARIO (OSASUN LARRIALDIETAKO IKASLEA)

UNAI UNZALU BIRZIKLANET PROIEKTUAN PRAKTIKETAN (MIKROINFORMATIKAKO IKASLEA)

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketako ikasleak gizartean zerbitzua emateko askotariko proiektutan daude murgilduta. Horren adibide dira Kirol Animazioaren Irakaskuntza (GIKAI) ikastearekin batera Sasoibidearekin eta Aita Mennirekin elkarlanean ari den Gorka Garcia, erizaintzako zaintza osagarrien ikasketekin batera Aita Mennin boluntario diharduen Feli Armiño, Osasun Larrialdietako ikasle eta Gurutze Gorriko boluntario Adrian Gallegos eta Gizarte eta Mikroinformatika zikloko ikasle eta Birziklanet proiektuan praktiketan dabilen Unai Unzalu.

Gorka, ze proiektu duzue martxan gaur egun GIKAI zikloan?

Bi azpimarratuko nituzke: lehen, Sasoibiderek garatzen duguna. Adineko pertsonen askotariko tailerrak egiten ditugu; batez ere, jarduera fisikoarekin zerikusia dutenak. Eta bigarren proiektua da Aita Mennirekin egiten duguna; adibidez, iktus edo burmuineko bestelako kalteren bat jasan duten pertsonen kirol espezifikoak egiten dugu eguneko zentroetan.

Gorka, merezi du halako egitasmo baten parte hartzea?

Bai. Nire etorkizuneko lanera hurbiltzeko modu bat da, ikasi-



Unai Unzalu, Feli Armiño, Adrian Gallegos eta Gorka Garcia ikasleak.

takoa praktikan jartzekoa. Behar dutenek eskertu egiten dute; bi aldeontzat da onuragarria.

Feli, Erizaintza ikasteaz gain, Aita Mennin ari zara boluntario; nola sentitzen zara lan horretan?

Oso ondo sentitzen naiz Aita Mennin, beharra duten pertsonen laguntzen ari naizelako. Ikuspegi humanotik oso aberasgarria da eta nire ikasketekin zerikusi zuzena dauka; ospitale psikiatriko bat lehen pertsona ezagutzeko aukera ematen dit.

Feli, nabaritu duzu bilakaerarik zaitzen ari zaren pertsonarengan?

Aulki gurgildunean dagoen adineko gaixo baten kasu zehatza kontatuko dizut. Ezagutu nuenean apenas egiten zuen berbarik, eta pixkanaka hasi da gehiago berba egiten, hasi da bakarrik jaten... Horretan izango zuen zerikusirik astero egiten ditugun bisitak; nabaritzen dut zain egoten direla. Niri ez zait ezer kostatzen haiekin berba egin edo paseo bat ematea, eta eurek asko eskertzen dute; baita nik ere. Alde humanotik zein profesionaletik oso aberasgarria da.

Adrian, nola eta zergatik hasi zinen boluntario lanetan Gurutze Gorrian?

"BEHAR DUTENEK ESKERTU EGITEN DUTE, BI ALDEONTZAT DA ONURAGARRIA"

GORKA GARCIA, GIKAI

"BISITAREN ZAIN EGON OHI DIRA; NIRETZAT OSO ABERASGARRIA DA HAIKIN EGOTEA"

FELI ARMIÑO, ERIZAINZAKO

Boluntario baten esperientzia ezagutu eta Gurutze Gorriara bisita bat egin ostean animatu nintzen. Pozik nabil, asko ikasten; eta, aldi berean, ikasitakoa praktikan jartzen.

Adrian, ze ekarpen egiten duzu boluntario egiten duzun lanak?

Profesionalki hazten laguntzeaz gain, beharra dutenei laguntzeak asko betetzen nau pertsonalki.

Unai, ordenagailuei bigarren bizitza bat ematen diezue beharra dutentzat; noren esku utzi dituzue?

Euskal Herriko eragileen artean daude AED, Seaska ikastolak, Zehar Errefuxiatuak, Yaakar elkarteak, Zaporeak elkarteak, Goierriko Caritas, AmaiDolua elkarteak eta Guerreras elkarteak. Euskal Herrikan kanpora, berriaz, Brasilgo MST edo Lurrik Gabeko Mugimendua, Saharako Fronte Polisarioa eta Senegalgo Andjef gobernuz kanpoko erakundea.

Unai, Birziklanet zure ikasketa amaierako proiektua ari da izaten; ekimenak badu loturarik zikloan ikasi duzunarekin?

Ordenagailua beharra dutenei helarazteak asko betetzen nau; Birziklanet oso lotuta dago nire ikasketekin.

"ASKO BETETZEN NAU BEHARRA DUTENEI LAGUNTZEAK; POZIK NABIL, ASKO IKASTEN"

ADRIAN GALLEGOS, LARRIALDIETAKO

"BEHARRA DUTENEI ORDENAGAILUAK HELARAZTEAK ASKO BETETZEN NAU"

UNAI UNZALU, MIKROINFORMATIKAKO

arizmendi ikastola

PRO

Lan bide

HEZIKETA

AURREMATRIKULA

Maiatzaren 6tik 24ra

IZENA EMAN!

www.arizmendi.eus

Gizarte eta kirol animazioaren irakaskuntza

GIKAI (GIKAI-KO IKASLEA)

Osasun larrialdiak

ERIZAINZAKO IKASLEA

Mikroinformatika sistemak eta sareak

MIKROINFORMATIKAKO IKASLEA

Erizaintzako zaintza osagarriak

ERIZAINZAKO IKASLEA

Oinarriko Lanbide Heziketa

• SIKUL DAFITZA
• ETXEBITZA MANTENTZE LANAK



ZABALIK

XABIER MUGARZA AIASTUI

Zuri edo beltz

Sare sozialetan egurra jaso du Jon Sarasuak. Donostian emandako hitzaldi baten harira izan da. Pentsamendu bakarrek mundua pobrea iruditzen zaiola esateagatik. Edo hori ulertu diot nik, behintzat. *Ultraeskuindar*, *misogino* eta antzerakoak irakurri ditut sareetan. Tamalez, ez nau harritu horrelakoak irakurtzeak.

Politika arloan konfrontazioa elikatzen den mundu baten bizi gara. Nirekin ez bazaude, nire kontra zaude. Etsaia beharrezkoa da norberarena defendatzeko, eta etsaierik ez badago, diskurtso propioaren falta agerian gelditzen da. Orokorrean, norberaren iritzia ematea ez da erraza; ñabardura txikiena ere ez da onartzen gai ezberdinen inguruan nagusi diren posizionamenduetan.

Askotan, gure iritzia ingurunearen edo kontestuaren arabera da: *pribatugoetan* bat ematen dugu eta, akaso, *publikoagoetan* kontu gehiagoekin ibiltzen gara. Gure herrian ez da sekula erraza izan norberaren iritzia ematea; garesti ordaindu izan da hainbat eta hainbat kasutan. Gaur

egun askoz hobeto gaude, baina, hala ere, beste arrazoi batzuk medio, zailtasunak hor jarraitzen du.

IKUSPUNTU EZBERDINEK EMATEN DUTEN ABERASGARRITASUNA NAHI DUT

Isilik egotea pentsatzen duzuna esatea baino egokiagoa dela askotan entzun izan dugu gurean. Iritzia ematea bizitza

konplikatzeko bide motzena dela barneratu dugu urte askotan, eta horri buelta ematea ez da erraza.

Beharbada, guztiz oker nabil esaten ari naizen guztian eta errealitatea jendearen gehiengoak berdintsu pentsatzen dugula da. Eszenatoki are okerragoa iruditzen zaitzala bada. Ez dut nik hegemonia bilatzen duen gizarte baten parte izan nahi. Ikuspuntu ezberdinek ematen duten aberasgarritasuna nahi dut, zalantza nahi dut.

Desberdintasunetik egingo dugu mundu hobe bat, desberdintasuna errespetatzetik egingo dugu herri hobe bat. Ez dezagun desberdina demonizatu eta ez dezagun homogeneizazioa jomuga izan.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Zortzikoa Mayabetik

JON SARASUA
'GOIENA.EUS'-EN ARGITARATUA
[HTTPS://LABUR.EUS/SMOJO](https://labur.eus/smojo)

Maien lurraldeko lanetatik, distantziarekin, duela gutxiko nire hitzaldi ez-entzun batek sortutako zalapartari buruz mini oihartzun bat eman nahi nuke. Pentsatu nuen zer esanik ez nuela, eta nahi zuenak benetako hitzaldiaren grabazioa entzungo zuela podcast forman, hori baitzen antolatzaileen asmoa. Baina esan didate arazo teknikoengatik azkenean ez zela grabatu, esandakoa galdu dela. Horrek bultzatzen nau hitz batzuk esatera,

hitzaldia beste nonbait emateak denboran luze jo dezakeelako. Hemen atera zait ohartxo bat, doinu librean eta zortzi puntuko motzean.

1. Ez dut sare telematikorik (nork agindu zuen «sare sozial» terminoa gordetzea sare telematikoentzat?) eta ez dut irakurri nire hitzaldiari buruz egindako txiorik. Ziurrenik gehienok dakizkizue nik baino hobeto txioen espazio horiei egozten zaizkien ezaugarriak, behar psikologikoak eta gainerakoak. Higiene xumea da niretzat horretan ez ibiltzea, baina ingurukoek kontatu didate zerbait, xehetasunik gabe, soilik hiru

titular: zalaparta, histeria, eskuin muturra.

2. Eskertzekoa izan behar luke, nire aldetik, dirudienez hater ditudan hauek nire ustezko pentsamenduaren abanikoa horrenbeste zabaltzea. Ezker mutur deitzen dutenarekiko sinpatiak bizi nau gauza inportante batzuetan; beste batzuen artean nire azkenaldiko begiratuak analisi marxiarrean du giltzarri nagusi xamar bat, eta orain eskuin muturrera ere iristen banaiz, bikain; horrek esan nahi du tarteko guztiak ere abarkatzen ditudala. Abaniko zabalen zalea naiz, baina hainbeste ez nuen pentsatzen. [...]

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldirikari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Algaraka

BAKARRIZKETEA LEHIAKETA

Lehen saioko partaideak!




'Joxemiel'



Xabin
Fernandez



Maider
'Mimi'



Asier
Galarza

Aurkezlea: Miren Nogales **Epaimahaia:** Iosu Zubia, Idoia Torregarai eta Aner Peritz



Bakarrizketari
gonbidatua:
Idoia Torregarai



Epaimahaikide
gonbidatua:
Ana Goitia

Maiatzaren 10ean, 20:00etan,
Bergarako Seminarixoan.



Eskuratu sarrerak:
seminarixoa.eus webgunean
edo egunean bertan leihatilan.

ANTOLATZAILEAK



BABESLEAK



LAGUNTZAILEAK



SAIOEN EKOIZPENA





Iturripe kiroldegia berritzea da proiektu nagusietako bat. E.A.B.

2023ko gerakina, "hiru proiektu nagusitara"

Iturripeko proiektua idazteko, udan Udalara joateko autobus zerbitzuaren proiektu pilotua egiteko eta Gorostiza auzorako igogailuen proiektua idazteko erabiliko du, besteak beste, 2023ko gerakina Udala Gobernuak; EAJk sei proposamen egin ditu

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE 12.616.417 euroko soberakina da 2023koa, eta, Udala Gobernuak aurreratu duenez, 2024ko aurrekontuetako proiektu batzuk gerakinetik eratorritako partidekin finantzatu ditu.

Hiru proiektu nagusi nabarmendu ditu Maider Morras alkateak eta asteon sinatu du hiru proiektu horiek martxan jartzeko

ko beharrezkoa den bi milioi inguruko kreditu aldaketa.

Proiektuei dagokienez, batetik, 600.000 euro bideratuko dituzte Iturripeko proiektua idazteko. Laster lehiaketara aterako dute idazketa eta 2025ean Iturripeko kiroldegi berria eraikitzen hastea aurreikusten dute.

Bestetik, uztaileko asteburuetan Udalara igoko den autobus

zerbitzu publiko berria ezarri nahi du Gobernuak: "Proiektu pilotu bezala funtzionatuko du aurtun, eta, emaitza onak izaten baditu, datozen urteetan mantentzeko asmoa dugu".

Azkenik, Gorostiza auzorako igogailuen proiektua ere idatziko du Gobernuak: "Martxoan bizilagunekin bildu ostean, proiektua idazteko adostasuna

lortu genuen. Proiektu konplexua da, eta funtsezkoa izango da udal teknikarien, gobernu-kideen eta auzokideen inplikazioa proiektuaren erredakzioan".

Udalbatzaren adostasun bila

Gainontzeko diru kopurua nora bideratu udalbatzak erabakiko duela dio Gobernuak: "Gure asmoa da lau aste barru egitekoa den ekaineko osoko bilkuran proposamen adostua eramatea eta, posible balitz, aho batez onartzea alderdi guztien artean". Halaber, alkateak dio Gobernu Planean jasotakoa errespetatu egin beharko dela, eta, ondorioz, "proiektu bateragarriak" izan beharko direla proposatutakoak.

Era berean, gogorarazi du Gobernuaren helburua "efizientziaz kudeatzea" izango dela, gerakinaren "zati handi bat" agintaldian etorrriko diren inbertsioetara bideratuz. Epe motzeko proiektuak Iturripeko kiroldegi berria edota Amaia antzokiaren eraberritze integrala daude, besteak beste: "Hala, datorren urtean abiatuko diren obrak finantzatzeko dirua gordeko dugu".

Epe ertainerako aurreikuspenetan, Musakolako kiroldegia eta urbanizazio lanak aipatu ditu: "Beraz, zuhurtzia handia beharko dugu".

EAJk sei proposamen egin ditu

12.616.417 euro horiek erabiltzeko sei proposamen egin ditu EAJk eta horietako lau iazko aurrekontuan jasota zeudela nabarmendu dute: batetik, 300.000 euro bideratu gura dituzte udalerriko hainbat eremutan asfaltatze lanak egiteko; bestetik, 100.000 euro jarriko lituzkete Zerrajerako parkea estaltzeko –Juan Arzamendi Musika Etxe ondoan dagoena–; halaber, San-

ta Barbarako parkea hobetzeko 100.000 euro jartzea proposatu dute; eta, azkenik, Iturripeko kiroldegia lehenbailehen eraikitzea. "3.600.000 euroko esleipena proposatzen dugu, diseinurako 600.000 euro eta obrak lehenbailehen hasteko 3.000.000 euro. Gure ustez, finantzaketa partekatua izan behar da Jaur-laritzaren, Aldundiaren eta Udalaren artean, baina horretarako lanketa egin behar da", dio Ander Garay zinegotziak.

Horiez gain, beste bi proposamen ere egin dituzte: lehena da Gorostizako igogailuak egiteko 2.400.000 euro inbertitzea eta, bide batez, proiektu hori Gobernu Planean sartzea: "2015ean aho batez onartutako plan hura gauzatzeko igogailu horiek bakarrik falta dira. Beraz, 400.000 euroko proiektua egitera bideratzea eskatzen dugu, eta bi milioi euro, gauzatzeko".

Azkenik, Santa Teresa eta Doneztebe Portuko kaleetarako 2.000.000 euroko dirulaguntza bideratzea proposatu du EAJk, "Eusko Jaur-laritzatik alde aurretik jasotako finantzaketa osatuz", adierazi dutenez. "Jaur-laritzak laguntza eman zion Udalari aurreko legegaldian. Laguntzaren zati bat 90 etxebizitzatan energia-eraginkortasuneko eta irisgarritasuneko neurriak ezartzeko bizilagunentzako laguntza-lerro bat zen. 90 etxebizitzak baino gehiagok erakutsi zuten interesa, eta asko laguntzarik gabe geratu dira".

ITURRIPE BERRITZEKO PROIEKTUA IDAZTEKO 600.000 EURO ERABILIKO DITU UDAL GOBERNUAK

Ikasleak udaletxean

Asteon egin dute ikasturteko zortzigarren eta azken aurreko Haur Kontseiluaren saioa. Arrasate Herri Eskolako eta Arizmendi Ikastolako 21 haurrek osatzen dute kontseilua, eta helburu nagusia da haurren parte-hartzea sustatzea, haien ahotsa entzutea eta kontuan hartuak izatea, euren interes eta beharretatik abiatuta. Maiatzaren 24an dute azken saioa.



ARRASATEKO UDALA

2023a "positiboa" izan da San Felipe Elkarlaguntzarentzat

Ander Etxeberria presidentek Rufino Ugarte idazkariak gidatuta egin zuten batzar orokorra, apirilaren 27an. Nabarmendu zuten elkarteak ia 11.500 pertsonari ematen diela zerbitzua –Arrasatek 22.000 biztanle ditu. Horrez gain, 2023ko emaitzak "positiboak" izan zirela azaldu zuten, eta, besteak beste, kuotak mantentzea erabaki zuten.



Malda egonkortu egingo dute, eta hesiak jarri

Zerrajera kaleko malda egonkortzeko lanak egingo ditu Udalak, babes hesi bereziak ezartzearekin batera, "herriarren segurtasuna bermatzeko asmoz"; 300.000 euro inguruko aurrekontua izango dute lanek eta, ondo bidean, udazkenean hasiko dituzte

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE 2023ko abenduaren 14an, eurien ondorioz hainbat harri zati erori ziren Zerrajera kalera, eta, ordutik, bidegorria itxita dago eremu hartan. "Segurtasuna bermatzeko, eremua hesitu genuen, zebra-bide batetik bestera, eta alde hartan oinezkoen pasabidea moztu", azaldu du Kepa Urteagak, Arrasateko Udaleko Obrak, Zerbitzuak, Mantentzea eta Auzoak Saileko zinegotziak.

Bitartean, Ikerlur enpresak maldaren egoera aztertu du, eta ondorio nagusia da malda oso ezegonkor dagoela eta ez dagoela bermatuta eremuaren segurtasuna mendi-hegaletik datozen arroken erorketen aurrean. "Gutziz ezegonkor dago. Txostenak dio arrisku handia duela, eta, beraz, guztiz beharrezkoa ikusten dugu malda egonkortzea", dio Urteagak.

Ondorioz, egonkortzeko lanak "ezinbestekotzat" jo ditu Udal Gobernuak. Hala, lehenik eta

behin, malda horretan dauden hainbat kutxatila, hodi eta eraikuntzako hondakinak kendu egingo dituzte; besteak beste, fabrika zaharrek hormigoizko bloke bat. Gero, drainatze-elementuak garbitu eta konponduko dituzte, eta, azkenik, babes hesi berezi batzuk jarriko dituzte—Kulturola eraikinaren atzealdean dauden modukoak—. Horrekin batera, ezarriko dituzten babes neurrien mantentze-lanak zehaztuko dituzte.

Proiektua idazten ari dira

Aurrekontuari dagokionez, 300.000 euro ingurukoa izango dute lanek, 2023ko gerakinetik bideratuko dutena. Apirilaren 19an esleitu zuten proiektuaren idazketa eta gaur egun horretan ari dira -8.000 euroko aurrekontua, BEZik gabe—. Behin bukatuta, ekainean aterako dituzte lanak lizitazioa eta orduan jakingo dute aurrekontua eta exekuzio-epe zehatza. Hori bai,

lanak udazkenean hasia da aurreikuspena, eta horiek bukatu arte eremua hesituta egongo dela nabarmendu du Urteagak, prebentzio neurri gisa.

Malda guztien azterketa

Gaiaren harira, EAJk "eragin-kortasunez" jokatzeko eskatu dio Udal Gobernuari, eta nabar-



Zerrajera kaleko bidegorria itxita dago eremu horretan abendua ezker. E.A.B.

mentu du "nahitaezkoa" dela udalerrian dauden malda guztien "azterketa sakona" egitea, edozein arrisku potentzial identifikatu eta arintzeko eta Zerrajeran

izandako moduko gertakari bat ez errepikatzen. Halaber, zera azpimarratu dute: "Funtsezkoa da bidegorria berriro irekitzea, segurtasun berme guztiekin".

Oscar Baile

Kids&Us Arrasateko zuzendaria

Oxfordeko Unibertsitate ospetsuak azterketa ofizialak egiteko baimena eman dio Kids&Us Arrasateri

Oxford Test of English azterketa ofiziala egiteko baimena eskuratu du Kids&Us Arrasatek. Auditoria fasea gaindituta, Kids&Usek erakutsi du Oxfordeko Unibertsitateak ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela.

Nazioarteko unibertsitateetan eta erakundeetan aintzatetsia da *Oxford Test of English*; hain zuzen ere, Oxfordeko Unibertsitateak ziurtatuta dagoena eta mundu osoan azterketa garrantzitsuenetakoa dena. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Baterratuaren arabera, A2, B1 eta B2 mailak egiaztatzen ditu, eta, ekainetik aurrera, baita C1 maila ere (Advanced). Gainera, %100 online egin daiteke eta azterketa bakarren lau arlo baloratzen dituzte: irakurtzea, entzutea, hitz egitea eta idaztea.

Aurrerantzean, esan moduan, Kids&Us Arrasaten edozein herri-



Oxfordeko kideak Kids&Us Arrasatekoei akreditazioa ematen.

|| 12 urtetik gora badituzu eta zure ingeles maila ziurtatu gura baduzu, gure zentroan egin dezakezu aurrerantzean ||

tar aurkez daiteke eta ingeleseko ziurtagiri ofiziala lortu dezake. "12 urtetik gora badituzu eta zure ingeles maila ziurtatu gura baduzu lanerako, unibertsitate-erantzeko, Erasmus programan parte hartzeko edo beste edozein zentrorako, gure zentroan egin dezakezu", dio Oscar Bailek, Kids&Us Arrasateko zuzendaria. "Horrez gain, emailtzak bost egunetan daude eskuragarri eta ez dira iraungitzen".

Azterketara aurkezteaz gain, prestaketa saioak ere ematen ditu eskolak. Hala, azterketara aurkezten direnek, prestaketa saiorik gabe, 139 euro ordaindu beharko dute. Era berean, aurreko ikastaro intentsiboa egiten dutenentzat prezioa 260 eurokoa izango da eta online ikastaro intentsiboa hautatzen dutenentzat, 240 eurokoa. "Etor zaitez gurera!", adierazi du Bailek.



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

Sugararak ostertzean

Liberalak esaten zuten, bloke sozialista jausi zenean, mundua oparotasun eta adiskidetasun aro batean sartuko zela, herrialde guztiak aberastuko zituen merkatu libreari esker. Oker zeuden.

Lehengaien agortzeak, ideologia erreakzionarioek, bloke kapitalisten arteko lehiak... gerra haizeak harrotu dituzte planetan zehar. Europar Batasuna sekulako eskalada militaristan murgildu da -armamentu nuklearraren espansio planak barne-, ezkerreko nahiz eskuineko gobernuak bultzatuta.

Ekialde Hurbilean gure blokeak elikatzen duen genozidio bat martxan dago, Afrikako herrialdeak uztarri kolonial zaharrak gainetik kentzen ari dira eta Asian ere tentsioen gorakadak ez du etenik, inperio estatubatuarren gainbeheraren lekuko.

Eta zer egin dezakegu guk, euskal herritarrok, langileok, halako munstroen aurrean? Bakarka, ezer gutxi. Baina gerra imperialisten aurrean posizionamendu ausartak hartzen dituzten antolakundeak babestu ditzakegu, euren mobilizazioetara joan. Antolatu eta presionatu. Adi, bada, mobilizazioei!



Kids&Us Arrasate
Euskal Herria plaza 13
20500 Arrasate
T. 943 051 546
arrasate@kidsandus.es



Musakolako Jai Batzordeko hainbat ordezkari, astelehenean, jaietako karteekin. MUSAKOLAKO JAI BATZORDEA

Asteburuko festa lehenik, San Isidro egunekoa gero

San Isidro jaiak ospatuko dituzte asteburuan Musakolan, eta gaur, bihar eta etzi bakarrik ez, eguaztenean ere hainbat ekintza egingo dituzte, San Isidro eguna baita; jaiak "errespetuz eta arduraz" ospatzeko dei egin du Jone Arizabaleta auzo-alkateak

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Jaiak iragartzeko kartelak eman duen zeresana alde batera utzita, Musakolako Jai Batzordeak prestatu dituen jardueraz gozatzeko egunak dituzte arrasatearrek, gaur hasi eta eguaztenean bitartean. "Gurera etortzera gonbidatzen zaituztegu, eta animatu gurekin batera jaietan parte hartzera", adierazi du Jone Arizabaleta auzo-alkateak.

Era berean, eskerrak eman dizkie San Isidro jaiak posible egiten dituzten auzokide eta eragile guztiei, eta zera azpimarratu du: "Errespetuz eta arduraz ospa eta gozatu ditzagun jaiak! Gogoratu Musakolan ez dugula inolako indarkeriarik onartzen".

Jai euskaldunen alde

Horrekin batera, jai euskaldunen aldeko aldarria egin du auzo-alkateak: "Aurten ere ohore handiz egin diogu harrera Korrikari, euskararen alde ozenki oihukatuz zeharkatu dugu Musakola puntarik punta. Baina ez dezagun ahaztu helburua euskara bizirik mantentzea dela eta horretarako erabili egin behar dugula; beraz, hitz egin dezagun euskaraz".

Sinadura bilketaren harira

Lau eguneko egitarau oparoaren baitan, askotariko ekintzak egingo dira jaietan, haur, gazte zein helduei zuzendutakoak (Egitarau osoa, *Goiena.eus*-en). Tartean, nabarmentzekoak dira

musika emanaldiak, eta, horren harira, izan da jai berdinzaleak aldarrikatu eta sinadura bilketa bat abiatu duenik ere, ohol-tzan emakumerik egongo ez dela salatuta. Horri buruz galdetuta, Arizabaletak hauxe erantzun du: "Ez da egia. Egongo dira hainbat emakume musikari Musakolan. Gainera, saiakera egin dugu emakumezko gehiago gurera ekartzeko, baina ez da erraza izan". Era berean, dio proposamenak jasotzeko ate guztiak zabalik dituztela: "Ez zaigu gustatu sare sozialetan horrela zabaldu izana. Guregana etorri eta proposamenak egitea eskatzen diegu hurrengorako".

EAEko trans legeari buruz ariko dira egunean Kulturaten

Arrasateko Bilgune Feministaren eskutik, Gorputzen Burujabetza zikloaren baitan, hitzaldia egingo dute Garazi Bedatsek (Morbor), Kattalin Minnerrek (Eihera) eta Ana Txurrukak (udal teknikaria eta militantea), Maria Osesek dinamizatuta. Datorren egunean izango da saioa, maiatzak 16, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 19:00etan.

Nola lurreratzen da EAEko trans legea? Zeintzuk dira mugimendu feminista eta transmaribolloaren korapiloak eta erronkak? Eta instituzioetan, LGTBI eta politika feministetan zer? Galdera horiek guztiak erantzuten saiatuko dira solaskideak eta saio irekia izango da.

Merkal oinetako dendako langileen elkarretaratzea bihar

Apirilaren 19an abiatu zituzten greba eta mobilizazioak Merkal Oinetakoak enpresako langileek. Gipuzkoan zortzi establezimendu ditu enpresak, eta horietako seik egin dute bat grebarekin; tartean, Arrasatekoak. 2019ko lan-hitzarmena hobetzeko negoziatzeak aurrera egiten ez dutela salatzeak helburua dute mobilizazioek. "Enpresak ez du negoziatzeko borondaterik", adierazi dute langileek.

Hain zuzen ere, bihar, zapatua, 12:00etatik 13:00etara Musakolako denda aurrean elkartuko dira, eta, protesta egiteaz gain, eskuorriak banatuko dizkiete herritarrei eta bezeroei, euren egoeraren berri emateko.

Mendi Tour biraren baitan, lau film Amaian martitzenean

BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia zinemaldiko lau film ikusteko aukera izango da maiatzaren 14an Amaia antzokian, 19:00etan hasita. Honako hauek izango dira filmak: *Canto Rodado*, *Oinez*, *La Gara* eta *Captains on El Cap*. Ordu eta erdi pasatxoko emanaldia izango da. Sarrera bost euro ordaindu beharko da eta udal webgunean eskuratu dai-

teke, baita egunean bertan leihatiln ere. Aipatzekoa da Besaide Mendizale Elkarte eta Arrasateko Udala direla babesle nagusiak, EITBekin batera.

Mendia, *abentura* eta *natura* gaien gaineko zinema ziklo ibiltaria da Mendi Tour, eta urte osoko ibilbidea osatzen du Bilboko zinemaldiaren azken edizioko pelikula onenekin.

Arrasatekoaz gain, Elgetan ere beste lau film emango dituzte domekan, 19:00etan, Espaloian, Puntaik Puntaren baitan.

OHARRAK

Sanjuanetako leloa: 'Ixotu Euskarra!'

Botoen %47 lortuta, Sara Iraolaren proposamenak irabazi du, eta lelo hori erabiliko dute 2024ko San Juan jaietan.

Mondra&Roll jaialdirako sarreren zozketa

100 sarrera zozketatuko ditu Udalak, eta, parte hartzeko, izena eman beharko da udal webgunean, maiatzaren 21a baino lehen.

1974an jaiotakoekin kintadarako izen-ematea

Ekainaren 1era arte eman ahalko da izena. Prezioa 100 euro da eta horren barruan daude bazkaria eta egun horretarako programaturiko diren jarduerak –urriaren 19an egingo dute–. Harremanetarako telefono-zenbakia: 617 68 54 27.

Long COVID Euskal Herriaren elkarretaratzea

Maiatzaren 15ean, eguaztena, egingo dute mobilizazioa, Debagoieneko Ospitalearen aurrean, 12:00etan, COVID iraukorra ikusarazteko helburuarekin.

Deba Bailarako Kontseilu Sozialista

Elkarretaratzea deitu du maiatzaren 15erako. Plazan izango da, 19:00etan, "Israelen eta bere mendebaldeko konplizeen aurka".

Jaialdi inklusiboa eguaztenean

Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, jai inklusiboa egingo dute eguaztenean Musakola zentzoko egoiliarrekin. 11:30ean irtengo dira kalera egoiliarrek. San Isidro eliza bisitatuko dute, eta, ostean, udal ordezkariak omenaldia egingo diete egoiliarrei eta langileei. Jaiak bukatzeko, musika eta luntxa izango dituzte.



Arrasateko Nagusien Kontseiluko kideak, kartelarekin. A.N.K.

"Lauko finalera iritsita, irabazi egin nahi dugu"

IZAR BEDIA SASKIBALOI JOKALARIA

Ointxe!-ko neskek lauко finala jokatuko dute asteburuan Donostian. Lehen finalerdia bihar (20:00) izango dute, San Ignacio taldearen aurka; irabaziz gero, finala domekan

Iñigo Barrena ARRASATE

Hitzordu historikoa izango du Mondragon Unibertsitateko emakumezkoen lehen taldeak asteburuan, eta, erronka horri begira, Izar Bedia (Arrasate, 1995) kapitainarekin izan da Goiena. Ilusioarekin dauden arren, ez datoz bat lauко finala jokatzekeo jarritako baldintzekin. **Nola dago taldea? Urduritasunak nabari dira?**

Gogo handia dugu eta entrenamenduetan buru-belarri gabiltza azken egunetan. Nerbioak ere hor daude; lauко final bat jokatzeak hori dakar, azken finean. Badakigu lauко finala gainditzeak zer eragingo lukeen; beraz, izugarrizko ilusioa dugu.

Espero al zenuten zaudeten tokian egotea?

Egia esan, hasieratik helburua lauко finalerako sailkatzea zen, nahiz eta jakitun ginen zaila izango zela. Dena dela, argi genuen ez geundela kategoria honetan maila mantentzeko soilik. Entrenatzaileak helburu hori jarri zigun, eta gu kontziente ginen genuen taldearekin lortzeko aukerak genituela; hortaz, pozik gaude lortutakoarekin.

Inoiz ez du bailarako emakumezkoen saskibaloitako talde batek maila horretako neurketarik jokatuko...

Bailaran eta Arrasate mailan emakumezkoen saskibaloian harrobitik egiten ari garen lanaren saria da hau. Ikusten da klub hau egiten ari den lana fruituak ematen ari dela.

Zein da helburua?

Behin honaino iritsita, irabazi egin nahi dugu. Lehenik, finalerdia, eta, ondoren, finala. Zaila izango da, ligako lau talde indartsuenetakoak gaudelako bertan, baina irabazten saiatuko gara. Lan asko egin beharko dugu, bi partiduetan 40 minutuan kontzentratuta egon beharko dugu, baina horixe dugu aukera eta aprobetxatzen saiatuko gara.



Izar Bedia, jaurtiketa bat egiteko gertu. IMANOL SORIANO

Aurkariak ezagutzen dituzue; non egongo da gakoa?

Ondo ezagutzen dugun aurkaria da San Ignacio. Talde moduan jokatuko beharko dugu. Finalerdiko urduritasunak alde batera utzi, eta neurketa osoan fisiko eta mentalki goi mailan lehian beharko dugu garaipena lortzeko.

Azken urteetan lortu duzue igoraren bat; lauко final hau jokatzea ezberdina da?

Bai. Maila handiagoa da liga honetan, eta jokalariek asko esperientziadunak dira eta ohituta daude goi mailan jokatzen. Nabaritzen da maila aldaketa.

Ibarra kiroldegian jokatuko ez bada ere, zaleen babesa beharrezkoa izango da, ezta?

Gai horrekin nahiko haserre gaude. Jarri dizkiguten baldintzak ez dira egokiak. Kantxak neurriak betetzen ditu, baina motzean jokatuko dugu; hau da, kantxaren

"NAHIKO HASERRE GAUDE, LAUKO FINALERAKO JARRI DITUZTEN BALDINTZAK EZ DIRELAKO ONAK"

eta hormaren artean oso leku gutxi dago eta epaileen mahaia ere ia kantxa barruan geldituko da, eta ez da segurtasuna bermatzen. Bestalde, kantxak ia ez du harmailarik; beraz, zaila izango da zaleentzat ikusteko ere. Gainera ordutegia ere oso txarra da: arratsaldeko zortzietan jokatuko dugu, eta, irabaziz gero, domekan 11:30ean jokatuko genuke finala, atsedean hartzeko astirik gabe. Saiatzen ari gara horiek aldatzen, baina ez dakit zer gertatuko den [oharra kaleratu dute]. Ezinezkoa da maila honetako lauко final baterako baldintza horiek jartzea; ez guretzat, ezta emakumezkoen kirolarentzat orokorrean ere. Ikusgarritasuna eman behar, kendu egiten diogu horrelako jarrekin.

Gertatzen dena gertatzen dela, denboraldi txukuna egin duzue...

Gu geu oso pozik gaude egindako lanarekin, eta ginga jarri nahi diogu denboraldiari. Entrenatzaileek, jokalariek eta klubak oso lan ona egin dugu, eta hor daude emaitzak. Orain, lauко finalerakin gozatzea izango da gakoa.

Bi jardunaldi erabakigarri ditu Mondratek aurretik

Liga amaitzeko bi partidu falta dira eta hirugarrenak dira sailkapenean arrasatearrak, eta euren eskuetan dute igoera lehiatzeko lauко finalerako sailkatzea. Aste honetan Jarrilleros taldearen aurka jokatuko dute, domekan, 16:30ean, etxetik kanpo, eta lauко finalean egoteko beste urrats bat egin nahi dute. Gertatzen dena gertatzen dela ere, Xabi Gorroñogoitia Mondrateko jokalaria denboraldiaren balantze "oso positiboa" egin du. Gainera, orain arte egindakoak ez duela "harritu" dio, hasieratik goian egoteko "talde polita" zutela argi zuen eta. Lauко finalean lehiatzeko "ilusioarekin" daudela ere aitortu du, eta, nahiz eta jakitun diren igoera lortzea oso zaila izango dela, "konfiantzarekin" daudela esan du: "Lauко finaleko partiduak partidu bakarrera jokatzen dira, eta edozer gertatu daiteke. Neurketa bakarrean edozeini irabazteko gai garela erakutsi dugu denboraldian".



DEBAGOIENENKO GREMIOAK



LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

Basabe poligonoa
D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 /
616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



Udaberriko Musikaldiaren aurkezpen ekitaldia. GOIENA

Musikaren erakuslehoak XX. edizioa ospatuko du

Udaberriko Musikaldia hogeigarren aldia izango du aurtengoa. Maiatzaren 10ean hasi eta 26ra arte iraungo du eta zazpi emanaldi izango ditu. Kontzertuak Juan Arzamendi Musika Etxean eta San Frantzisko elizan izango dira, 19:30ean hasita

Gontzal Belategi Zubia ARRASATE

Beste edizio batekin dator Udaberriko Musikaldia. Maiatzaren 10etik 26ra arte izango da, eta, guztira, zazpi emanaldi izango dira. Aurtengoa, gainera, ez da edozein edizio izango, musikaldia antolatzen den hogeigarren aldia izango da eta.

Urteak pasatu ahala, musikazale arrasatearrentzat erreferentziatzeko hitzordu bihurtu da Udaberriko Musikaldia. Hasiera batean, musika klasikoa izaten zen nagusi, baina, urteen poderioz, jaialdia egokituz joan da, mota eta estilo askotako emanaldiek barnebiltzeraino. Arrasateko musikarien erakusleho ere bilakatu da, izan bakarlarari zein musika taldeentzat.

Emanaldi guztiak ordu berean izango dira, 19:30ean. Lokalizazioak, berriz, San Frantzisko eliza eta Juan Arzamendi Musika Etxearen auditoriuma izango dira. Sarrera doan izango da eta edukiera bete arte sartu ahalgo dira ikusleak.

Egitarau oparoa

Sugaar Ensemble haize-boskotea izango da musikaldiko estreinako emanaldia. Maiatzaren 10ean izango da, JAMERen auditoriumean. Errepertorio berezi bat modu atsegin zein entretenigarrian eskaintzen duen taldea da hau.

Maiatzaren 12an izango da bigarren emanaldia; kasu horretan, San Frantzisko elizan. Barroko ingeleseko, frantseseko eta italiarreko musika estiloak uztartzen dituen All'antica seikoteak egingo du emanaldia. Antzina gazte europar baliabidedunek adin nagusitasuna lortutakoan Italiara egiten zuten bidaia azalduko dute emanaldian.

ZAZPI EMANALDI BATU DITUZTE UDABERRIKO MUSIKALDIAREN EGITARAUAREN BARRUAN

Maiatzaren 17an, San Frantzisko elizan, Kea Abesbatza egingo da. Hamasei abeslarik osatzen dute taldea eta, batik bat, musika garaikidean espezializatzen dira. Euskal Herrian genero horretan dagoen ahots talde bakarra da Kea.

Hurrengo egunean arrasatearren txanda izango da: San Frantzisko elizan, Arrasate Musikaleko Orkestrak eta Goikobalu Abesbatzak elkarrekin eskainiko dute beraien emanaldia.

Debagoieneko artistekin jarraituz, maiatzaren 22an, Aitor Garitano tenore bergararra JAMERen auditoriumean izango da, bakarlarari gisara kantuan.

Maiatzaren 25ean, Iñar Sastre piano-jotzaileak emango du kontzertua, JAMERen auditoriumean. Ibilbide musikal oparoa proposatzen du pianista ospetsuak.

Musikaldia amaitzeko, hilaren 26an, JAMERen auditoriumean Eñaut Zubizarreta *Trigger* aretxabaletarrak *Doodem* izeneko lan berria aurkeztuko du.

'Ura, lurra, airea' erakusketa ikusgai egongo da Kulturaten

Kulturateko pintura tailerraren eskutik, 'Ura, lurra, airea' erakusketa ikusgai egongo da maiatzaren 24ra arte

G.B.Z. BERGARA

Kulturateko pintura tailerrak antolatuta, *Ura, lurra, airea* erakusketa egingo dute Kulturaten. Gaur izango da erakusketaren irekiera, 19:00etan. Bestela, maiatzaren 11tik 24ra bitarte egongo da bertan erakusketa, eta 17:30etik 20:30era egongo dira lanak ikusgai.

Pintura tailerreko ikasleen lanak egongo dira ikusgai erakusketan. Tailerreko irakasle Amaia Bengoak adierazi duenez, lauzpabost urte pasa dira azken erakusketa egin zutenetik, eta herritarrei egindako lan eta aurrerapenak erakusteko gogo handiz daude. Erakutsitako lanak bi motatakoak izango dira, bakarka egindako lanak eta lan kolektiboak: "Bakarkako 55 lan inguru jarriko ditugu, eta taldean egindako hiru lan. Guztira, 100 bat mihise izango dira".

Hiru elementuak

Erakusketaren izenak ondo erakusten duenez, hiru elementu jorratu dituzte pintura tailerreko ikasleek: "Erromantikoak oinarritzat hartuta egin dugu lan, eta, horren harira, hiru elementuak, ura, lurra eta airea, landu nahi izan ditugu". Taldekako lanek elementu bakoitza islatzen dute: "*Airea* lana ekaitz batekin hasi eta zuhaitz lehor batean amaitzen da, muturreko egoera atmosferikoak islatuz". Zuhaitz horretatik abiatzen da *Lurra* lana: "Zuhaitz horretatik hasten da lana, baina deskonposatuz joaten da, artelan abstraktu batean amaitu arte". Amaitzeko, *Ura* lana jorratu dute: "Lurraren lanari jarraituz, itsaso abstraktu batean hasten da ura, eta giza kiaren eta naturaren borroka islatzen duen itsaso zakar batean amaitzen da".

Arrasate Literatur Lehiaketako sariak banatuko dituzte

Bukatzeaz da Arrasate Literatur Lehiaketaren 37. edizioa. Maiatzaren 14an egingo dute sari banaketa, Kulturaten, 19:00etan hasita. Aurten ere gonbidatu berezia izango du sari banaketak, eta hura Julen Ribas komikigile arrasatearra izango da.

Sei kategoria egon dira aurtengo edizioan, adin tarteka banatuta. Lehen Hezkuntzako

bosgarren mailaren eta Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailaren arteko ikasleek ilustrazio, bertsopaper eta narrazio kategorietan parte hartzeko aukera izan dute. Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik batxilergoko bigarren mailara artekoek eta erdi mailako heziketa zikloetako bigarren mailara artekoek, berriz, komikian, poesian eta mikro-ipuinean. 348 lan jaso dituzte eta kategoria bakoitzak epaimahai propioa izan du.

Lore Gazteak dantza taldeak matrikulazio epea ireki du

Maiatzaren 15era arte izango da Lore Gazteak dantza taldean matrikulatzeko aukera. Berezi-ki, 5, 6 eta 7 urteko haurrentzat izango da eta plazak mugatuak izango dira. Informazio gehiago, lorgazteak@gmail.com helbidera idatzita. Bestalde, maiatzaren 17an, 19:00etan, dantza saioa egingo dute Lore Gazteakeko beteranoek Herriko Plazan.

Maidar Alcelayren 'Ipuin hegalaria' kontaketa Kulturaten

Gizarte Zerbitzuek, Ekin Emakumeek eta Bibliotekak antolatuta, Maidar Alcelay ipuin kontalari arrasatearraren *Ipuin hegalaria* izeneko kontaketa egingo da maiatzaren 17an, 19:00etan, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan. 4 urtetik gorako haurrentzat da kontaketa eta izena eman beharko da izene-mateak.arrasate.eus atarian.

Produktu ekologikoak salgai Lorabbarri azokan

Bihar goizean Lorabbarri Azokak hartuko du herriko plaza, eta bertan herriko nahiz inguruko produktuak erosteko eta Amillubi proiektua ezagutzeko aukera egongo da; Sastiñan egitekoak ziren 'Alianza de sangre'-ren aurkezpena urrira atzeratu dute

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO Aramaioarrentzat egun erreferentea dena ospatuko dute bihar: hain zuzen ere, Lorabbarri azoka egingo dute 11:00etatik 14:00etara bitartean, Bizente Goikoetxea plazan. Dagoeneko Lorabbarri Astearen hamabigarren edizioa da eta oraingo honetan ere elikagai ekologikoen salmahaiak izango dira nagusi. Hala ere, kosmetika naturala eta erleen argizariz egindako oihalak erosteko aukera egongo da.

"Denak dira ekoizle txikiak, modu ekologikoan produktu ekologikoekin lan egiten dutenak. Horietako batzuk urte osoan ekonomatuan edo Aramaion eskura dauzkagunak. Saiatzen gara berritzen ikusteko zer-nolako aukerak dauden bertatik bertara, behar ditugun elikagai horiek kontsumitzeko eta elikadura burujabetza lantzeko", dio Aramailur kontsumo elkarteko kide eta egitasmoaren antolatzailerak bat den Irati Mujikak. Honako hauek izango dira azokan izango diren ekoizleak: Aramaioko Euzki okindegia, Angiozarko Aterpe olio ekologikoa eta gaztaina-irina, Maringo argizari-oihalak, Garaiko kontserba ekologikoak eta garagardoak, Orendaingo Izpiliku kosmetika naturala, Fikako Olatxuko labo-



Lorabbarri Azoka, iaz. GOIENA

re ekologikoak, Etxetxiki ortuari ekologikoak, Oreindaingo Larreta esneki ekologikoak eta Bidezko Merkataritza.

Halaber, Aramaixo Bizirik taldeak jatekoa eta edatekoa eskainiko ditu.

Amillubirentzat ekarpenak

Zestoan dagoen eta Biolurrek abenduan martxan jarri zuen proiektua da Amillubi. Bertako lurrak modu kolektiboan babeste du helburu nagusi, eta diru-bilketa bat dauka abian. "Aurrez, Aramailur kontsumo

elkartek egin du diru-ekarpina Amillubirako, eta azoka aprobetxatuko dugu herritarrek informazioa eduki eta proiektua ezagutu dezaten, eta, aldi berean, diru ekarpenak jasotzeko", aurrreratu du Mujikak.

Liburu aurkezpena, atzeratuta

Aramaion kokatu duen *Alianza de sangre* eleberria aurkeztekoa zen Haizea Lopez idazlea Sastiñako ermitan, baina arrazoi pertsonalak tarteko atzeratu egin du, urrira, Jubilatuen Eguneko Azokara.



Ezkerrean, Juana Altunaren argazkia; eskuinean, Barajueneen egindako murala. A.U./I.A.

Emakumeei omenaldia, Juana Altunaren horma-irudiarekin

Barajuengo bizilagun zen Juana Altunaren argazkia oinarri hartuta murala marraztu dute, auzolanean

I.A.A. ARAMAIO

Barajuengo auzoko pilotaleku atzean horma-irudia margotu dute, auzolanean, Barajueneen bizi zen Juana Altuna emakumeari 1900. urtean ateratako argazkia oinarri hartuta. "Barajueneen bizi zen amandrea zen Juana Altuna, eta auzotar askoren ahaidea da. Seme-alabak izan zituen eta haiek beste baserri batzuetako bizilagunekin ezkondu ziren. Gutxi gorabehera, denok daukagu erlazio harekin", dio murala egiten parte hartu duen Iban Astondoak. Auzoko amonei, amei eta emakumeei egindako omenaldia dela adierazi du, baita "historiak baztertuta" utzi dituen emakumeei ere.

Altuna lihoarekin haria egiten agertzen da irudian. "Lihoarekin egiten ziren hariak, izarak... Mitologia grekoarekin lotuta, Moirek bizitzaren hariak kontrolatzen zituzten, eta horrelako

metamarrazki bat da", azaldu du Astondoak. Azkenik, Jose Migel Barandiaranen *Izan zirelako gara eta garelako izango dira* esaldia idatzi dute.

Auzolanaren emaitza

Pilotalekua morez margotu zuten udazkenean, auzolanean, eta orduan ikusi zuten murala egin duten hormak "zerbait eskatzen" zuela: "Murala jartzea ondo egongo zela pentsatu genuen. Batek aipatu zuen argazki hori zegoela, eta aurrerago egiteko utzi genuen". San Prudentzioko zubia aprobetxatu dute. "Zapatu gauean proiektorearen laguntzarekin profilak marraztu genituen horman. Domekan hasi ginen denon artean margotzen. Lau bat egunean egin dugu. Eskerrak eman nahi dizkiet auzoko guztiei. Auzolanean egindako gauzek horrelako emaitzak ematen dituzte".

Lorabbarri Asteko ikastaroak

Astean zehar ikastaroak egin dituzte, eta kefirra, konbutxa eta xanpu solidoa egiten ikasi dute bertaratu direnek; Garbiñe Larrearen saioan, berriz, emakumearen zikloak eta osasun hormonalak izan dituzte hizpide.

Aurrez, ordea, Goiena teledibistako *Hemen Debagoiena* saioan izan zen, eta han egin zuen ikastaroaren aurrerapena.

Hala, azpimarratu zuen EAEn 52 urte dela menopausiaren batez besteko adina eta bizi-itxaropena 80 urtekoa denez, emakumeen bizitzaren zati handi bat pasatzen dutela etapa "luze" horretan. Halaber, sintomarik ohikoena insomnia dela adierazi zuen, eta ondoren, kardiopatia.

"Osasun hormonalaz ari garenean, ikastaroaren zati handi bat da

hiperestrogenismoa, eta ez dakigu progesterona sortzeko oso landare gutxi ditugula eskura. Hori elikadura da, eta elikadura hori izan duenak askoz sintomatologia txikiagoa du, baduelako nahiko progesterona. Askok lehen aldiz entzuten dute *progesterona* hitza, asaldatu ere egiten zaizkit sortzeko beharrezkoak diren elikagaiak, agian, 10 urtean ez dituztelako jan. Gai garrantzitsua da", dio Larreak.

Tramite elektronikoei buruzko ikastaroa martitzenean

Ikastaroa maiatzaren 14an izango da, 11:00etan, osoko bilkuren aretoan, eta gai hauek landuko dituzte, besteak beste: nortasun elektronikokoak, ziurtagiri digitalak eta administrazio orokorraren zerbitzu digitalak. *Cl@ve* ziurtagiria eta Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria eskuratu daitezke. Gazteleraz izango da.

OHARRAK

Pilota partidak

Gorbeialdeko Lagunartekoak jokatu dira domekan 10:30ean frontoian. Euskal pilotaren erakusketa egongo da.

XV. Eguzkierripa Rock

Hilaren 25ean izango da. Herri bazkarirako txartelak salgai, Añain, 18 eurotan. Menu begano edo begetarianoa gura duenak *eguzkierriparock@gmail.com*-era idatzi behar du.

Sei artzain txakur lehian Otala Zelai eguna hasteko

Artxate elkarteak eta Udalak hirugarrenez antolatu dute artzain txakurren lehiaketa; bihar, zapatua, jokatuko da, Aozaratza auzoko zelai batean, eta sei lehiakidek jardungo dute zein baino zein gehiago. Haien artean hiru debagoiendarrak dira

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Otala Zelai egunari hasiera emango dio hirugarrenez antolatu duten artzain txakurren lehiaketak. Aozaratza auzoan, Otala dorretxetik gertu, elkartuko dira sei artzain, border collie arrazako txakurrekin, bihar, zapatua, 17:30ean.

Hiru lehiakide debagoiendarrak izango dira: Asier Dacosta aretxabaletarra *Zeru* txakurra-ekin eta Javier eta Xabier Gastañaga aita-eme antzuolarrak *Cool* eta *Sandy* txakurrekin. Taldea osatuko dute Matxibentako Pello Seguroiak *Argi*-ekin, Izurtzako Juanjo Garatek *Tina*-ekin eta Galdakaoko J.R. Askargortak *Bat*-ekin.

Txapelketak bi zati izango ditu: lehenengoan, bandera batzuen atzetik pasatuko da txakurra eta ardiak eramango ditu artzainaren alboan dagoen zirkulura; han, epaileek esango diote nondik jo behar duen. Bigarren zatian, banderen artean pasa-



Xabier Gastañaga lanean lehenengo txapelketan. IMANOL SORIANO

tuko da eta ardiak zuzen-zuzen eramane beharko ditu zirkulu batera. "Txakurrak eta artzainak duten ulermena ikusiko da lan horiekin", adierazi du Mikel Pagazartundua antolatzaileak, eta herritarrak bertaratzera

gonbidatu ditu: "Ikuskizun benetan polita da".

Artxate elkarteak antolatu du lehiaketa; arraza libreko txakurrak dituzten hogeita bost bat gipuzkoarrek, arabarrek eta bizkaitarrek osatzen dute hori.

Urbaltzi babesa emateko jaialdia egingo dute ekainean

Lapurrak sartu ziren tabernan apirilean, eta, horri aurre egiteko, "komunitatearen laguntza" izango dute

M.A. ARETXABALETAKO

Apirilaren 30etik maiatzaren 1era bitartean sartu ziren lapurrak Urbaltz tabernan. Kalte materialak eragin zituzten eta dirua eraman zuten; hala eman dute aditzera arduradunek sare sozialaren bidez. Gaineratu dute hainbat eragile eta musika talderen dirua ere ostu zutela. Horregatik, lapurreta hori "tabernaren, bertako langileen eta herri mugimenduaren eta hori osatzen duten pertsonen kontrako eraso" ere badela adierazi dute.



Urbaltz taberna. GOIENA

Komunitatearen babesa

"Komunitate zabalak" osatzen du Urbaltz, eta haien babesa jasotzen dabilta: "Beste momentu askotan gure komunitatearen indar eta ilusioan babes hartu dugu, eta eraso honen ostean ere batera egingo

dugu aurrera". Horregatik, ekainaren 8rako jaialdi bat iragarri dute, "auzolanean bidea egiten jarraitzeko".

Jaialdi hori girotuko dute bertako musika taldeek, baina xehetasunen berri aurrerago emango dute.

Udalekuean izena emateko epea zabalik dago hilaren 21a arte

Uztailaren 1tik 19ra bitartean egingo dira udaleku irekiak eta 2012 eta 2020 bitartean jaiotako neska-mutikoei parte hartu ahal izango dute. 320 leku egongo dira eta maiatzaren 21a arte izango dute izena emateko aukera. Horretarako, formulario bat bete behar da (<https://labur.eus/obFqr>), eta 90 euro ordaindu.

Loramendi elkarteari eman dio horien ardura Udalak, 90.960 euro bideratuta. Edozein argibidetarako Durana kaleko bulegora jo beharko da, honako ordutegi honetan: goizez 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldean 16:30etik 18:00etara, maiatzaren 14an, 16an eta 21ean. Telefonoz ere deitu daiteke: 747 42 18 69; edo posta elektronikoz idatzi: loratu@loramendielkartea.eus.

Bestetik, hezitzaileendako izena emateko epea maiatzaren 14an zabalduko dute.

"Etxean presioa handiagoa izango da"

ASIER DACOSTA
LEHIAKIDEA

Asier Dacosta (Aretxabaleta, 1999) hainbat txapelketatan izan da, baina etxean lehenengoz hartuko du parte. **Lagunen eta senideen babesa izango duzu etxean.** Bai, baina presioa ere handiagoa izango da; lan txukuna egin gurako nuke, eta Otala Zelai inguruan giro polita sortu.

Zeru da zure txakurra; badira urte batzuk harekin diharduzula, ezta?



GOIENA

Bai; sanjuanetan lau urte egingo ditu. Gero eta konfiantza handiagoa dut harengatik eta nik neuk ere lasaiago jarduten dut. Urteekin txakurra asentatu egiten da, eta bere garairik onena oraintxe datorrela esango nuke, lau urtetik aurrera. **Txapela irabaztea badakizue zer den, ezta?** Bai; iaz, Muskizko txapelketa irabazi genuen. Ikusiko dugu aurtengo urtea zelakoa den.

Otala Zelai eguna

Domekan, haurren lasterketek eta krosak (11:00) emango diote hasiera Otala Zelai egunari. Ondoren (12:45), kirol jokoak izango dituzte umeek eta sagardo festa helduek, trikitilariak girotuta. Bazkaria norberak eraman beharko du eta antolatzaileek mahaiak eta aulkia jarriko dituzte. Arratsaldean (16:00) euskal disko festa izango da *Mikeltxi* DJarekin, eta gero (18:00), dantza saioa Leizarra musika eskolako ikasleen eskutik. Eguna agurtuko dute *Mikeltxi*-ren doinuekin.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

"Garbi ikusi nuen lanak salbatuko ninduela"

KATALIN ANTZIA ABASOLO DISEINATZAILEA

Sarako atelierrean martxoan izandako lapurretari buelta emateko diru-bilketa kanpaina jarri zuen abian, eta ehun lagun baino gehiagoren babesa jaso du

Mirari Altube ARETXABALETA

Martxoaren 21eko gauean lapurrak sartu ziren Katalin Antzia Abasolo (Aretxabaleta, 1988) diseinatzaileak Saran duen atelierrean. Aste Santu bezpera zen eta 60 bat pieza zituen, erabat amaituta, saltzeko gertu. Horiek eta bukatu barik zituen beste hainbat eraman zizkieten; baita diseinurako erabiltzen duen ordenagailu pertsonala, patrioiak, argazkiak, ikastaldietan saltzeko izaten dituen makinak eta argazki kamera ere. Kolpe handia izan zen, baina "jendearen elkartasunari esker" aurrera egin du.

Nola joan da diru-bilketa kanpaina?

Ederto. Sekulako berotasuna eta elkartasuna jaso ditut nire lehengo bezeroengandik eta inguruko jendearengandik. Bezero berriak ere etorri dira. Dagoeneko 100 parte-hartzailetik gora ditu bonu-laguntza kanpainak. Gertaeratik burua altxatu nuenean garbi ikusi nuen lanak salbatuko ninduela. Bonuak etorkizuneko lana dira niretzako eta aurre-ordainketa horrek hilabeteko gastuak ordaintzen laguntzen dit: alokairua, argia, segurua...

Jendearengandik zer jaso duzu?

Enpatia handia, beste nolabait esateko. Minduta ikusi dut jendea. Eta laguntza eskatzera au-



Diseinatzailea lanean. KATALIN ANTZIA

sartu nintzenerako, eskua luzatua zidaten. Asko motibatu ninduten, benetan indarra eman zidaten. Esku-lana da nire aktibitatea, eta hori ez da egun batetik bestera egiten. Berriz atelierra betetzeko hilabeteak pasako dira. Esku-lan hau estimu handian sentitu dut eta hunkituta nago.

Zein da oraingo egoera?

Oihal berriak eskatu ditut gardina eta alkandoren bildumak berriz abiarazteko; entregatu gabe gelditu ziren eskariak egin eta berriak hasteko. Uztaillaren

13an Hendaian izango naiz, Berlinen, Dinagu kolektiboaren azokan. Eta bestalde, uztailean Aretxabaletan egingo ditudan ikastaldientzako proiektuak garatzen nabil, horretarako behar dudun material guztia zerrendan jartzen. Gainera, aurtan, bi astez jarraian izango naiz jaioterrian: uztailean 15etik 19ra eta 22tik 26ra. Aukera zabala eman nahi diet bezeroei bonuak erabiltzeko. Eta saiatuko naiz gerturatzeko hori mugaren bi aldeetan pareko egiten, Hegoaldean eta Iparraldean.

Eta zein da gaur egun duzun beharrik handiena?

Denbora. Jostea denbora luzea da. Ondo jostea, bi aldiz luzeagoa. **Egoera oneratzen denean bide beretik jarraitzeko asmoa duzu?**

Bai, noski. Uste baino publiko zabalagoa eta konprometituagoa topatu dut tragediaren honetan. Zulotik ateratzeko soka bota zidaten. Orain, soka hori hari bihurtu eta merezi duten jantzia zein ikastaldia prestatu nahi diet. **Gertatutakoak ezer birplanteatzera eraman zaitu?**

Nire lekua berrestera eraman nau gertatutakoak. Orain dela hamar urte, kalitatezko ekoizpen lokalaren aldeko apustua egin nuen. Eta altxor txikia ebastera etorri ziren.



Hainbat gazte Loramendiren erakusketako liburuari begira. MIRARI ALTUBE

Maiatzaren 18an izango da Loramendiren Euskararen Eguna

Egun osoko egitaraua prestatu dute eta bazkarirako txartelak salgai izango dituzte astelehena arte

M.A. ARETXABALETA

Loramendi elkarteak 30. urteurrenaren ospakizunetan murgilduta jarraitzen du, eta hurrengo mugarrira Euskararen Eguna izango da. Maiatzaren 18an ospatuko du hori bazkide zein herritarrekin batera, eta egun osoko egitaraua iragarri du ordurako.

Txartelak, udaletxe zaharrean

"Loramendiren eta, bereziki, euskararen bueltan jende asko batzen zuen eguna izaten zen sasoi batean, eta hori berreskuratu gura dugu", adierazi du zuzendaritzako kide Julen Peralesek. Horretarako, egun osoko egitaraua prestatzen dihardute. Eguerdian partean emango diote hasiera, Lekaxoka bertso eskolako kalejirarekin, eta, ondoren, bazkaltzeko elkartuko dira Durana kalean. Bazkalostea bingo mu-

sikatuarekin girotuko dute, eta iluntzean Zuttik elektrotxaranga dantzan jarriko ditu herritarrak. Gaueko ekitaldiei ekingo diete Albina Stardust eta Divina Comediaren ikuskizunarekin eta bukaera eman Gautegun taldearen erromeriarekin.

Bazkarirako txartelak datoren astelehena arte izango dituzte salgai Loramendiren bulegoan: helduena 22 eurotan –beganoa ere badago eta zeliakoentzat moldatuta– eta haurrena 12 eurotan.

Erakusketa maiatz osoan

Bestetik, 30 urteotako ibilbidea jasotzen duen erakusketa zabalik dago udaletxe zaharreko atarian. Elkarteen sorrerako dokumentuak, argazkiak, kartelak, argitaratutako liburuak eta beste hainbat kontu bildu dituzte. Maiatz osoko egongo da ikusgai, bulegoko ordutegian.







**INPLANTOLOGIAKO
ESPEZIALISTAK 3D
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55



Atxorrotx Kultura Elkartearen Eguneko edizio bateko kontzertuan, jendetza Fernando Eskoriatza plazan. GOIENA

Elkartearen lanari balioa emateko ospakizuna

Atxorrotx Kultura Elkartearen Eguna ospatuko dute zapatuan, eta urteroko ildo beretik antolatu dute egitaraua. Musikak protagonismoa izango du, eta, besteak beste, Andoni Ollokiegi, Letagin eta Inoren Ero Ni taldeen kontzertuak izango dira

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA**
Urteroko plangintzari jarraituz antolatu dute, beste urte batez, Atxorrotx Kultura Elkartearen Eguna, zapatarako. "Ondo pasatzeko eta Atxorrotx Kultura Elkarteak urte osoan egiten duen lana aintzat hartzeko eguna izango da. Antolatzen ditugun ekitaldiak oso garrantzitsuak dira herriko kultura

agenda proposamena indartzeko, eta herria bizirik mantentzeko, kultura ekitaldiak ezinbestekoak direla azpimarratzeko eguna ere izango da bide batez", adierazi dute Atxorrotx Kultura Elkartearen kideek.

Trikitilariak poteoa girotzen
Eskoriatzako txistulariek eman- goko diote hasiera egunari, eta,

Fernando Eskoriatza plaza musikaz girotzeaz batera, Eskoriatzako Talogileen Taldeko hamabost lagun inguru arituko dira kontzejuean txistor- eta hirugihar-taloak egiten. Gainera, puzgarriak eta artisau jokoak izango dira, haurren gozamenarako, eta, horrekin batera, ziza kiloaren zozketa klasikoa ere egingo dute. "Beste edizio batez,

egitarau oparoa antolatu dugula uste dugu Atxorrotx Kultura Elkartearen kideok. Aurten, berrikuntza gisa, trikitilariekin trikipotea egongo da. Kontuan hartu behar da Manuel Muñoz kiroldegian Fagor Ederlanen asanblada orokorra egongo dela; beraz, giroa egongo dela aurreikusten dugu. Bazkaltzeko, bestalde, 140lagun inguru elkartuko gara Inkernu taberna kanpoan, eta aurten paella erraldoia izango dugu jateko".

Musika ekitaldiak ardatz

Bazkalostea girotzen Andoni Ollokiegi musikaria izango da. Gaztea irratiko kolaboratzaileak, ahotsa eta gitarra lagun dituela, euskal kantutegiko pieza esanguratsuenak eroango ditu Eskoriatzara. Iaz izandako arrakastaren ostean, aurten ere bertan izango da formatu txiki-

ko kontzertua ematen. "Musikarekin jarraituz, punta-puntako bi talderen kontzertuak izango ditugu: batetik, Andoaingo Inoren Ero Ni taldea. BAP! musika taldeko zenbait musikaririk osatzen dute taldea; Euskal Herriko musika panoraman izena handiko musikariak dira. Bestetik, Oñatiko Letagin musika taldea ere izango dugu. Azkenaldian zeresana ematen ari den rock taldea da. Musikarekin amaitzeko, Eskoriatzako DJ Pon eta Pin ere izango ditugu musika jartzen, Inkernu tabernan, eguna borobiltzeko".

LETAGIN ETA INOREN ERO NI TALDEEN KONTZERTUAK IZANGO DIRA INKERNU TABERNA KANPOAN

Esku-hartzea, hezetasan arazoak areagotu aurretik

Jose Arana Patronatuaren eskumeneko Eguneko Zentro Psikogeriatrikoan asteon amaituko dituzte lanak

I.B. **ESKORIATZA**

Hezetasan arazoak konpontzeko lanak duela hamabost egun inguru hasi zituzten Eskoriatzako Eguneko Zentro Psikogeriatrikoan, eta egunotan amaituko dituzte. Hauxe adierazi du Aitor

Zubizarretak, Jose Arana Patronatuaren lehendakariak: "Aspaldi egin nahi genituen lanak, eta, egin beharrekoak eginda, berehala bukatuko ditugu".

Jose Arana egoitzaren alboko eraikinean dago zentroa, nahiz

eta pasabide batekin bi eraikinak lotzen diren. Hain zuzen, eraikin batean ari dira hezetasan arazoak konpontzeko lanetan. Jose Arana Patronatuaren inbertsioa 25.000-30.000 euro ingurukoa dela azaldu du Zubizarretak: "Arazoa ez da larria, baina egin beharrekoa da. Horrekin batera, eraikineko goiko terraza konpontzeko aprobeztatuko dugu; eguzki-plakak jarri nahi ditugu han. Horrenbestez, saneamendu lanak egingo ditugu".



Eguneko Zentro Psikogeriatrikoaren obretan, asteon. IMANOL BELOKI

Hastear da errealitateak ezagutzeko prozesua

Eskoriatzako berdintasun diagnostikoa osatzeko prozesua martxan jarri du Udalak, Emun aholkularitzaren laguntzarekin. Hain zuzen ere, maiatzaren 16an hasita, berdintasun diagnostikoa osatzeko talde-elkarrizketak egiten hasiko dira

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Eskoriatzako Udalak berdintasun diagnostikoa osatzeko prozesua martxan jarri du, Emun aholkularitzaren laguntzarekin. Diagnostiko horren helburua herriko errealitateak ezagutu eta genero-berdintasuna lortzeko eman beharreko pausoak identifikatzen laguntzea da.

"Azken urteotan mugimendu feminista indarra hartzen joan da herrian, baina Eskoriatzako Udaletik ez da ezer egin berdintasun ikuspegitik. Beraz, mugimendu feministarekin elkarlanean koordinatuta berdintasun plana egin nahi dugunez, garrantzitsua iruditzen zaigu etorkizuneko Eskoriatza irudikatzea. Horretarako, hausnarketa prozesua hasiko dugu orain, eta lehen fasea amaitzeko maiatz amaieran galdetegi bat zabalduko dugu online eta paperean herritarren artean; erronkak definitzea etorriko da gero", adierazi du Irati Iglesiasek, Es-



Zenbait herritar manifestazioan. I.B.

koriatzako Udaleko Berdintasun Saileko zinegotziak.

Talde-bilerak kultura etxean Informazioa biltzeko, Emun aholkularitzako teknikariek Eskoriatzako herritar kolekti-

boekin talde-elkarrizketak egingo dituzte, gaur egun genero-berdintasunari dagokionez herrian dauden arazoak, beharrak, kezak... zeintzuk diren gertutik ezagutu eta aurrera begirako erronkak identifikatzeko. Talde elkarrizketa horiek egun eta ordu hauetan egingo dira, honako kolektibo hauekin: maiatzaren 16an, eguna, migratutako emakumeak (10:30ean), hezkuntza formaleko eta ez-formaleko eragileak (15:00etan) eta Mugimendu feminista (18:00etan); hilaren 21ean, martitzena, adineko emakumeak edota emakume pentsiodunak (10:30ean) eta Herrigintzako emakumeak (18:00etan); amaitzeko, maiatzaren 22an, eguaztena, herrigintzako gizonak (18:00etan). Talde-elkarrizketak kultura etxeko lehenengo solairuan egingo dira, eta Udalak interesa duten herritar guztiak parte hartzera gonbidatu nahi ditu, "ahalik eta diagnosi osatuena egiteko".

Bailarara egokitutako egoera eta aukera energetikoak

'Debagoieneko egoera eta aukera energetikoak' erakusketa irekiko dute martitzenean Ibarraundin

I.B. **ESKORIATZA**

Iraunkortasunari hamaika begirada izeneko jardunaldia antolatu du Debagoiena 2030 ekimenak, eta, horren baitan, *Klima larrialdia eta energia Debagoienean* izango da aurtengo gaia. Jardunaldi nagusia maiatzaren 24an izango da, Arrasateko Kulturateko klaustroan. Egitarauaren barruan, *Debagoieneko egoera eta aukera energetikoak* izenburupean herriz herri ibiliko den erakusketa bat ere antolatu dute; haren ibilbidea Eskoriatzan hasiko da.

Ibarraundi museoan hilaren 14tik 16ra bitartean egongo da ikusgai, eta ordutegia hau izango da: 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Hilaren 17an, berriz, larrialdia eta trantsizio energetikoa hizpide dituen erakusketa izango da ikusgai, Santa Marinako azokan. Horrekin batera, energia fakturen inguruko hitzordua izango da Goienarren eskutik, museoan, hilaren 15ean-17:00etatik 19:00etara- eta hilaren 17an-11:00etatik 13:00etara-. Fakturak eramatea ezinbestekoa izango da.

OHARRAK

Hitzaldia

Digitalizazioa eta iruzurren prebentzioa izeneko hitzaldia izango da hilaren 14an, 18:00etan, kultura etxean. Gazteleraz izango da saioa.

Unibertsitateko jaiak

Txomin Txapel Eguna ospatuko dute Eskoriatzako fakultateko ikasleek. Huhezin hasi eta herrigunera irekiko dute festa egunean zehar.

Elkartasun batailoia

San Pedro jaietako helduen danborradan, Elkartasun batailoian parte hartzeko izena eman beharko dute interesdunek, Inkernu eta Aldatz tabernetan, maiatzaren 27a baino lehen.



Gatzagako Gatz Museo aurreko panel informatiboa. IMANOL BELOKI

Leintz Gatzagako Gatz Eguna maiatzaren 19an ospatuko dute

Programaren berri hilaren 14an egingo duten prentsaurrekoan emango dute antolatzaileek

Imanol Beloki Unamuno **GATZAGA**

Urteen poderioz, Leintz Gatzagako Gatz Eguna errotzen joan da, eta aurten zortzigarren edizioa izango da. Beste urte batez, Leintz Gatzagako produktu izarri, gatzari, garrantzia emateko asmoz antolatuko dute Gatz Eguna. Urtean zehar egiten diren hitzorduen artean azpimarratzekoena da honako hau Gatzagan, eta, Deba Garaia Landa Garapenaren, Eusko Jaurlari-tzaren eta Debagoieneko Mankomunitatearen Turismo Sailaren babesean, egun osoko egitaraua antolatu dute.

Prentsaurrekoa hilaren 14an

Hilaren 19an ospatuko da Gatz Eguna, eta, urteroko ildotik jarraituz, gatzaren eta produktu ekologikoen azoka izango da, mendi ibilaldi gidatua, gatz xaboiak egiteko tailerra, Gurel Guraso Elkarteko eskutik antolatutako hitzordua, Gatz Museoko bisita gidatuak... Hala ere, egunean izango diren ekin-tza guztien zerrenda eta jaiak izango dituen helburuak zein bestelakoak hilaren 14an aurkeztuko dituzte, arratsaldeko seieta Gatz Museoan egingo duten prentsaurrekoan.



AITZIBER ARANBURUZABALA

Kontzertuekin borobilduta

Gatza City Krew gazte taldeko kideek antolatuta eta Udalak babestuta, Makilakorta Fest jaialdia ospatu dute Leintz Gatzagan. Laugarrenez egin dute aurten, eta, egun osoko egitaraua prestatuta, besteak beste, eskupilota txapelketa, herri bazkaria eta Bermeoko Etxekalte eta Aramaio The Clayton musika taldeen kontzertuak izan dira.

"Nork beretik uler ditzala abestien hitzak"

IRATI GARDOKI KARENA MUSIKA TALDEKO KIDEA

Kanta batzuk grabatzeko asmoz hasi ziren estudioan lanean Karena taldeko kideak; azkenean, 'Loak irauteko' diskoa ondu dute. Zaintzaz aritu dira, batik bat, abestietan

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Karena musika taldeak *Loak irauteko* diskoa aurkeztuko du etzi, hilak 12, Torresoroa aretoan, 19:00etan. Irati Jauregi hernaniarrak ez ezik, Andoni Zabalo eta Irati Gardoki (Antzuola, 2000) herrikideek sortu zuten taldea, eta, orain, bi kide berri gehitu zaizkie: Beñat Kamio eta Xabi Elizegi. Gardokiren hitzetan, "topera" ibili dira azken asteetan entseatzen, eta, "urduri" egon arren, aurreratu du kontzertu "goxoa" emango dutela.

Gauean duzue diskoaren aurkezpena; zer aurkeztuko duzue?

Diskoan jaso ditugun abesti guztiak joko ditugu, eta baita bertsiok ere, jendeak ezagunagoak dituenak; izan ere, ez dut uste oraindik gure kantuak eza-zatuko dituztenik.

Zazpi kantak osatzen dute lana.

Bai, hasierako asmoa diskoa ateratzea ez bazen ere. Estudio-ra sartu ginen, zelanbait, saltsan ibiltzeko, pare bat abesti grabatzeko, baina, azkenean, egin eta egin hasi ginen eta Ikerri [Lauroba] proposatu genion diskoa ateratzea: zortzi abesti grabatu ditugu, baina bat ez dugu sartu, horretarako unea ez zela uste baikenuen. Hala ere, txukun gelditu da lana eta badu esanahi bat guretzako.

Zer jaso nahi izan duzue lan berri horretan?

Diskoa bukatu ondoren hasi gara kantak aztertzen, eta ohar-tu gara beti izan dugula presente zaintzaren alorra. *Karena-k plazenta* esan nahi du, eta hor da gure leloa: elkar aske lotzen garela, umea eta ama lotzen diren eran; bada, metafora hori darabilkigu gure artean. Are gehiago, hortik dator *Loak irauteko* diskoaren izena ere: azken batean, umea sabelean lotan dago, baina bizirik, eta hala egon behar du loak irauten. Hala, nahi dugu bakoitzak bere



Karena taldea; ezkerretik hasita, bigarrena, Gardoki; bosgarrena, Zabalo. KARENA

"2022 AMAIERAN GRABATU GENUEN LEHEN ABESTIA; URTEBETE PASA EGON GARA DISKOAREKIN"

zentzua ematea abestien hitzei, nork beretik uler ditzan.

Nolakoa izan da horretarako sorkuntza prozesua?

Batez ere, esperientzia berri bat izan da. Inoiz egon gabe geunden horrelako estudio batean, baina, aldi berean, oso gertukoa izan da; ez nuen horrelakorik espero. Ikerrek asko lagundu digu, asko ikasi dugu harengandik, eta erraza izan da grabaketa. Beste talde batzuek egin ohi duten eran, ordea, gure grabaketa ez da jarraitua izan: lehenengo abestia 2022aren amaieran grabatu genuen, eta, beraz, urtebete pasa egon gara grabatzen.

Nola sortzen dituzte abestiak?

Lehenengo, letrak egin izan ditugu Iratik eta biok; gehienak biok elkarrekin egindakoak dira, eta kuriozoena da Whatsapp darabilgula horretarako, etxean egiten ditugun estrofak elkarri

bidaltzen aritzen baikara modu horretan.

Kolaborazioak ere izan dituzue.

Ikerri [Lauroba] proposatu genion abesti bat, eta baiezkoa jaso genuen. *Debekuaren mugak* bideoklipa atera genuenean ere pentsatu genuen beste emakume baten ahotsa sartzea ondo zela: Leire Etxezarreta arrasatearrari proposatu genion. Kattalinea izan da, berriz, azken kolaborazioa: Hernaniko (Gipuzkoa) neskatala bat da, Iratik ezagutzen zuena, eta pentsatu genuen guri ere ilusioa egingo ligukeela horrelako proiektu batean parte hartzeak adin eta gogo hori izango bagenu.

Nolako harrera izan du lanak?

Batik bat, bideoklipak izan du harrera handien, baina gainontzeko abestiek ere harrera txukuna izan dute; jendeak esan dit asko gustatu zaiola. Guretako egin dugun lan bat da eta gustura gelditu gara.

Ba al dituzte kontzertu gehiago?

Oraingoz, ez daukagu besterik. Nahiko genuke Hernanin zerbait egin, hangoak direlako taldeki-deetako hiru, baina poliki-poliki joango gara. Ditugunak, behintzat, gogoz hartuko ditugu.



MEAKA-IRIMO HERRI PLATAFORMA

Jaurlaritzaren atarian protesta

Meaka-Irimo herri plataformak antolatuta, dozenaka herritar batu ziren martitzenean Eusko Jaurlaritzaren atarian, elkarretaratzea egin baitzuten. "Zentral eolikoaren gainean erabakiak hartzeko ardura" dutenei kezkatuta daudela adieraztea izan da helburuetako bat: "Nahiz eta haiek isilik egon, gu kontziente gara Irimo mendiaren etorkizuna jokoan dagoela".

Beheko auzoko jaiak ospatuko dituzte bihar kanpo beltzean

Umeendako ekintzak, bazkaria eta kontzertuak antolatu dituzte; baita mus txapelketa ere

A.R.K. ANTZUOLA

Beheko auzoko jaiak ospatuko dituzte bihar goizean hasi eta gauera arte kanpo beltzean, egun osoko egitaraua antolatu baitute. 12:00etan hasiko dituzte ekintzak, umeendako zumba saioarekin, eta buruhandiak eta globo gerra izango dituzte ostean, 13:30ean; 14:30ean, berriz, bazkaria egingo dute. Bazkalostea girotzeko, DJ Tigre arituko da musika jartzen, eta Kike Biguriren bakarriketa saioa izango da ondoren; baita mus txapelketa ere, Mox tabernan.

Kontzertuak

Arratsaldeko seietan hasita, kontzertuak izango dira, gauera arte: Hiri Galduak, Sin Perdon, Maunaren Loa eta Patxi Luque arituko dira oholtza gainean, hurrenez hurren. Ondoren, DJ Tigre arduratuko da berrito ere giroa alaitzeaz, goizaldeko ordu biak arte.

Dantza garaikideko saioa eta ikuskizuna izango dira bihar

Gipuzkoako koreografo emakumeen eskutik dantza garaikidea zabaltzeko asmoz, sormen tailerra egingo dute bihar Torresoroan: Mari Zaunka konpainiako kide Nerea Gurrutxagaren eta Oihana Vesgaren eskutik, 11:00etatik 13:00etara. 19:00etan, berriz, *Erreka ondoan, bi gezur* ikuskizuna izango da. Sarrerak Bibe plataforman daude salgai.

OHARRAK

Tomate banaketa

Hazien liburutegia egitasmoa dela-eta, bertako tomate barietateen landare banaketa bihar, 11:00etatik 13:00etara, Herriko Plazan, Marc Badalekin.

Kontzertuak

Antzuolako Gazte Asanbladak antolatuta, Malko eta Addar musika taldeen kontzertuak izango dira bihar, 22:00etan, gatzetxean.

Odol ematea

Maiatzaren 14an izango da, martitzena, Olarango beheko aretoan, 16:45etik 20:45era. Hitzordua goizean eskatu behar da: 943-00 78 85.

PENTEKOSTEAK 2024



Festarako gogoz!

Pentekosteetako kartelaren egilea · Txosnak Bideberrin eta San Martin plazan · Zezen festak egunero · Gaztetxoentzako gozagarriak

Baltsa jaitsiera berriro · Beste erraldoi berri bi · Film laburren lehiaketa · Askotariko musika jaietan

IMANOL SORIANO

RPS: 50/19

Λ G I R R E
H O R T Z K L I N I K A

Gora Bergarako jaiak!

Ibargarai 32, behea BERGARA | agirrehortzklinika@gmail.com | Tel.: 943 76 00 23 | Mug.: 665 72 36 28



JAIETAKO EGITARAUA

EGUBAKOITZA 17

20:00 Jaiei hasiera emateko TXUPINAZOA eta BITORIANATXOREN JAITSIERA San Martin plazan.

Segidan BERGARAKO MUSIKA BANDAREN KALEJIRA hiriguneko kaleetan, San Martin plazatik irtenda.

20:30 PARRILLADA auzolanean Seminarioko karpan, Oxirondo Aisialdi Guneko gurasoek antolatuta, haur eta gurasoentzat.

Ondoren, Bihurriak Gara ERROMERIA DJ Kaktusekin.

23:00 KONTZERTUA San Martin plazan, Janus Lester taldearekin.

ZAPATUA 18

10:00 DIANA. Bolutik, Bergarako Txistulari Banda. Labegarietatik, Bergarako trikitilariak. Oxirondotik, Elgoibarko dultzaineroak.

Ondoren. herriko plazan elkartuko dira guztiak eta Bergarako Erraldoien Taldeko umeen erraldoiekin batera Mizpirualdera egingo dute bisita.

11:00 Herriko elkarten arteko BAKAILAO LEHIAKETA San Martin plazan. Honako elkarte hauek hartuko dute parte: Pertxa, Aizepe, Basalgo, Elormendi, Gure Ametsa, Madura, Sagarpe, San Joxepe, San Juan eta Umore Ona.

11:30 ERRALDOIEN GUNEA San Martin plazan: erraldioen erakusketa, gomazko erraldioen erakusketa, palomita-makina, erraldioen liburuxka umeek margotzeko, umeentzat puzgarrria... Antolatzaila: Bergarako Erraldioen Taldea.

11:30 Pentekosteetara ONGIETORRIA egiteko ekitaldia iazko Pentekosteetatik hona mundura etorri diren bergarar txikitxoek, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Ondoren, ARGAZKI BATERATUA ATERATZEA udaletxearen atzealdean, San Pedro kalean.

12:00 ERRALDOI TALDEEN KALEJIRA Espolotik eta Matxiategitik. Torrejon de Ardoz, Markina eta Oñatiko erraldoi taldeak.

13:00 ERRALDOI BERRIEN AURKEZPENA San Martin plazan.

13:30 Bakailao lehiaketako SARI BANAKETA San Martin plazan.



Bitorianatxoren jaitsierarekin hasiko dira ofizialki Pentekoste jaiak. IMANOL SORIANO

16:30 KALEKO DANTZA TAILERRA. 8-12 urte bitarteko haurrentzat Munibe plazan.

18:15 Erraldoi, buruhandi eta kilikien KALEJIRA. Torrejon de Ardoz, Markina, Oñati eta Bermeoko Kieb taldeak, Bergarako Erraldoi Taldearekin batera. Ibilbidea: Munibe plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili, Ibargarai, Irizar, Kruz Gallastegi, Bideberri, Fraiskozuri, Herrilagunak, Domingo Irala, Barrenkalea, San Martin plaza.

18:30 ERREKORTADORE TXAPELKETA zezen-plazan.



Bakailao lehiaketa izango da zapatu goizean. GOIENA

23:00 KONTZERTUA Su Ta Gar taldearekin San Martin plazan.

DOMEKA 19

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan.

10:00-13:00 Gesaltza FANFARRE TXARANGArekin animazioa herriko kaleetan.

11:00 Haur eta gazteen Simon Arrieta PLASTIKA SARIKETA San Martin plazan. Laguntzaila: Beart elkarte.

12:30 Bergarako Musika Bandaren KONTZERTUA Espolotan. Euria bada, Boluko pilotalekuan.

Egitaraua:

Música y vinos. Manuel Morales Martinez.

La forza del destino. Giuseppe Verdi. *Amaya operako Ezpata-dantza.* Jesus Guridi.

Three inventions. Pi Scheffer. *Encanto.* Robert W. Smith. *Isn't she lovely.* Stevie Wonder.

Zuzendaria: Enrike Txurruka.

13:00 Haur eta gazteen Simon Arrieta plastika lehiaketako SARI BANAKETA San Martin plazan.

13:30-15:30 Nafarroako kanta taldearen EMANALDI IBILTARIA, Irala kalean hasita.

16:30 8-12 urte bitarteko haurrei zuzendutako GINKANA Munibe plazan.

18:00 MOKOLOBLOK kale-blok topaketa.

18:30 EUSKAL HERRIKO ERREKORTARIEN IKUSKIZUNA zezen-plazan.

21:30 Haize Arroza taldearen KONTZERTUA San Martin plazan.

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com



Gora Bergarako jaiak!



ASTELEHENA 20**KUADRILLEN EGUNA**

11:30 KUADRILLEN ARTEKO BALTSA JAITSIERA, Elutxa Txarangak animatuta.

12:30 KUADRILLEN ARTEKO XIV. OLINPIADAK zezen-plazan, Elutxa Txarangak animatuta.

12:30 DANTZALDIA Joselu Anaiak taldearekin Espoioian.

14:30 HERRI BAZKARIA San Martin plazan. Elutxa txarangaren animazioarekin.

Ostean, bazkalosteko jolasak Xaxauren eskutik.

14:30 GAZTE BAZKARIA. Gaztelekuko frontoian, 13 urtetik gorakoendako.

18:30 BERGARA HIRIA PILOTA TXAPELKETAREN FINALAK. Neskak eta mutilak, udal pilotalekuan. Antolatzailea: BKE pilota saila.

18:30 GAZTETXOENTZAKO BIGANTXAK zezen-plazan.

23:00 DANTZALDIA Joselu Anaiak taldearekin Espoioian.

MARTITZENA 21**UMEEN ETA HELDUEN EGUNA**

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan.

11:00-14:00 JOLAS-PARKEA haurrentzako eta gazteentzako Ipintza II-ko patioan.

12:00 HERRI KIROL ERAKUSTALDIA San Martin plazan. Honako hauek ariko dira: Aizkolariak, Hodei Ezpeleta, Alex Txikon, Jesus Mari Mujika eta Bihurri; Iparraldeko jokoak, Aretxabaleta; harri-jasotzaileak, Paulo Azpiazu eta Ainitze Zumeta.

Kontseilu Sozialistaren egitaraua San Martin plazan**EGUBAKOITZA 17**

- **20:00** KONTZERTUA: Sotoalde taldea.
- **00:00** KONTZERTUAK: Kontralde, Berandu Baino Lehen eta Babes Gabe.
- **02:00** DJak.

ZAPATUA 18

- **00:30** ERROMERIA: Hamaratz taldea.
- **02:00** DJak.

DOMEKA 19

- **20:00** BAKARRIZKETAK.

ASTELEHENA 20

- **02:00** DJak.

MARTITZENA 21

- **17:00** UMEENDAKO JOLASAK.

13:00 Bankako Menditarrak taldearen KANTU-EMANALDIA Domingo Irala kalean.

14:30 BAZKARIA San Xosepe elkartearen, eta, ondoren, kantu saioa Menditarrak taldearekin. Horren ondoren, DANTZA SAIOA San Xosepe elkartearen.

16:30 Bolo, toka eta igel jokoen TXAPELKETA San Xoxepen. Antolatzailea: San Xosepe elkartearen.

17:00-20:00 HAURRENTZAKO JOLAS-PARKEA Ipintza II-ko patioan.

17:00 PROFESIONALEN PILOTA PARTIDUAK udal pilotalekuan. Bi partidu jokatuko dira: lehenengoan, Exposito eta Gabirondo De La Fuente eta Erostarberen aurka ariko dira; bigarreanean, berriz, Etxeberriak eta Rezustak Zabaleta eta oraindik zehazteke dagoen aurrelaria izango dituzte aurrez aurre.

17:30 Potx eta Lotx taldearen EMANALDIA txosnagunean.

18:30 ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA gaztetxoentzat zezen-plazan.

20:00-22:00 Holi Festa DJ Jonkass-ekin San Martin plazan.

22:00 BITORIANATXOREN IGOERA San Martin plazan.



Skapaie egubakoitzean izango da; argazkian, iaz Antzuolan. GOIENA

Xaxauren egitaraua txosnagunean**EGUENA 16**

- **16:00** Txosnen MUNTAKETA.
- **19:00** *Are you ready? Jaixak datoz* KONTZERTUAK Egino Mallea plazan.

EGUBAKOITZA 17

- **15:00** IKASLE BAZKAIXA, Ikama taldeak antolatuta.
- **18:30** Skapaie ELEKTROTXARANGA.
- **20:00-23:00** Janari txosna.
- **20:30** Txosnaren irekiera.
- **22:30** KONTZERTUAK txosnagunean: Golden Blend, Unidad Alavesa eta Gora Etorri.
- Ostean, TEKNO GAUA txosnagunean: Ots, Wey, Zumi eta Anomalia bZb munabe.

ZAPATUA 18

- **07:30** Xaukena ELEKTROTXARANGA eta gaupasero-argazkia.
- **15:00** PRESOEN ETA IHESLARIEN aldeko herri bazkaria. Gure Arterak antolatuta.
- **16:00** THE SAKAMANTEKAS taldearen emanaldia.
- **19:00** GUATEKE MORE IBILTARIA. Martxanerek antolatuta.

- **20:00-23:00** Janari txosna.
- **22:30** KONTZERTUAK txosnagunean: Zilibito Records, Alargun Beltzak eta Lemak.
- Ostean, DJ KARAPAIXO.

DOMEKA 19**MUSIKA ESKOLA EGUNA**

- **15:00** TXOMINGERO bazkari musikatua. Herriko musikariek girotuta.
- **18:30** FANFARRIA.
- **19:00** Kontzertua: XABI SOLANO MAIZA, Dz, Kristina eta Kimua Dantza Kolektiboa.
- **21:00** Herri afaria, Txapa Irratiak antolatuta.
- **22:30** Korto lehiaketa.

ASTELEHENA 20

- **11:30** Baltsa jaitsiera.
- **20:00** Trikidantz taldearekin ERROMERIA.
- **20:00-23:00** JANARI TXOSNA.
- **23:00** Kontzertuak: Sukena eta Raimundo el Kanastero.
- Ostean KARAOKEA.

MARTITZENA 21

- **17:30** Potx eta Lotx PAILAZOEN EMANALDIA.
- **21:00** DESMUNTATZEA.



Barrakak, ohikoa den moduan, Matxiategin. GOIENA

Alberto Gorosabel Mendizabal eta Andrea Gorosabel Badiola doktoreak

RPS: 10/24

943 76 56 88 • 618 95 90 17
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA

© clinicagorosabel

www.gorosabeldental.com

- Ortodontzia: tradizionala eta ikusezina. Odontopediatria. PADI (Osakidetza).
- Estetika eta hortzen zurrutzea TEKNIKA BEREZIAREKIN.
- ESKANER DIGITALA diagnostiko zehatzak egiteko. *Ondo ibili jaietan!*
- AHO eta INPLANTEEN KIRURGIA punta-puntako teknologiarekin.
- PRGF (PLASMA).
- Ezpainen estetika eta aurpegiko zimurak betetzeko tratamenduak (azido hialuronikoa).

1990. URTETIK ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DENOI!

'Aste ta jai, beti alai' dio Pentekosteetako kartelak

Mikel Aginagalde ilustratzailearen kartelak irabazi du kartel lehiaketa, beste hamahiru diseinuak atzean utzita. Jardun elkarteak antolatutako zapiaren marrazki eta lelo lehiaketa, berriz, Ur Asurmendik, Manex Balentziagak eta Erik Bretañak irabazi dute

Gontzal Belategi Zubia BERGARA
Hamalau izan dira aurtengo kartel lehiaketara aurkeztutako diseinuak. Azkenean, Mikel Aginagalde ilustratzaileak eskuratu du garaipena. Pozik dago artista bergararra: "Herriko jaietan nork bere lana ikustek ilusioa egiten du, bai kaletako karteletan ikustek, bai herritar guztiei etxera helduko zaiela jakiteak". Bizitzan behin egin beharreko zerbait dela ere adierazi du: "Oso pozik nago. Bergarako artista bezala kartel lehiaketa irabaztea bizitzan behin egin beharreko zerbait da".

Estilo fresko, sendo eta alai erabiltzen du Aginagaldek bere



Mikel Aginagalde, Bitorianatxorekin batera, kartela eskuan duela. ANDONI GOITI



Helduen lehiaketako irabazlea. JARDUN



Haurren lehiaketako irabazlea. JARDUN

lanetan. Diseinu horretan jai giroa irudikatu nahi izan du: "Lan egiterakoan erabiltzen dudan metodoa gaiaren inguruan dudan iruditeria hartzea da. Bergarako jaiak izanda, Bitorianatxo, *Felixin* eta *Guti*, erraldoiak eta jai giroa, oro har, irudikatu nahi izan ditut".

Zapi lehiaketa

Urteroko legez, Jardun elkarteak jaietako zapiarako marrazki eta lelo lehiaketa antolatu du. Antolatzaileek balorazio positiboa egin dute: "Inoiz baino parte hartze handiagoa izan da eta, guztira, 190 marrazki jaso ditugu: 172 haurrenak eta 18 helduenak".

Ur Asurmendi Garciak irabazi du haurren marrazki lehiaketa. Helduena, berriz, Manex Balentziaga Galfarsorok eta Erik Bretaña Murillok irabazi dute. Bi zapien leloa ere azken horiek proposatutakoa da: *Egin deixela eztanda euskeriak*.

Zapiak datorren astetik aurrera egongo dira eskuragarri, Jardunen bulegoan –Oxirondo plaza 2, azoka–, 3 euroren truke. Horrez gain, maiatzaren 16an 19:00etatik 21:00etara Irala kalean eta maiatzaren 17an 17:00etatik aurrera San Martin plazan salmenta-puntua jarriko dute Jarduneko kideek, herritarrek zapiak eros ditzaten.

Gora Bergarako jaiak 2024!

ERREKA

www.erreka.com

autopullmans
Araba

Ondo ibili jaietan!

Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70 - 686 47 68 52
www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com



Joan den urteko protokoloaren aurkezpena. GOIENA

Jaietan ere indarkeria matxistari aurre egiten

Maiatzaren 15ean iragarriko dituzte Jai Batzordeko kideek eraso matxistei aurre egiteko diseinatu duten protokolo eta jarraibideak. Itaia antolakundeak, berriz, gaur aurkeztuko ditu jaietarako diseinatutako protokolo eta etxeratze kolektiboak

G.B.Z. BERGARAN

Ugariak dira egunerokotasunean indarkeria matxistari aurre egiteko antolatzen diren talde eta kolektiboak. Jaiak ez dira salbuespena izango, eta hainbat antolakunde jaietan gerta litezkeen erasoei aurre egiteko prestatzen dabilta. Jai Batzordeak maiatzaren 15ean 17:00etan iragarriko ditu aurtengo jaietarako diseinatu dituzten protokolo eta jarraibideak, udal txean egingo duten agerraldi batean.

Txaleko moreak

Andrea Gonzalez Neska* Gazteak-eko kideak aurreratu duenez, txaleko moreak izango dute protagonismoa aurtengo jaietan: "Neska* gazte bezala, txosnagunean txandak antolatzea erabaki dugu, beharra duen jendeari edo erasoren bat jasan duen edonori laguntza emateko; bereziki, zapatuan". Emakume horiek hasierako laguntza emateaz arduratuko dira, eta, horren ondoren, Irizar jauregian egongo den puntu morera bideratuko dituzte erasoak jasan dutenak, hantxe

bertain behar duten arreta jaso dezaten.

Aurreko urteetan ez da eraso matxistagatiko inolako salaketarik egon, baina, Gonzalezek gogorarazten duenez, horrek ez du esan nahi erasorik izan ez zenik: "Nik dakidala, ez da egon salaketarik, baina erasoak beti izaten dira". Horrez gain, txaleko moreak Martxantereekin batera kudeatuko dituztela jakinarazi du.

Etxeratze kolektiboak

Itaia emakume antolakunde sozialistak bere protokolo propioa aurkeztuko du gaur, 18:30ean, Zubitxako Zentro Sozialistan egingo duten asanblada baten bidez. Maren Lazpiur Itaia kideak aurreratu duenez, aurreko urtean egin bezala, telefono-zenbaki bat jarriko dute herritarrentzat eskuragarri.

"Asanbladan, protokoloa aurkezteaz gainera, joan den urtean antolatu ziren etxeratze kolektiboak azalduko dira, eta, hain zuzen ere, bertaratutako kideekin etxeratze kolektibo horiek antolatzen hasiko gara", azaldu du Lazpiurrek.



ASTE
TA JAI,
BETI
ALAI
MAIATZAK 17-21



Bideberrin eta San Martin plazan txosnak

Xaxauk kudeatuko du Bideberrin jarriko duten txosnagunea, ohikoa den moduan. Udalak San Martin plazan jarri ohi duenaz Aurrera Bergara taldea arduratuko da aurten. Mugimendu Sozialistak aurreratu du plazan jarriko duela berea

Oihana Elortza Gorostiza BERGARA
Bideberrin eta San Martin plazan egongo dira aurten ere txosnak Pentekoste jaietan. Xaxauk kudeatuko du Bideberrin eta plazan jarriko duela iragarri du Mugimendu Sozialistak. Udalarrena ere plazan egongo da, betiko tokian.

Berritasunak Bideberrin

Eguenean egingo du Xaxauk Bideberrin guneko txosnagunearen muntaketa. Aurten, gainera, janaria eskainiko duen bat ere egongo da. Baina ez da aurtengo berritasun bakarra izango, eta lehen aldiek sortzen duten urduritasuna nabaritzen hasita



Etxepek joan den urtean Bideberrin txosnagunean egindako kontzertua. GOIENA

daudela aitortu du Xaxauko Andrea Gonzalezek: "Egubakoitzean, zapatuan eta astelehenean egongo da zabalik janariaren txosna. Bestalde, baltsen jaitziera berreskuratzea ere erronka izan da, baina oso harrera ona izan du eta pozik gaude. Komunei dagokienez ere egongo da berritasuna: aurten, trailerrean egoten diren komunak egongo dira Bideberrin txosnagunean. Adibidez, Oñatiko jaietan egoten diren modukoak. Orain arte ez da horrelakorik egon, eta aurten bai. Txosnagunetik Usondo parkera doan zubiaren ondoan egongo dira".

Egitarau zabala osatu du aurten ere Xaxauk, eta txosnak muntatzeko eta kentzeko momentuak ere girotu gura izan ditu. Eguenean, adibidez, kontzertuak egongo dira, muntatze lanak egin ostean, Egin Mallea plazan, eta martitzenean Potx eta Lotxek emanaldia egingo dute, desmuntatzeko lanak hasi aurretik.

Emanaldiak plazan ere

Bergarako Mugimendu Sozialistak, bestalde, plazan txosna bat

jarriko duela aurreratu du, oraindik zehaztu ez badu ere zein tokian izango den. "Aldarrikatzen duguna da herriko eragile guztiek izatea eskubidea txosna bat jartzeko. Izan ere, Bergaran ez dago berme erreal bat eragile guztiek aktiboki eta modu jarraituan txosna bat kudeatzea ahalbidetuko duena. Alde horretatik, irtenbide bat planteatu diogu Udalari, baina pasibotasun handia nabaritu dugu", zioen Eider Elorzak. "Udalaren jarrera hori salatu" nahi dutela gaineratu du eta plazan txosna bat muntatuko dutela adierazi, eszenatoki bat ondoan duela. Egubakoitzetik martitzenera egongo dira emanaldiak han.

Udalak jarri ohi duen txosna betiko tokian, plazan, egongo da aurten ere. Zozketa eginda, Aurrera Bergara taldeak kudeatuko du aurtengo jaietan txosna hori.

Bestalde, erasoen aurkako protokoloa indarrean egongo da aurten txosnaguneetan, eta erasoak salatzen telefono-zenbaki bat jartzekoak dira. Datorren eguaztenean emango dute horren guztiaren berri.



MiSaunier Duval Connect
Une oro zure galdara zaintzen

Mantentze Zerbitzu Konektatu berrizaleena:

- Etengabeko monitorizazioa
- Gorabeherak eta matxurak detektatzeko sistema
- Gorabeheren urrutiko konponketa

Betiko mantentze-lanen onenarekin eta jatorrizko pleza guztiak barne, zure galdarak 15 urte bete arte.

943 76 06 61
conectividad.saunierduval.es



Saunier Duval
Zerbitzu Tekniko Ofiziala



Lagun Garajea

Santalaitz, 3
20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Ondo ibili jaietan!



Joan den urteko parrilladan ateratako argazkia. GOIENA

Herri bazkaririk ez da faltako aurten ere

Haurrendako eta gurasoendako, gaztetxoendako zein helduagoendako antolatu dituzte aurten ere, baina ez dira egingo diren bakarrak: erretiratuek, ikasleek eta 'txomingeroek' ere badute asmoa egiteko. Afaltzeko plana ere egin ahal izango da

Oihana Elortza Gorostiza BERGARA Herri bazkaririk ez da falta aurten Pentekoste jaietan. Haur eta gurasoendako, nerabeendako zein helduagoendako antolatu dituzte. Aurreko urteetan izandako arrakastarekin, pentsatzekoa da aurten ere herritar askok honezkero bazkariren bateko txartelak erosita dituela, azkar agortzen baitira.

Parrillada egubakoitzean

Bitorianatxoren jaitsieraren segidan eskainiko dute aurten ere guraso eta haurrendako prestatutako parrillada. Seminarioko karparen azpian jarriko dituzte mahaiak eta aulkiak, eta han izango da, ohikoa den moduan. Urteroko *parrilleroak* dagoeneko hasita daude aurten goa nola egin pentsatzen. "Badugu esperientzia, eta hori alde dugu. Edozelan ere, baita neke apur bat ere. Talde bera ari gara parrilladaz arduratzen, eta eskertuko genuke erreleboa edo laguntzaile berriak gerturatzea. Gonbidapena zabalik dago. Aurten ere, dena dela, hantxe izango gara parrillak berotu eta hirugiharra, solomoa eta txori-

zoa prestatzen", dio sukaldarietako batek, Alain Vivasek. Bihurriak Gara taldeak joko du ondoren, eta DJ Kaktus-ek, berriz, haren segidan.

Astelehenekoak ezin falta

Kuadrillen eguneko herri bazkariak ere, astelehenekoak, eskulako arrakasta izaten du, eta egun gutxiren buruan agortu ohi dira txartelak. Aurten hiru menu eskainiko dituzte: orokorra, beganoa eta zeliakoa. Urtero moduan, plazan izango da. Eluxka txarangak girotuko du eta bazkalostean jolasak egingo dituzte Xaxauren eskutik. Astelehenean bertan, bestalde, 13-15 urte bitarteko gaztetxoek euren bazkari propioa egingo dute, gaztelekuan. Musika eta bingoa ere ez dira faltako.

Hiru herri bazkari horiez gainera, baina, izango dira beste-lakoak. San Joxepek, esate baterako, egingo du berea martitzenean. Ikasleena ere antolatu dago egubakoitzerako eta *txomingeroena*, aldiz, domekarako. Txapa Irratiak ere antolatuko du urteroko afari herrikoia, domeka iluntzerako.

Bergara ●
metagra
 México ● Group

Jai zorientsuak bergarar guztioi!

"Plaza handiagoa behar da, baina ez da sartzen"

Iaz 500 bat lagun gelditu ziren kanpoan, baina Seminarioko patioan ez da zezen-plaza handiagorik sartzen. Iñigo Almorzak gomendatu du sarrerak aurrez erosteko. Eguaztenetik egubakoitzera egongo dira salgai leihatilan, arratsaldez.

Ohiko ikuskizun sorta izango da Bergarako zezen-plazan Pentekoste jaietan. "Oso ondo funtzionatzen duen eskaintza da, eta ez dugu aldaketarik egingo", esan du Bergarako Zezenak ganadutegiko arduradun Iñigo Almorzak. Zapatu arratsaldeko errektariaren txapelketa izango da lehen ikuskizuna. "Hamabi errektari arituko dira; tartean, hiru debagoiendar: Anartz Almorza eta Unai Arana *Xurra* bergararrak eta Ander Martinez *Txino* aretxabaletarra.

Domeka arratsaldean Euskal Herriko errektariaren ikuskizuna izango da: "Harrera oso ona izaten du Bergaran, eta



Errektariaren txapelketa, iaz. AITOR AGIRIANO

ohiko formatuan egingo dugu: alde batetik, alde serioa; eta bestetik, komikoagoa".

Astelehen eguerdian izango da ekitaldi *ganberroena*: kuadrillen arteko olinpiadak: "Sekulako indarra du. Iaz hogeitalde baino gehiago apuntatu ziren. Aurten ere uztaien joko egingo dugu eta zezenek erabakiko dute ze sei kuadrillak jokatuko dituzten olinpiadak".

Bigantxak 09:00etan

Domeka eta martitzen goizetan bigantxak izango dira. Gaupasan dauden unea da eta nor bere onena ematen saiatzen da. "Eskatu genuen 08:00etara aurreratzea. Kartelak ere horrela atera ditugu, baina Udalak ez digu aldaketa onartu eta jendeak jakin behar du 09:00etan izango direla", esan du Almorzak.

Gaztetxoentzako bigantxak

Astelehen eta martitzen arratsaldeetan gaztetxoentzako bigantxak ere izango dira zezen-plazan. Martitzenean, gainera, errektari eskola ibiltariaren saioa izango da. "16 urtetik beherakoak gezurretako zezenekin

ibiliko dira. 16 urtetik gorakoek izango dute aukera benetako zezenekin ibiltzeko", esan du.

1.200 lagunentzako zezen-plaza

Zezen-plaza handiagoa ekarri nahiko lukete Bergarako Zezenak ganadutegiko kideek: "Ikuskizun guztietarako betetzen da eta jende asko gelditzen da kanpoan. Iaz hustu egin behar izan genuen zezen-plaza kuadrillen olinpiadetarako; jende gehiegi zegoen. Errektariaren txapelketaren egunean, berriz, 300 bat lagun gelditu ziren kanpoan, eta domekako errektariaren ikuskizunerako beste 200 gelditu ziren sarrerarik gabe. Jaien osteko balorazioa izan zen zezen-plaza handiagoa ekarri behar dela Bergarara, baina ez da Seminarioko patioan sartzen. Arrasaten jartzen duguna handiagoa da, 1.500 plaza ditu. Bergarako 1.200 eserlekukoa da".

Hain zuzen ere, sarrerak aurretik hartzeko gomendatu du. "Badira pare bat urte salmenta aurreratzen dugula. Aurten eguazten, eguen eta egubakoitz arratsaldeetan salgai izango dira leihatilan".

BERGARAKO MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

**Musikarekin, dantzarekin
ondo ondo pasa jaixetan!**






1983-1984 2023-2024

40 urte

Herritik Herriarentzat



- AHOLKULARITZA FISKALA
- AHOLKULARITZA LABORALA
- KONTABILITATEAK
- ERRENTA AITORPENAK

- USUFUKTU DOHAINTZAK
- HAINBAT ZERBITZU
- GESTORETZA

Gora Bergarako jaiak!

Ibargarai 18, behea - BERGARA • Tel.: 943 76 12 28
Faxa: 943 76 38 36 • lauki@asesorialauki.com



Jolasean iazko jolas-parkeko jokoetako batean. GOIENA

Gaztetxoek ere egunero izango dute zer gozatu

Hainbat eragilerekin elkarlanean, eskaintza zabalagoa prestatu du aurten Jai Batzordeak; batez ere, 8 eta 12 urte arteko gazteendako. Parrillada, kaleko dantza tailerra, plastika sariketa, ginkana, pailazoak eta jolas-parkea nabarmentzen dira

Aurreko urteetatik identifikatutako hutsune bati erantzunez indartu dira aurten gaztetxoei zuzendutako ekintzak. Pentekoste jaiei hasiera eman bezain pronto izango dute parrillada gaztetxoek. Oxirondo Aisialdi Guneko gurasoek antolatuta, Seminarioko karpan elkartuko dira festen hasiera ospatzeko. Zapatu arratsaldean, berriz, kaleko dantza tailerra izango dute 8 eta 12 urte arteko neska-mutikoek Munibe plazan. Eta domeka sormena lantzeko eguna izango da; izan ere, Beart elkartek lagunduta, 11:00etan abiatuko da Simon Arrieta Plastika Sariketa, San Martin plazan. Sari banaketa 13:00etan izango da.

Gaztetxoei begirako nobedadeen artean da aurten Jardun elkartek domeka arratsaldean egingo duen ginkana. LH-3 eta DBH-4 arteko gazteei zuzenduta, banako, binako eta hiruko taldeak osatu behar dituzte. Astelehena da izena emateko azken eguna: gaztejardun@topagunea.eus.

Martitzenean, berriz, jolas-parkea egongo da goizez zein arratsaldez Ipintzako jolastokian. Urtero moduan, askotariko jo-

lasak egongo dira eta nork bere gustukoenetan trebatzeko aukera izango du.

Ezin ahaztu, azkenik, Potx eta Lotx pailazo oñatiarrek martitzen arratsaldean txosnagunean egitekoa duten emanaldia.

Barraken gunea

Urtero moduan, mugimenduzko hamar bat feria, beste hainbeste etxola eta zenbait elikagai establezimendu egongo dira aurten barraken gunean. Helduendako zein umeendako atrakzioen prezioa 2,50 euro izango da bidaia bakoitzeko. Sei bidaia-ko bonuak 10 eurotan salduko dira. Prezioak merkeagoak izango dira -1,50 euro- Pazko-asteleheneko goizean zein aste horretako eguaztenean, egun osoz.

Behar bereziak dituzten umeek ere feriaz goza dezaten, jaietako domekan eta astelehenean ez da musika edo sirena zaratatsurik jarriko feria-esparru osoan 17:00etatik 19:00etara. Gautena elkartarekin koordinatutako ekintza da. Bestalde, ferietako langileek lehenetsuna eman beharko diete ilaran dauden eta premia bereziak dituzten umei.

TELAETXE

Fabrikako prezioak

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA •
Tel.: 943 76 39 40 / 41

Astelehenetik ostiralera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara zabalik

Larunbatetan
10:00etatik 13:00etara

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain

ALFONBRAK

Ondo ibili jaietan!

Txikon eta 'Azpi' herri kirolen erakustaldian

Hilaren 21ean herri kirolen erakustaldia egingo dute San Martin plazan. Harri-jasotzaileen artean Paulo Azpiazu entrenatzaile bergarra izango da eta aizkolarien artean Alex Txikon mendizalea; Iparraldeko jokoak ere egingo dituzte

Xabier Urtelai BERGARA

Hilaren 21ean, martitzena, herri kirolen erakustaldia egingo dute San Martin plazan, 12:00etan, eta bertan zenbait aurpegi ezagun izango dira nor baino nor gehiago: batetik, aizkolarien desafioan Hodei Ezpeleta (Eibar), Alex Txikon (Lemoa), Jesus Mari Mujika (Ibarra) eta Ernesto Ezpeleta *Bihurri* (Eibar) aizkolariak izango dira; eta harri-jasotzaileen erakustaldian herrikide batekin gozatu ahal izango dute bergarrek, Paulo Azpiazu izango da eta harriarekin lanean, eta harekin batera Zarauzko Ainitze Zumetak ere erakustaldia egingo du.



Paulo Azpiazu, artxibo irudian, harriarekin lanean. GOIENA

Publikoarendako herri kirol ezagunak diren horiekin batera, Carlos Aretxabaletak bestelako herri kirolen erakustaldia egingo du; kasu horretan, Iparraldeko jokoak eramango ditu San Martin plazara: lasto altxatzea, lasto botatzea, gurditik tiratzea eta ingudearekin ere egingo du saioa.

Mokoloblok hilaren 19an

Aire librean egingo duten beste kirol hitzordu bat eta aurreko edizioetan arrakasta polita izan duena izango da Mokoloblok; Bergarako jaietan egiten duten hirugarren edizioa izango da. Esan moduan, iaz eskalatzaileek Bergarako kaleetan egindako saioak ikusmin handia piztu zuen, eta aurrean ere antolatzaileek aurrez aukeratutako herriko eraikinetan ibiliko dira, miarmak bezala boulder saioak egiten. Kontuan izan behar da izena eman duten eskalatzaileek euren material propioa eraman beharko dutela –bereziki, katu oinak eta koltxonetak ere eskertuko dituzte...-. Hain zuzen ere, kaleko boulder edo kale-blok topaketa 18:00etan hasiko dute.

Pilotari profesionalen jaialdia 21ean

Jaien barruan antolatu dituzten hitzorduen artean, Bergarako frontoian bi pilota jaialdi izango dira. Astelehenean, Kuadrillen Egunean, Bergara Hiria txapelketako finalak jokatuko dituzte, eta, hain zuzen, oraingo martitzenean jokatuko dituzte final horretan nortzuk egongo diren erabakitzeko finalerdiak. Eta bestea profesionalen jaialdia izango da. Hala, martitzenean –hilak 21–, Aspek antolatuta, Peio Etxeberrriak eta Beñat Rezustak bikotea osatuko dute, baina beste bikotea ez dago erabakita: Zabaletaren aurrelaria nor izango den zehaztu barik dago. Sarrera merkeenak 20 eurotan egongo dira; garestienak, 35 eurotan.

Ondo pasau Pentekoste jaixak!

www.ibilimenaje.com



Murillo Garajea

Auto konponketak orokorrean

**Ondo ibili
jaietan!**

Leizeaga 4 - BERGARA

Tel.: 943 76 13 84



Baltsa bat Bergaran, Deba errekan behera, 2012ko jaietan. GOIENA

Berritasuna da baltsen jaitsiera; hamabi daude

Azken hamarkadan ez dute baltsa jaitsierarik egin jaietan, baina Xaxauren eskutik lasterketa errekuperatu dute. Kuadrillengandik egon den harrera onak ezustean harrapatu ditu antolatzaileak. "Oinarrizko materiala utziko diegu", diote Xaxaukoek

Xabier Urtzelai BERGARA

Kuadrillen Egunean, hilaren 20an, egingo duten baltsa jaitsiera (11:30) bilakatu da jai egitarau barruan ikusmen handiena piztu duen ekimenetako bat. Ez da nobedadea, lehenago ere egiten zutelako jaitsiera hori, baina 12 urte pasa dira Deba ibaiko uretan azken jaitsiera egin zutenetik, eta Xaxauko lagunek hitzordua errekuperatzea erabaki dute. "Ez da gauza berri bat, herri askotako ibaietan egin ohi dituzte halakoak. Bergaran ere egiten zuten lehen, eta aspalditik geneukan hau errekuperatzeko gogoia; iritsi da momentua. Gainera, izan duen erantzunak ezustean harrapatu gaitu. Gutxieneko talde kopuru bat ezarri nahi genuen jaitsiera egiteko, hiruzpalau baltsa egon zitezela, sikiera, baina ez genituen hamabi baltsa aurreikusten. Hori ikusita, akaso, mugatu egin beharko dugu kopurua", dio Ibai Sanzek.

Piratekin egon dira

Baltsak zelan egin ikusteko, Donostiako jaietan protagonista izaten diren Piratekin egon dira.

"Baltsak egiteko gomendio batzuk eman dizkigute. Hala, badakigu talderen bat dagoeneko lanean hasita dagoela; egia esan, hala-koak ez ditugu batere arautu. Taldeei bai emango diegu oinarritzko materiala: poltsa puzgarriak, bridak, sokak... Eta hortik aurrera...". Eta Sanzek nabarmendu du baietz, lehenengoak saria izango duela, baina ez diotela lasterketa formatua eman nahi. "Denak irtengo dira batera; autobus geltoki ondoan erre-kara jaisteko aldapa bat dago, eta han hasi eta Usondo parke ondoan egongo da helmuga. Udalak baltsa azkarrena 150 eurorekin sarituko du, baina Xaxautik beste sari batzuk ere jarriko ditugu: baltsa originalena, mozzorro onena duena... Bai eskatuko duguna da baltsek taldearen izena daraman kartel edo pankarta izatea".

Baltsan joango direnak animatzeko eskaera ere egin dute. "Herriarrek ere parte hartzea nahiko genuke, bazterretik edo zubietatik lasterketa ikusiz, edota ur pistolekin baltsan joango direnak xaxatuz. Alegia, saltsa egon dadila".

GOKI
erreformak

Teilatuak, fatxadak, igogailuak,
sukaldeak, bainugelak.

*Ondo ibili
jaietan,
bergararrok!*

Irizar ibilbidea 1 behea
BERGARA

Tel.: 943 76 53 42

Faxa: 943 76 52 16

bergara@gokierreformak.com

www.gokierreformak.com

- Ibargarai 24
Tel.: 943 76 70 29
- Super Amaran ere bai:
San Lorentzo pol. 9
Amillaga 18
Tel.: 943 76 99 34
BERGARA

Gora Bergarako jaiak!



"Erraldoi berriak gazteei begira egin ditugu"

Bergarako Erraldioen Taldeak bi erraldoi berri estreinatuko ditu hilaren 18an San Martin plazan, 13:30ean. "1.850 izen-proposamen jaso ditugu, eta datozen egunotan erabakiko dugu ze izen jarriko diegun", adierazi du taldeko kide Andoni Goitik

Xabier Urtzelai BERGARA

Bergarako Erraldioen Taldeak bi erraldoi berri izango ditu aurrerantzean, baina zapatura arte ez dituzte erakutsiko. Izena ere erabakitzeko dago: "Bergarako ikastetxeetan zabaldu genuen proposamenak egiteko deialdia, eta pozik gaude, erantzun oso ona jaso dugu. Orain, izen egokienak aukeratzeko geratzen zaigu", dio Andoni Goitik.

Goitik aitortu du erraldoiak oraindik Beriainen dituztela. "Eskuartearen tailerlean ari dira erraldoiak egiten, eta azken ukituak ematea geratzen zaie. Teknologia berrienarekin egin dituzte, material arinekin, eta,



Erraldoiak, iaz, Bergarako jaietan. GOIENA

aldi berean, ez daitezela hauskorak izan. Hala, ez dira erraldoi handiak, baina ezta txiki-takoak ere, ertainak dira. Asmoa izan da taldeko gazteek erabiltzeko moduko erraldoiak egitea, 15-16 urteko gazteek erabil ditzaten egokiak izatea". Eta Erraldoi Taldekoek ez dute askoz gehiagorik aurreratu nahi izan. "Zapatuko aurkezpena itxaron nahi dugu, herritar guztiek batera ikus ditzaten. Aurrera genezakeena da dantzariak direla eta erraldioen jantziak Fermin Teruelek egin dituela". Hain justu, aurreikusten du datorren aste amaieran ekarriko dituztela Bergarara, zapatuan gertu egon daitezela.

Erraldoi horiek egiteko ideia ez da aurtengoa. "Iazko jaietarako egin nahi genituen. *Joxe Bixente* eta *Kattalin* erraldoiak dagoeneko zaharkituta daude; eta egin genituen azkenek, *Kotoi-k* eta *Mahoi-k*, dagoeneko 4-5 urte izango dituzte. Hala, berriak egiteko ideia sortu zen. Baina iazko jaietarako amaituta izateko berandu ibili ginen eta aurtengo jaietarako egitea erabaki genuen, eta lasaia ibili".

Gutzira, 34 erraldoi

Zapatuan, erraldoi berrien aurkezpenaren aurretik, Bergarako gainontzeko erraldoiak kalejiran ibiliko dira, 11:30ean hasita. Erraldoi batzuk Matxiategitik irtengo dira eta beste batzuk, Espolotik. Eta ez dira bakarrik ibiliko, aurtan Torrejon de Ardozko (Madril), Markinako eta Oñatiko erraldoiak izango dituzte eta ondoan –arratsaldeko kalejirarako (18:15) Markinakoak ere batuko zaizkie-. Eta kalejira San Martin plazan egongo den erraldioen gunean amaituko dute. Han izango dira, gainera, erraldioen erakusketa, palomita-makina, erraldioen liburuxka umeek margotzeko, umeentzako puzgarria... 13:00etan egingo duten ekitaldi berezian aurkeztuko dituzte bi erraldoi berriak. "Eta erraldoiak dantzariak direla jakinda, zerbait berezia egingo dugu", dio Goitik.

Arratsaldean ere kalejira egingo dute: Munibe plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili, Ibargarai, Irizar, Kruz Gallastegi, Bideberri, Fraiskozuri, Herrilagunak, Domingo Irala, Barrenkalea eta San Martin plaza.



BERGARA

www.alet-taldea.com
Tel.: 943 765 815
620 56 13 16
669 36 69 53

Ingenieritza eta Instalakuntza

Energia fotovoltaikoa • Energia Termikoa • Geotermia
Biomasa • Zoru Erradiatzailea • Aerotermia

Autokontsumoko instalakuntza fotovoltaikoetan eta litiozko baterietan adituak gara.

Gora bergararrok!



itesa

Gora Pentekosteak!

BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97



Lehiaketa iragartzeko Xaxauk egindako bideoaren zati bat. XAXAU

Kamerak eta irudimena, beste behin ere presente

Hamabigarrenez ospatuko dute Pentekosteetako film laburren txapelketa, eta maiatzaren 19an izango da emanaldia. Lau sari banatuko dituzte epaimahaiak eta ikusleek emanaldiaren ostean. Maiatzaren 13an bukatuko da entregatzeko epea

Gontzal Belategi Zubia BERGARA

Dagoeneko ohitura da Pentekosteetan film laburren lehiaketa egitea. Aurtengo jaiak ez dira salbuespena izango, eta Xaxauk hamabigarrenez antolatuko du lehiaketa. Maiatzaren 19an izango da emanaldia, 22:30ean, baina, emanaldia egiteko, film laburrak egin beharko dituzte herritarrek.

Filmak aurkeztu ahal izateko araudia ere iragarri dute Xaxauko kideek. Ez da gairik egongo, baina metronomo bat agertu beharko da, eta *bihotz alaia* esaldiaren erabilera derrigorrezkoa izango da. Gehienez bost minutuko iraupena izan dezakete filmek eta lanak maiatzaren 13a baino lehen entregatu behar dira xaxaukomunikazio@gmail.com helbide elektronikoan.

Harrera ona

Pozik hartzen dute herritarrek film laburren lehiaketa, eta aurtengoa edizio polita izango dela uste dugu. Beste behin ere, momentu zoragarriak biziko ditugu emanaldian", dio Andoni Etxezarretak, Xaxauko kideak.

Musika Eskolari omenaldia

Metronomoaren eta *bihotz alaia* esaldiaren erabilera ez da kasualitatea; Xaxauk Musika Eskolari egindako omenaldiaren parte dira. "Xaxau konpartsak aspalditik jaietan talde bat omentzen du, eta film laburren lehiaketa talde omendu horri lotuta egoten da. Aurtengoa Musika Eskola izango da talde omendua, 40 urte betetzen dituelako eta herriko kultur egile garrantzitsua delako. Eguneko egitarauan Musika Eskolak garrantzia izango du eta lehiaketan ere keinu bat egiten zaio", dio Etxezarretak.

Sariak

Lehiaketa bat den heinean, sariak eta sarituak izango dira. Jon Olivaresek, Yune Nogueirasek, Jone Albenizek eta Jone Santamariak osatutako epaimahaiak hiru sari banatuko ditu: film labur onena, aktore onena eta edizio onena. Horrez gain, ikusleek era gehien gustatu zaien filma zein den botatzeko aukera izango dute. Lau sarituek Xaxauk antolatutako paella-janerako gonbidapena eskuratuko dute.

Lacor
75
urte zure alboan
www.lacor.es

Ondo pasatu jaiak!

RPS: 88/23

ESTELLA
FARMAZIA-ORTOPEDIA SEKZ.
Matxiategi 5 • Bergara • 943 76 19 63

Jai zorientsuak bergarar guztioi!



Lemak. ARGAZKIAK: MUSIKA TALDEAK, GOIENA



Sotoalde.



Janus Lester.

Aberastasuna dario proposamen musikolari

Datorren ostiraletik astelehenera, euskal eta debagoiendar eszenako dozena eta erdi musika-talde inguruk erakutsiko dute Pentekosteetan zertarako gai diren. Hiru agertoki nagusitan banatuko dute gustu guztiak asetzeko moduko egitarau sorta

Hasier Larrea Herrero BERGARA

Zaila da lau eguneko tartean hainbeste kontzertu ezberdin batzea herri bakarrean. Bergarako jaiak antolatzen ibili diren eragileek beste behin erakutsiko dute herritarrak gozarazteko daukaten ahalmena.

HILAK 17 / 20:00
SAN MARTIN PLAZA

Sotoalde

Doinu urbanoek emango diote hasiera ostiralean Pentekosten egitarau musikolari, Mugimendu Sozialistaren txosnan.

Proiektu freskoa da laukote bergarar gazteak esku artean duena. Joan den azaroan eman ziren ezagutzera eta badabilta bideoklipak aleka argitaratzen.

Bien bitartean, Bergarako Musika Bandak kalejira egingo du plazatik hasita.

HILAK 17 / 22:30
TXOSNAGUNEA

Xaxau konpartsak zerbitzatuko duen lehen platerak rock, folk eta agrodance ukituak dauzka.

Golden Blend

Zero kilometroko rockzale horiek plazaz plaza ari dira estudioko lehen lana, *Bonben zalduna*, aurkezten.

Unidad Alavesa

Lazkaoko talde kontrastatuak *Motoki*, *Zakurreki*, *Egurreki*... disko berriko kantuak gehitu dizkio ohiko erreperitorioari.

Gora Etorri

Hemendik At dantzagarriaren usaina darion proposamena, ezinezkoa haiei begira barrara itsatsita geratzea.

Kontzertu horiek amaitzean teknoak hartuko du plaza, Ots, Wey, Zumi eta Anomalia bZb Munabek gidatuta.

HILAK 17 / 23:00
SAN MARTIN PLAZA

Janus Lester

Bergarako Udalak ere prestatu du Pentekosten lehen eguneko emanaldia, sentsibilitate handiko artista ekarrira. Beratik dator Jokin Pinatxoren ahots berezia, arima beltza, elektronikoa eta funka ederto menperatzen duten musikariek.

HILAK 17 / 24:00
SAN MARTIN PLAZA

Mugimendu Sozialistaren egitarauak gauerdian izango du jarraipena. Gainera, DJak egongo dira 02:00etatik aurrera egubakoitz, zapatu eta astelehenera.

Kontralde

Arrasateko zigilua duten punk-rockerrek gustua hartu diote oholtzari azkenaldian; *Erantzun bila* aterako dira oraingoan ere.

Berandu Baino Lehen

Mundu kapitalistaren trapu zikinak azaleratzen ditu hirukote debagoiendarrak *Utopian zein?* lanean grabatutako abestietan.

Babes Gabe

Egitarauko banda gazteenetakoa, distortsioa maite duten elgetar horiek euskal taldeen bertsioak egiten dituzte, eta hasiak dira abesti propioak lantzen.

HILAK 18 / 16:00
TXOSNAGUNEA

The Sakamantekas

Presoen aldeko bazkariaren ostean hasiko da zapatuko lehen zuzeneko kontzertua.

Agurainen sortutako talde horrek lastategiko punk-rock patxangeroa egiten du, haien abestiak eta euskal bertsioak tartekatuz.

19:30ean, Guateke More Ibiltariaren erritmora joango dira festazaleak kalez kale.

HILAK 18 / 22:30
TXOSNAGUNEA

Bideberrin jarraituko dute kontzertuek gauean, askotariko estiloak nahastuta.

Zilibito Records

Kolektiboan egiten du lan oiartzuar koadrila gazte horrek. *Deabruen doinuak* EPan, musika urbanoaren bueltan, bachata, pop punk, hyperpop eta trap osagaiak daude.

Alargun Beltzak

Pasai Antxoko elektrotzaranga estiloko emakume taldea agertokietan jotzera ohitu da dagoneko, musika giro maskulinoari aurre egiteko asmoz.

Lemak

Bizitasuna eta patxada konbinatuz, *Herrikide* diskoan bildutako kantuak eta nobedade gehiago ere aurkeztuko dituzte



www.fegar.com

Ondo ibili jaietan!





Haize Arrosa.



Sukena.



Xabi Solano.

2019tik herrian ezagunak egin diren hiru musikariek.

HILAK 18 / 23:00
SAN MARTIN PLAZA

Su Ta Gar

Zapatuan Udalaren apustu sendoarekin hasiko da plazako egitaraua.

Aurkezpenik behar ez duten heavyek aho bete hortz utziko dituzte ikus-entzuleak; soinu eta argi-joko indartsuekin *Alarma* guztiak apurtuko dituzte.



Su Ta Gar.

HILAK 18 / 24:30
SAN MARTIN PLAZA

Hamarratz erromeria

Eibartarren ostean, animoz betetako neska talde batek jarriko du publikoa dantzari, Mugimendu Sozialistaren eskutik.

Oñatitik dator nerabeak izanda ere lotsak atzean utzita dauzkan lagun taldea, gozatzeko eta gozarazteko asmorik onenekin.



Hamarratz erromeria.

HILAK 19 / 19:00
TXOSNAGUNEA

Xabi Solano Maiza

Domekako bazkari irekia eta bazkalostea Txomingerok eta Fanfarriak alaitu ostean, moti-

bazioa goian mantentzeko plan ezin hobea dauka Xaxau jai herrikoien konpartsak.

Musika estilo eta hizkera aldaera aberatsak plazaratuko ditu Hernaniko trikitilari trebeak, ibilbide luze eta laburragoko kantuen bidez.

HILAK 19 / 21:30
SAN MARTIN PLAZA

Haize Arrosa

Jaietako hirugarren egunean trikipop estiloari egingo dio toki Bergarako Udalak.

Sentimendu feminista sakona eta edertasunaren kanon sozialei egindako kritikaz osatutako lana, *Ez dogu zor ezer* izeneko, aurkeztuko du Bizkaiko talde berri horrek.

HILAK 20 / 12:30 ETA 23:00
ESPOLOIA

Joselu Anaiak

Edozein herritan ongietorriak diren kantuak bertatik bertara dantzatu ahalko dira astelehen, birritan.

Marina, Ai, Txabela! edota *Uso zuritxo polita*, modaz pasatzen ez diren klasikoak, eskainiko ditu 1977an debutatu zuen Araiaiko berbenazale familiak.

Adin guztietako gerriak mugitzeko plan paregabea.

HILAK 20 / 20:00 ETA 23:00
TXOSNAGUNEA

Azken hantsa Xaxauren kontura emango dute parranda-zaleek, afal aurretik eta afalostean.

Trikidantz

Izan ere, arratsaldeko zortzietan nagi guztiak uxatuko ditu Iturengo erromeria talde horrek, kaleratu duten bi diskoetako baten tituluak esaten duen bezala, publikoari *Bizitzaz goxatu* behar dela gogoratuta.

Sukena

23:00etan pop-rocka uztartzera igoko da seikotea oñatiar hori, *Guztia gordetzea ezinezkoa da* estreinako lanean erakutsi duten moduan. Udazkenean argitaratu zutenetik makina bat kontzertu ari dira ematen han eta hemen.

Raimundo el Canastero

Rumbak elkartu zituen Lizarran talde horretako kideak. Jaiei agur esango diete flamenko, autotune eta rap nahasketez jositako *N.T.E.R.* diskoko kantuak abestuta.



iBARRALDE
Administrazio zerbitzuak SL

- Etxe agentzia
- Fiskalak
- Laboralak
- Kontableak
- Finken administrazio zerbitzua

25.068 kolegiatu
zenbakia

Ibargarai 30 BERGARA
Tel.: 943 76 52 88 - Faxa: 943 76 25 64

Ondo ibili jaietan!

BERGARAKO JAIAK GOIENAN



KUADRILLEN ARTEKO XIV. OLINPIADAK

ZUZENEAN 'GOIENA.EUS'-EN

MAIATZAREN 20AN, ASTELEHENA, 12:30EAN HASITA

ZUZENEKOA



'HEMEN DEBAGOIENA' JAIETAN

GOIENA TELEBISTAN

MAIATZAREN 20AN, ASTELEHENA, 18:00ETAN,

20:00ETAN ETA 22:00ETAN

BERGARAKO JAIEN HASIERA SAN MARTIN PLAZATIK



'JAIAK' SAIO BEREZIA

BERGARAKO PENTEKOSTEAK

MAIATZAREN 22AN, EGUAZTENA, 19:00ETAN,

21:00ETAN ETA 23:00ETAN

goiena

Zu hemen zaude.

"Euskaldunok DNAn dugu mendizaletasuna"

ZIGOR EGIA SUANCES EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOKO PRESIDENTEA Sorrerako agirietan jasota dago: Elgeta da euskaldunen mendi-hiriburua. Bat dator Federazioko presidentea. Mendeurreneko ekitaldi nagusira gonbidatu ditu mendizaleak

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA Ehun urte dira Euskal Mendizale Federazioa Elgetan sortu zela. Mendeurreneko ekitaldiak urtarilla ezker daude martxan, baina ekitaldi nagusia sorterrian izango da, hilaren 18an. Federazioko presidente Zigor Egia (Amurrio, 1975) erakundearen garrantziaz aritu da.

Orain arteko ekintzak ondo doaz? Parte hartze handiarekin. 100 urte, 100 mendi ekimenean mendi talde askok hartu dute parte. Federatuta 40 urtetik gora daramaten Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako mendizaleak omen du ditugu, eta ikusarazi dugu asko direla. Pozik gaude Mendiurrenak daraman martxarekin. **Euskaldunok zainetan daramagu mendizaletasuna?**

Nire ustez, DNAn daramagu. EAEn 50.000 federatu gara, Nafarroan 14.000 dira. Kalkulatzen dugu %30 direla emakumeak. Futbol Federazioak baino federatu gehiago ditugu eta esan behar da federatu bako mendizaleak asko direla. Esan ohi dugu Euskal Herriko etxe guztietan daudela mendiko botak eta motxila, eta hori ez da leku guztietan gertatzen.

Nola dator datorren zapatuko ekitaldi nagusia?

Ilusio handiarekin prestatu dugu. Ez dira asko ehun urte betetzen dituzten erakundeak, eta ospatu egin behar da. Mendiurreneko ekitaldi nagusia da Elgetan egingo duguna. Ezin liteke bestela izan; Euskal Mendizale Federazioa Elgetan sortu zen eta Elgetan ospatu izan dira urteurren garrantzitsuenak: 25, 50 eta 75 urte. Horrekin batera, beste hainbat bilera eta batzar.

Zergatik aukeratu zen Elgeta bere egunean?

Kokapen geografikoagatik. Helburua zen Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako mendizaleak elkartzea, eta Elgeta nola baita erdigunean zegoen. Gero,



Zigor Egia Suances. EMF

"FEDERAZIOAREN WEBGUNEAN DAGO MENDEURRENEKO BAZKARIRAKO IZENA EMATEKO AUKERA"

herriak ondo erantzun zuen. Ez da kasualitatea plaza nagusiaren izena Mendizaleen plaza izatea. **Hasieran, Federazioak Nafarroako, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko mendizaleak batzen zituen; gaur egun, bi federaziotan banatuta zaudete. Banaketa noiz gertatu zen?**

1978an, autonomia erkidegoak sortu zirenean. Elgetako ekitaldian aurkeztuko dugu Euskal Herriko Mendi Biltzarra. Bi urte daramagu prestatzen eta ekitaldian bertan azalduko dugu zer den eta zertarako sortzen dugun, baina ideia da harremanak estutzea eta elkarlana bultzatzea. **1924ko mendizaleen eskaera nagusiak ziren mendi bideak zabaltzea eta seinalezatzea, iturriak eta aterpeak eraikitzea, gidak sortzea... Gaur egun?**

Federatuta dauden mendizale guztiek istripuetarako aseguru

dute gaur egun. Gero, goimendi eskolak ditugu –bat lurraldeko–, alpinisten teknifikazio taldea eta nazioartean ere lehiatzen diren bost euskal selekzio –mendi lasterketa, mendi eskia, ipar martxa, eskalada, orientazioa–. *Pyrenaica* aldizkaria ere ekoizten dugu; lau zenbaki jasotzen dituzte federatuek urtero. Horietan jartzen dugu indarra, eta gure mendien kontserbazioan. Kezkatuta gaude mendietan tamaina handiko haize-errotak jartzeko proiektuekin.

Ekitaldi instituzionala eta bazkaria aurreikusten dituzue hilaren 18rako Elgetan.

Bai; oroitzapen plaka baten aurkezpena [bi daude gaur egun udaletxeko fatxadan] eta aitortza ekitaldia ere bai. Ehun urtetik gora dituzten mendi elkarteak eta Euskal Mendizale Elkartearen presidentea ohiak omenduko ditugu.

Bazkarirako eman daiteke izena? Bai; bazkaria Elgetako frontoian egingo dugu eta Euskal Mendizale Elkartearen webgunean eman daiteke izena. Ekitaldi nagusiko egitaraua eta Mendiurreneko egitarau osoa ere bertan kontsulta daitezke.

Herriko talde eragileak Herri Azoka prestatzen ari dira

Ekainaren 14rako iragarri dute; ikusgarritasuna ematea eta elkar ezagutza bultzatzea dira helburu nagusiak

L.Z.L. ELGETA

Elgetako Udala 2023ko urtarrilean atxiki zen herri hezitzaileen sarera, eta Udalaren gidaritzapean martxan da dinamika. Parte hartzea erabaki duten taldeak lau batzordetan banatuta daude: Ingurumena, Herri-gintza, Kirola eta Heziketa. Eguaztenean egin zuten guztiak elkartzen dituen Herri Foroaren bigarren batzarra.

Aurreratuta daude ekainaren 14an egitekoa den Herri Azoka prestateta lanak. Azoka 18:00etatik 19:30eran egingo dute;

eguraldi ona bada plazan izango da, eta, bestela, udal pilotalekuan. Hainbat taldek konfirmatu dute parte hartzea; esaterako, Herri Eskolak, Ludotekak, Haur Eskolak, Guraso Elkarteak, Gazte Asanbladak, Amantalak talde feministak, Astrotopaketak lantaldeak, Liburutegiak, Heziketa Digitala lantaldeak, Piñu-koku elkarteak, Mendi Mendi Racing taldeak, Intxortako Ahuntzak Trail taldeak, Kantsatzeke mendi taldeak, Ixotzen kooperatibak, Baratze Parkeak eta Goibeko euskara elkarteak.



JOSE ANTONIO OJANGUREN

Erretiratuak egun-pasa joan dira

Xalbadorpek antolatuta, herriko 45 bat erretiratu Ordizia, Donostia eta Getaria aldean ibili ziren eguaztenean. Bazkaria Usurbilgo Aginaga sagardotegian egin zuten. Podologoaren kontsulta da Xalbadorpek eskainiko duen hurrengo zerbitzua. Hilaren 20an izango da, astelehena. Txanda hartzeko, deitu egin behar da: 669 99 81 65 (Maite Elkor).

Puntaik Punta jaialdia izango da asteburu honetan Elgetan

Gaur arratsaldean izango dira lehen ekintzak eta domekara arte iraungo du jaialdiak. Xendazaletasun eta artisautza azokaren bueltan hainbat ekintza izango dira (Ikus 6. orria).

Jaialdiak hainbat aldaketa eragingo ditu herriaren eguneroko martxan. Erdigunea oinezkoendako gunea izango da bariku arratsaldetik domeka-

ra, eta, jaietan moduan, autobus geltokia Berraondokora lekualdatuko dute. Autobus zerbitzua indartu egingo dute. Zapatuan egun osoz eta domeka goizean ordu egongo da Bergararako zerbitzua. Bergarako irteerak ordu osoetan izango dira eta Elgetakoak, ordu erdietan.

Herriko hiru eragilek –Gazte Asanblada, Amantalak talde feminista eta Goibeko euskara elkarte– txosna jarriko dute plazan.

Goruetan Beka berria, Jone Azkoagarentzat

Emakumeek historian zehar euskal gizarteari egindako ekarpena ikertzea helburu duen Goruetan Beka Jone Azkoaga literatura-zale zarautzarrari eman dio Bergarako Udalak; Azkoagak Itxaro Bordaren poesia lana ikertuko du, genealogia safikoaren ikuspegitik

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Udalak, "herriko hainbat eragilerekin elkarlanean", Goruetan bekan izena emateko epea ireki zuen 2023ko urrian. Beka horrekin, emakumeek historian zehar euskal gizarteari egindako ekarpenak ikertzeko aukera eman nahi diote pertsona edo talde bati. Eta, hain zuzen, Jone Azkoaga Elejondori (Zarautz, 1992) egokitu zaio Goruetan Beka garatzeko aukera. Ikerketak gehienez hamazortzi hilabete iraungo du eta trukean 12.000 euroko ordainsaria jasoko du Azkoagak.

Genealogia safikoaren begitik

Itxaro Borda idazlearen poesia lana izango da Azkoagak ikertuko duena; literatura-zale zarautzarraren arabera, Bordaren poesiak eta bere ahotsaren zaurgarritasun indartsu eta pasionalak jakin-mina piztuta, haren ibilbide literarioa genealogia safikoaren ikuspuntutik behatuko da lan horretan: "Lan hipotesi modura hartuko da Bordaren poesian islatzen direla bere identitatea zeharkatzen duten hainbat elementu, hala nola, disidentzia sozio-politiko, periferikotasun geografiko eta sozio-kulturala, bakardade existentziala eta pasio lesbikoa, eta identitate hori beste idazle batzuen, ama sinboliko deritzenen, eragina izan dela".

Emakumeen euskal poesiari buruzko "testuinguratze historiko sendoa" eraikitzeaz batera, Azkoagaren ikerketa lan horren bizkarrezurra genealogia safikoa da: "Agerian gelditzen da Maria Merce Marçalen nahiz Itxaro Bordaren ibilbide literarioan zein inportantea izan den ama sinbolikoen presentzia, biek iraganera jauzi egiten dute eta erreferente eta figura lesbikoen bila, oraingo existentzia sendotzeko eta isilarazia izan den emakumeen arteko pasioaren historia gainditzeko".



Jone Azkoaga Elejondo, Itxaro Bordaren *Itzalen tektonika* lanarekin. B.U.

IKERKETAK GEHIENEZ 18 HILABETE IRAUNGO DU, ETA TRUKEAN 12.000 EURO JASOKO DITU AZKOAGAK

Gaztea, eta "curriculum sendoa"

Gaztea izan arren, "curriculum sendoa" dauka Azkoagak. Besteak beste, Literatura Konparatua eta Literatur Ikasketak izeneko masterra egin du EHU 2021etik 2023ra. Horrez gain, EHUko Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradu ikaslea ere izan da, ohorezko matrikula lortuta gradu amaierako lanean. Hainbat libururen itzulpena egiteaz arduratu da azken urteetan, eta, horrez gain, ibilbide luzea dauka musika, poesia eta kultura sorkuntzaren alorretan. Beka-

rako Azkoaga aukeratu zuen epaimahai berberak osatuko du jarraipen batzordea, zazpi adituz osatua; tartean Martxanteretako kide bat egongo da.

Amaitu ostean, hitzaldi bi

Udaleko Berdintasun zinegotzi Ainhoa Letek honako ideia hau nabarmendu du bekaren inguruan: "Gure inguruko eta gure herriko historia berridazteko saiakeran aparteko garrantzia izan du ikertzaile eta historialari feministek egindako ekarpenak. Orain, espero dugu Azkoagak garatuko duen lan horrek beste pauso bat ematea".

Udaletik aurreratu dute ikerketa amaitutakoan emaitzak hainbat formatutan zabalduko direla; besteak beste, bi hitzaldi egingo dira: bata publiko espezializatuari zuzendua eta bestea herritar guztiei irekia.



"Zubi duina" eta zebra-bidea "orain" eskatzeko pankarta, Elorregin. J.M.

Bidea oinez igarotzeko "soluzio bat" ari dira eskatzen Elorregin

Auzoko elkartera, frontoira eta elizara joateko zubia itxita dagoenetik egoera arriskutsuak bizi direla diote auzotarrek

J.B.L. BERGARA

Elorregiko auzotar batzuk kezu dira elkartera, frontoira eta elizara igarotzeko pasabide segururik ez dutelako: "Iazko Auzuak Ala Hil jairako Udalak hesitu egin zuen zubia, oinezkoek seguru igaro zezaten. Baina jaia amaitu zenean, hesiak bertan laga beharrez, zubia itxi egin ziguten. Badira urte batzuk zebra-bidea jarri eta zubia konpontzea eskatu genuela, baina alferrik".

Apaizak ia istripua izan zuen

Auzotarren arabera, apaizak ia istripua izan zuen duela egun

batzuk: "Apaiza autobusean etorri ohi da eta elizara oinez igaro behar du. Errepide ondortik joan behar izaten du, eta, aurrekoan, ziklista batek oso gutxigatik ez zuen harrapatu. Beste auzotar batzuk ere egoera berean daude; ez dute autotarik edota elkartera joateko ez dute autoa hartu nahi, eta errepidea nolabait gurutzatu behar izaten dute. Orain arte, zubia igarotzea zen modu seguruen, baina iaz Udalak pasabide hori itxi egin zigun; hala, ez dugu beste aukerarik hesia zabaldu eta bertatik pasatzea baino".



LUKEN UGARTEBURU

Nerea Agirrezabalaren 'ziaboga'

Galdegazte-ko hamargarren denboraldiko azken saioan, Aranzadi Ikastolako DBHko laugarren mailako ikasleek Nerea Agirrezabal arraunlaria elkarriketatu dute. Platoan egon dira Maddi Lamikiz, Eneka Mondragon eta Naia Unamuno eta kontrol-gelan, berriz, Markel Eguren eta Aiora Maure. Saioa maiatzaren 14an emitituko dute Goiena telebistan, 19:30ean, 21:30ean eta 23:30ean.



Eskolako Agenda 2030 programaren barruko aurkezpenaren ostean, talde argazkia atera zuten udal ordezkariekin. GOIENA

Ikastetxetik udaletxera, energia garbia helburu

Eskolen Agenda 2030 egitasmoaren barruan, herriko ikasleek ikasturtean zehar "energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea" sustatzeko egin dute lanketa aurkeztu dute asteon udal ordezkarien aurrean. 3.000 ikasle inguruk hartu dute parte, modu batera edo bestera

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Azken osoko bilkuran Tokiko Klima eta Energia Plana izan zen protagonista, eta EH Bildu eta EAJ bat etorri ziren jasangarritasunaren arloan 2030erako konpromisoak "lehenbailehen" betetzeko neurriak hartzea "ezinbesteko" izango dela adierazteko orduan. Izan ere, bi talde politikoek "elkarlanerako prestutasuna" dute.

Ikasleen inplikazio bila

Eguaztenean herriko ikasleak izan ziren osoko bilkuren areto protagonista, eta haiek ere energiaren bueltako gaiak izan zituzten hizketagai. Ikasturte honetako Agenda 2030 proiektuaren bitartez, garapen iraunkorreko helburuekin bat egin eta "energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea" sustatzeko moduak landu dituzte.

Ikasturtearen lehen hiruhilekoan, ikasleek egiteko moduko ekintzak identifikatu eta ikastetxe guztien artean adostasuna

bilatzeko urratsak egin zituzten: "Modu horretan, eragile guztien inplikazioa bilatu da, erabakiak hartzeko prozesuari garrantzia emanaz". Bigarren hiruhilekoan, adostutako ekintzak martxa jartzeko tarte hartu dute. "Ikastetxe bakoitzak bere erritmoa jarraitu du; emaitzak eskolen arteko foroan partekatu ditugu, eta ikastetxeetako ikasleen arteko harremana indartu egin da", adierazi dute ekimeneko arduradunek.

Ikasleek iazko diagnostikoa hartu dute aurtengo lanaren oinarri gisa: "Oinarri horretatik abiatuta, hobekuntza proposamenak aztertu eta bideragarriak direnak aukeratu dituzte. Ikastetxe guztien arteko

LH-KO IKASLEEK MARRAZKI LEHIAKETA EGIN DUTE; DBH-KO EK, BERRIZ, ZUHAITZAK AZTERTU DITUZTE

bilera egin ondoren, elkarlanean egin beharreko ekintzak adostu zituzten: batetik, LHko ikasleek egin duten marrazki lehiaketa; eta, bestetik, DBHko ikasleek zuhaitzen inguruan egin dako lanketa. Helburu nagusia ikasleak modu aktiboan inplikatzeko izan da, hitzetatik ekintzetara jauzi eginez".

Udala eta Berritzegunea

Udala eta Jaurlaritzaren Berritzegunea zentroa dira programa horren sustatzaileak. 2023-2024ko ikasturtean Aranzadi ikastolako, Ipintza Institutuko, Mariaren Lagundia ikastetxeko eta San Martin Agirre ikastetxeko 3.000 ikasle inguruk hartu dute parte, modu batera edo bestera, Haur Hezkuntzatik DBHra. Izan ere, eskolen Agenda 2030 egitasmoa udal ordezkarien eta ikasleen arteko harreman zuzena ahalbidetzen duen heziketa programa da, eta herriko hezkuntza komunitatearen partaidetza oinarritzeko izaten da.



NIRE USTEZ

KARMELE URIBESALGO

Hatz atomikoa

Inoiz bonba nuklearren bat botatzen badute, atzamar lodiak salba gaitzake. Ezinezkoa dirudi lehergailu baten erradiazioari hatz batekin aurre egiteak, baina, antza denez, horrela jakin dezakegu onik atera gaitzkeen ala babesleku batera joan behar dugun. Gure atzamarrak ez du leherketa galaraziko; neurgailu lanak egingo ditu. Ezta daren bat egonez gero, gure atzamarra atera beharko genuke, *okay* egiten ari bagina bezala. Bonbak sortutako ondoko erradiaktiboa zure hatza baino txikiagoa baldin bada, egin ihes kontrako norabidean. Handiagoa bada, zureak egin du.

Fallout telesailan diote hori, eta informazio bila aritu naiz. Nagasakin jaurti zuten *Fat Man* bonbak 4,5 kilometroko eragin-eremua izan zuen, eta inoiz sortu den lehergailu atomikorik ahaltsuenak 91,8koa izango luke. Bonbaren keak gehienez ere gure atzamarraren altuera badu, leherketa gugandik 152 kilometro ingurura izan da, eta onik irteteko aukera izan dezakegu. Beste kontu bat da ezta daren ostean etor daitezkeen euri azidoa eta erradiazioa. Ez dakit zer sinesgarritasun maila duen teoria honek, baina, badaezpada, hortxe datua.

OHARRAK

Torrekua, Arrizuri, Martzial Agirre eta Ibargarai

Jaiak izango dituzte aste bukaeran lau kale horietan. Honako ekintza hauek antolatu dituzte: gaur, suziri jaurtiketa eta buruhandiak (19:00); eta Azkaiter Pelox (20:00) eta Aliritzi taldeen kontzertua; bihar, berriz, kukainak (12:00); herri bazkaria (14:30); eta Good Vibes taldearen kontzertua (21:00).

Mariaren Lagundia Ikastolaren jaiak

Bihar, hilak 11, egun osoko egitaraua izango dute. Besteak beste, ginkana, Moises Azpiazu dantza taldea, bazkaria, poneyetan ibiltzeko aukera eta DJ Oihan Vega izango dituzte.

Ate irekiak Bergarako Musika Eskolan

Musika eskolako eskaintzaren berri izan nahi duenarentzat atek irekiko dituzte bihar, maiatzak 11, 11:30etik 14:00etara. 12:15etik aurrera irakasleek emanaldi txikiak egingo dituzte.

Laboratorium: bisitak eta Museoen Eguna

Hilaren 11n eta 25ean bisita gidatuak izango dira; erreserba egin ahala beteko dira bisita eta hizkuntza aukeratzeko plazak. Gainera, hilaren 18an, Laboratoriumeko ekintza guztiak doan izango dira, Museoen Nazioarteko Eguna delako: 943-76 90 03.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Gazte mailako jokalaria, aurreko partidu batean lortutako emaitza ospatzen. MIKEL LARRAÑAGA

Hirugarrenez ere bikain gazte mailako taldea

Aurreko bi denboraldiak bezala, sekulakoa ari da egiten aurtengoa ere Bergarako gazte mailako taldea. Bi partiduren faltan, eskura izan dezake oraindik igoera, baina duten maila eta lortu dutena baloratzeari eman gura diote garrantzia

Oihana Elortza Gorostiza BERGARA
Sekulakoa ari da egiten Bergarako gazte mailako taldea. Bi urtez segidan igoera lortu du, nazional mailan dago egun, eta aurreko igoera lortuz gero izugarria izango litzateke. Igoera hori baino gehiago, orain arte lortu duena baloratzea da taldeko entrenatzaileak, Iñaki Mardarasek, azpimarratu gura duena.

Onenen artean

Bi partidu gelditzen zaizkio goren mailara igotzeko lehiaren egoteko, eta asteburu honetako partiduak irabaztea horretarako urratsa izango litzateke taldearentzat. "Erronka zaila baina polita da. Sinisten dut taldearengan, eta lor dezakegu, baina hemen gaudela da baloratu gura dudana. Ez badugu igotzea lortzen, hori entzun beharko dugu batzuen aldetik, baina guztiok konturatu behar dugu non gauden, ze mailatan ari garen jokatzen. Momentu honetan, Gipuzkoako talderik onena gara, gazte mailan, Real-

re, Eibarren eta Antiguokoren atzetik. Hori sekulakoa da eta baloratu egin behar da".

Denboraldi onaren segida

Horrela, aste honetako entrenamendu saioak ere ohikoak izan direla dio Iñaki Mardarasek, entrenatzaileak: "Oso denboraldi ona egin dugu aurreko ere, eta asteburu honetako partiduak ere ondo egiteko ari gara lanean, baina bestelako presiorik gabe. Ono jokatutako dugulako gaude hemen, maila honetan, postu honetan, eta ondo jokatzea izango da gure erronka asteburu honetan ere. Mezua ez da galtzea txarra dela, ondo ari garela baizik". Jokalariak duten mailan sinisten duela gaineratu du Mardarasek, eta

**PARTIDUA
AGORROSINEN IZANGO
DA, BIHAR, ZAPATUA,
17:30EAN, DANOK BAT
TALDEAREN AURKA**

jokatzea aterako direla zapatuan, Agorrosinen 17:30ean hasiko den partiduan.

Aurrera Vitoria eta Eibar

Sailkapeneko lehen taldea, Bizkaiko Danok Bat, izango da zapatuko aurkaria. "Berez ez du ezer jokoan talde horrek, eta pentsatzen dugu tentsio aldetik ez dela horrenbestekoa izango, intentsitate txikiagoarekin jokatuko dutela, baina zeinek daki... Partiduak irabazteko egindako taldea da hori". Azken partiduak, berriz, Eibarren kontra jokatuko dute bergararrek.

Bi partiduren faltan, Aurrera Vitoria taldearen emaitzak baldintza dezake mahoneroek igotzeko izan dezaketean aukera. Bergararrek biak irabazi behar dituzte eta gasteiztarrek bietako bat galdu edo berdindu. Berdinketa bergararren aldekoa izango litzateke. "Sekulako maila du taldeak, eta hori erakutsiko du, beste behin, zapatuan", dio, sinistuta, entrenatzaileak.



Begarako taldea, jokatutako azken partiduan, Oñatiko Zubikoa kiroldegian. GOIENA

Irabazi beharra dauka Soraluze BKE taldeak mailari eusteko

Euskadiko txapelketan lehiatzen jarraitu gura du datorren denboraldian ere Xabat Irazolaren taldeak

O.E.G. BERGARA

Ligako azken partiduak jokatuko du Soraluze BKE taldeak asteburuan, eta irabazi beharra dauka mailari eutsi gura badi. Eta horretara, "irabaztera", aterako dira jokalaria Labegaraietako kantxara, datorren denboraldian ere Euskadiko txapelketan lehiatu gura dute eta.

Akatsak zuzenduta

Partiduari begira aste barruan aparteko prestaketarik ez dutela egin dio entrenatzaileak, Xabat Irazolak, baina azkenaldian jokatutako partiduak onak izan direla eta hori ere izango dela sinistuta dago, gaizki egin dutenetatik atera dutelako zer ikasia: "Azken biak irabazi ditugu eta aurreko hirurak galdu, azken laurdenetan. Ikasi dugu azken zati horretan ere jokatutako egin behar dela, markagailuan ondo joan arren. Akatsak egin

ditugu, baina zuzentzen ikasi ere bai, eta datorren partiduak irabazteko moduan gaude".

Zapatuan, 18:00etan

Domeketan jokatutako izan ditu beti Soraluze BKE taldeak etxeko partiduak, baina bateratu egin ditu neurketa guztiak Federazioak, eta, horrela, partidu guztiak zapatuan 18:00etan jokatuko dira. "Buruan ez ditugu beste emaitzak izango, eta jokatzea aterako gara. Aurreko galdu ditugun partiduak irabazi nahi ditugu datorren denboraldian. Taldea ondo ari da, motibatuta dago oso, eta merezi du datorren denboraldian ere Euskadiko lehiaketan egotea".

Gasteizko Arabarri taldearen aurka jokatuko du zapatuan, baina Ordizia da jaitsiera postuari eusteko duen aurkari zuzena: "Irabazi beharra daukagu, bai edo bai".

Bergara Hiria pilota txapelketak baditu lehen finalistak

Jokatu dituzte Bergara Hiria pilota txapelketako lehen finalerdiak. Promesetan, Oier Ibarluzeak eta Markel Calvok 22-10 irabazi zieten Beñat Apezteari eta Mikel Leoneti. Nagusien mailan, Unai Amiano eta Beñat Garmendia nagusitu ziren Iker Egigurenen eta Aingeru Bernaolaren aurka, 22-20. Finalak hilaren 20an jokatuko dira.



Amiano eta Garmendia. BPE

'Izarrik ez' aurkeztuko dute kartzela zaharrean

Disko berria aurkeztuko du gaur, egubakoitza, 22:30ean, Orhi taldeak: 'Izarrik ez'. Pop-rock estiloko hamar abestiz osatutako lan luzea da, eta, era berean, taldearen lehenengo lana ere bada. Euren ostean, Hegazkin taldeko kideak igoko dira oholtzara

Julen Murua Mesonero BERGARA
Kutsu bergararra izango dute gaur, egubakoitza, kartzela zaharrean egongo diren kontzertuek; izan ere, 22:30ean hasita, Orhi eta Hegazkin taldeek euren kantua eskainiko dizkiete bertaratuei. Orhi taldeak, gainera, lehenengo lan luzea kaleratu berri du: *Izarrik ez* diskoa. Hamar abestiz osatutako lana da eta aurkezpena Kartzela Zaharrean bertan egingo du Bergarako taldeak.

Hamar abestiz osatutako lana da argitaratu berri dutena eta pop-rock estiloaren baitako abestiak direla dio Aitor Narbaizak, taldeko kideak. Urte eta erdi inguru aritu dira dagoeneko argia ikusi duen lan horrekin bueltaka, eta Ainhoa Martinek, taldeko abeslariak, aitortu du "lan handia" egin behar izan dutela diskoa kaleratzeko. "Sormen-prozesuek beti behar dute heltze denbora bat eta gu ere pixkanaka-pixkanaka joan gara lanean. Estiloa bilatzen aritu

ginen, eta, gure gustuko abestiak egiten ari ginen neurrian, gainontzekoa errazago sortu genuen. "Lan berezia" dela aitortzen dute taldekideek, eta, lehenengo lana izanik, "ilusio handia" egiten die Bergaran aurkezteko aukera izateak. Are gehiago, kartzela zaharra urteetan euren etxea izan dela aitortzen dute, eta "oso garbi" zeukaten diskoaren aurkezpen eguneko emanaldia bertan izango zela. 2024ko erdialdera iritsita, gelditzen diren hilabeteetan euren lana "ezagutzera eman eta kontzertuak eskaini" gura dituzte, eta, nola ez, "sortutakoaz gozatzea eta ikusleei gozaraztea" ere izango dute helburu. Nahi duenarentzat eskuragarri egongo dira kon-

BERGARAKO ORHI TALDEAK LEHENENGO LANA AURKEZTUKO DU: 'IZARRIK EZ' DISKOA

tzertuan taldearen disko, kamiseta eta bestelakoak.

Bergarako Hegazkin taldea izango da egubakoitzean oholtzara igoko den bigarren taldea. 2021. urtetik darama bikote bergararrak elektro-pop estiloko abestiak sortzen, eta orduan aurkeztu zuten euren lehenengo diskoa: *Haize beltzak*. Egubakoitzean, baina, lantzen ari diren bigarren diskoako abesti batzuk ere joko dituztela iragarri du Alayn Carazok, taldeko gitarrak-joleak.

Zapatuan, Ivan Barquero gogora
Bihar, 19.30ean, rock-and-roll doinuak entzungo egongo dira kartzela zaharrean; izan ere, Ivan Barquero zena gogora ekarriko dute haren lagunek. 2018an eman zuten kontzertu hori aurrenekoz, eta aurten bosgarrenez igoko dira oholtzara, Barquero zenaren "gustuko kantua jartzera, lagun artean eta hura gogora ekartzeko asmoz", haren lagun hitzetan.



Isladak proiektuaren aurreneko lanaren emanaldia, iaz. IMANOL SORIANO

'Hitzak' lana Seminarixoa, Isladak proiektuaren eskutik

Lau obra laburrez osatutako emanaldia izango da; antzezlan bakoitzak musika izango du lagun

J.M.M. BERGARA

Hitzak antzezlan aurkeztuko dute zapatuan Isladak proiektuko kideek Bergarako Seminarixoa, 20:00etan. Iaz egin zuten lehen emanaldia, eta, izan zuen arrakasta ikusita, aurten ere "antzezlan formatu bera" egitea erabaki dutela dio Mikel Irizarrek, antzezlaneko zuzendariak.

Lau antzezlan laburrez osatutako emanaldia izango da, eta antzezlan bakoitzak abesti bat izango du aurretik, obra bakoitzean jorratuko duten gaia testuinguruan jartzeko. *Antzinako garaia*, *Dos amigos eternos*, *Benetan maite zaituen norbait* eta *Lo que yo quiero* izango dira antzeztuko dituzten obrak, eta, lau horien artean kanpoko egileen obrak badaude ere, badaude bi lan Isladak proiektuko kideek sortu eta antzeztuko dituztenak: *Antzinako garaia*

eta *Benetan maite zaituen norbait*, hain zuzen ere.

Antzerkia herrian bultzatzeko

"Antzerki taldea baino proiektu bezala izendatzea" nahiago dutela dio Irizarrek; izan ere, hasierako ideia zen antzerkiaren zaletasuna bultzatzea herrian. "Bergaran beti egon da musikarekiko zaletasun handia, eta Seminarixoa, pilotalekua eta beste hainbat toki bete izan dira musikagatik. Antzerkiari dago-kionez, eta nahiz eta obra onak ekarri, gehiago kostatzen da aretoak betetzea, eta hori aldatzeko erabaki genuen proiektu hau sortzea; antzerkia egin ez duen jendearekin lan eginda, antzerkia bultzatzea". Horregatik, antzerki motzeko formatuaren alde apustu egitea erabaki zuten, "antzerkia ikustera ohituta ez dagoen jendearengana iristeko obra laburren bitartez".



Ezkerretik eskuinera, Jon Ugarte, Xabier Payros, Ainhoa Martin, Alatz Etxebarriarteun, Leire Ugarte eta Aitor Narbaiza. ORHI TALDEA

Eduardo Alsasuaren erakusketa domekara arte ikusgai Aroztegin

Eduardo Alsasua artista gasteiztarraren *Material bisual sentikorra* erakusketa bisitatzeko aukera egongo da domekara arte -barne- Aroztegi aretoan. Eduardo Alsasuaren pintura gaur egungo errealismo piktorikoaren barruan kokatzen da, eta eguneroko egoera, leku, objektu eta abarretan aurkitzen du lan horiek sortzeko inspirazioa.

Bertsoak nagusi 'Udaberri feminista' egitasmoaren baitan

Sorturen *Udaberri feminista* egitasmoaren barruan, bertso saioaz gozatzeko aukera izango dute bergarrek Arrano tabernan. Gaur, egubakoitza, izango du tokia saioak, 22:30ean, eta bertsoa eta koplaka arituko dira gauean zehar Nerea Ibarzabal Salegi eta Eli Pagola Apezetxea; gaiak jartzen Jone Igarua Fernandez arituko da.



Kiroldegiko kantxa urdinaren atzeko eremuan egingo dute disuasioko aparkalekua, osasun zentrokoaren ondoan. O.E.G.

Martxan da disuasioko aparkalekuaren proiektua

Hamasei ibilgailurendako tokia egongo da anbulatorio osteko aparkalekuaren jarraipena izango den parking berrian, eta toki beretik izango du sartu-irtena; proiektuaren idazketa esleituta, asmoa da obrak urte barruan hastea eta amaitzea

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Disuasioko aparkalekuak egingo dituzte urtea bukatu orduko kiroldegia atzealdean. Osasun zentroaren egungo aparkalekuaren jarraipena izango da gunea eta handik izango du sarrera. Helburua da ibilgailuak erdigunetik ateratzea. Ibilgailuak herri-gunetik ateratzea baina, aldi berean, erdigunetik gertu aparkatzea ahalbideratuko luke aparkaleku horrek.

Hamasei ibilgailurendako tokia

Zubikoa kiroldegia atzealdeko eta saihebidetaren arteko eremuan, osasun zentroko parkingaren ondoan kokatuko da. Bertara sartzeko eta handik

irteteko bidea ere anbulatorio osteko aparkalekuak duen bera izango da; parking horren jarraipena izango da berria.

Guztira, hamasei bat ibilgailurendako tokia egongo da aparkaleku horretan, eta autoa nahi beste denboran uzteko aukera. Hau da, gunea horretan ez da errotazioko aparkatze sistema-rik egongo.

Next baldintzak beteta

Disuasioko aparkalekuak egiteko proiektuaren idazketa eta lanen zuzendaritza esleitu du dagoeneko Oñatiko Udalak. Gider Ingeniaritza enpresari esleitu dio fase horretako lanak, 15.125 eurotan –BEZa barne–.

Hirigintzako batzordeburu Iñigo Ruizek adierazi duenez, proiektua datorren astean aurkeztuko dute eta obrak lizitatu-ko ditu, ondoren, Udalak. Lanak udan hastea gurako lukete, Ruizek esanetan, abuztuan ez bada irailen, eta hiru bat hilabete iraungo duten aurreikuspena dute. Udalaren asmoa da aurten hasi eta amaitzea proiektua.

Herrira datozen bisitarien ibilgailuak herri-gunetik ateratzea da aparkaleku berri horren helburua. Europar Batasuneko Next Generation Funtsetik 200.000 euroko laguntza jaso zuen Udalak proiektua egiteko, eta funts horrek eskatzen dituen baldintzak bete beharko ditu lanen

lizitazioa hartzen duen enpresak. Oñati landa-nortasuna duen helmuga turistikoa izanik, ingurumenean eta paisaian ahalik eta kalte txikiena egitea da disuasioko aparkaleku horien bidez lortu nahi dena.

Gune monitorizatuak

Hamasei ibilgailu sartuko dira aparkaleku horretan, argiteria jarriko dute, eta baita ibilgailu elektrikoendako gunea ere. Gainera, monitorizatuta egotea da asmoa; hau da, pantaila baten bitartez adieraztea aparkaleku horretan autora uzteko tokia dagoen edo ez. San Juan kaleko anbulatorio ondoko biribilgunean jarriko lukete pantaila hori, gidariek jakin dezaten aparkalekua beteta dagoen edo ez. Sistema hori, baina, beste proiektu bat litzateke. Izan ere, monitorizazio sistema hori beste aparkaleku batzuetan jartzeko asmoa ere badu Udalak, ez egingo den horretan bakarrik; aparkaleku berriak eta gaur egungoak monitorizatuak litzateke. Horregatik, orain, parkingaren eraikuntza proiektua bakarrik egingo dute, "eta monitorizazioa helduko balitz, ondoren txertatuko litzateke", Hirigintza batzordeburuak azaldu duenez.

Padel pistak

Zubikoa kiroldegia atzealdean urdinaren atzean egongo da aurten egingo duten disuasioko aparkalekua. Horrek, baina, ez du baldintzatuko gunea horretan padel pistak egitea, Hirigintza batzordeburuaren esanetan. "Aparkalekuak ez dute orube osoa hartzen eta oraindik tokia egongo litzateke kirol instalazio berriak eraikitzen jarraitzeko", adierazi du Ruizek.

Epaia aztertzen ari da Udala, "erabakia hartzeko"

Kaleratutako langile bati 30.000 euroko kalte-ordaina ordaintzera zigortu du Auzitegiak

O.E.G. OÑATI

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ebatzi du Oñatiko Udaleko langile baten kaleratzea "desegokia" izan dela, eta zigortu egin du Udala: 30.000 euroko konpentsazioa ematea edo langile moduan hartzea berriz. Udala epaia aztertzen ari da, "erabakia hartzeko".

Duela urtebete izan zen gertaera. Kiroldegiko lanpostu bat urtebeterako betetzea proposatu zitzaion Udalaren lan-poltsan zegoen hautagai bati, eta orduan zuen lanpostu finkoa utzi zuen hori hartzeko. Martxoaren 27an kontratua sinatu, baina kontratazioan akats bat izan zela adierazi zioten, ahoz, eta apirilaren 30a azken laneguna izango zuela, sententziak dioenez.

Udalak dio bere jarduketak guztiak legezotasun-printzipioan oinarrituz egin behar dituela eta horrela egin zuela kalte-ordaina ordaintzeko. Estatuko Justizia Epaitegiaren Lan Arloko Sala gehienak, hemengo barne, diru gehigarria emateko aukera horren aurka agertu izan direla ere badi, eta deigarria iruditzen zaio Gizarte Eskubideen Europako Batzordearen txosten baten edukian oinarritu dela erabaki judiziala, "baina txosten hori ez da oraindik argitaratu".

GIPUZKOA BERTSOTAN
24
100 FASEA

Aimar Sorazu Roteta
Andoni Rekondo Izagirre
June Aiestaran Iparragirre
Lierni Rekondo Villarón
Maddi Aiestaran Iparragirre
Maide Garmendia Jauregi

www.bertsosale.eus
www.bertsosarrerak.eus

OÑATI

Maiatzak 17, ostirala, 19:00 📅
Santa Ana aretoa 📍

Antolatzailea:

Babesleak:

Laguntzailea:

Gai-emaleak:

Puntu bakarra nahikoa dute igoera lehiatzeko

Puntu bakar bat lortuta maila igoera jokatu du Aloña Mendiko futboleko talde gorenak, eta zapatuan 17:30ean lor dezake hori, Azkoagainen. Partidua hasi aurretik, omenaldia jasoko du duela 30 urte Hirugarren Mailara igo zen taldeak

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Puntu bakar bat nahikoa du Aloña Mendiko futboleko talde gorenak maila igoera jokatzeko. Puntu hori lortuta, datorren denboraldian berriz Ohorezko Mailan egoteko aukera lehiatu ahal izango du, beste taldeko bigarren sailkatuaren kontra.

Bi partiduren faltan

Igoera lehiatzeko lortu behar duen puntu hori bihar, zapatua, jokatu duen partiduan lor dezake Azkoagainen, etxean jokatuko duen ligako azken partiduan. "Denboraldi hasierako helburua ez zen mailaz igotzea, baina posible dela ikusi dugu ligak aurrera egin ahala eta lortu dezakegula uste dut. Aste barruan lan ona egiten ari gara denboraldi osoan. Gaizki jokatu edo emaitza txarrak lortu ditugun partiduei ere ondo eman diegu buelta aste barruko lan on horri esker, erregularrak izan gara. Motibatuta dago taldea, oso, zapatuko partidurako, eta ea lortzen dugun maila igoera borrokatzeko beharrezkoa dugun puntu hori", azaldu du taldeko entrenatzaileak, Gotzon Urzelaiak.

Zapatuko partidua eta datorren astekoa, bi aukera ditu Aloña Mendik puntu hori lortzeko. Oraingoan ere lortuko luke, be-



Etxe jokalariek Antzuolaren kontrako partiduko gola ospatzen Azkoagainen. GOIENA

rez, hark galdu eta Urkik berdinketa lortuko balu. Igoera lehiatzea lortuz gero, maiatzaren azken asteburuan jokatu luke lehen partidua, eta hurrengoan bigarrena.

Omenaldia ere bai

Zapatuko partiduren aurretik, omenaldia egingo diote 1993/1994ko denboraldian Aloña Mendi Hirugarren Mailara igoetzea lortu zuen taldeari. "Oso liga ona egin genuen. Hiru partidaren faltan igoera lortuko genuela uste genuen. Ospakizune-

tan ere pentsatzen hasita geunden, baina galdu egin genuen. Biren faltakoan Donostian lortutako garaipenak eman zigun igoera, eta ligako azken jardunaldia, Azkoagainen, igoeraren ospakizuna izan zen. Oroitzapen politak ditut, bai. Harreman polita sortu zen orduko taldekidetaren artean, eta mantendu egin da. Horetako batzuk faltako dira zapatuko omenaldian, hilda daudelako, eta haiek ere izango ditugu gogoan", dio orduko kapitainak, Jose Luis Abaunz *Montxo*-k.



JOSU BILBAO

Hangöverrek irabazi du liga

Ligako finalean Albok taldeari 3-2 irabazita, Hangöver taldea izan da herriko futbol txapelketako ligako irabazlea. Lehen aldiz hartu du parte talde horrek txapelketan, eta finaleraino iristea eta liga irabaztea lortu du. Kopako finala Wingüter taldeak irabazi zuen, penaltietan, Shatoken Moura taldearen aurka, norgehiagoka 0-0 bukatu ondoren.

Mailaz jaitsi da Biotz Aloña Mendi saskibaloitza

Saskibaloitza taldeak agur esan dio Euskadiko Txapelketari. Soralue BKE taldearen kontra galdu zuen, eta maila jaitsiera ekarri zuen horrek, matematikoki, zapatuan. "Kolpe gogorra izan da. Denboraldi osoa aritu gara lanean eta azken partiduetako garaipen batzuei esker posible ikusten genuen maila mantentzea. Bergara gu baino askoz hobeto lehiatu da eta merezimendu osoz irabazi dute. Hurrengo jardunaldia lehiatu egingo dugu, eta gero, udan deskonektatu ostean gogotsu ekingo diogu denboraldi berriari, Euskadiko Txapelketara lehenbailehen itzultzeko", zioen Aitor Barreirok.

Partidu bat falta arren, bukatu dute liga areto futbolekoek

Bukatu du denboraldia Coinbroker Aloña Mendi areto futbol taldeak. Asteburu honetan zen jokatzekoa denboraldiko azken partidua, Zubikoan, baina talde aurkariak, Villabonako Egintzak, jakinarazi du ez dela partidura agertuko; hortaz, denboraldia bukatu da Iñaki Iglesiasek zuzentzen duen Coinbroker Aloña Mendi areto futboleko taldearendako. Azken partidua joan den asteburukoa izan zen, lideraren kontra. Egindako denboraldiari dagokionez, ez da iazkoa bezain ona izan, baina mailari eustea lortu du taldeak. Datorren ikasturtean, beraz, maila berean, Gipuzkoako lehenengoan, jokatuko dute oñatiarrek.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com

Filmen soinu bandak bazkideen kontzerturako

Maiatzaren 19an egingo du Ganbara Faktoriak bazkideendako egin ohi duen urteroko kontzertua. Filmen bitxikeriak eta soinu bandak entzungo dira '5 izar' izeneko emanaldian eta Dani Alvarez kazetaria izango da aurkezlea

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Urtero moduan, Ganbara Faktoriak bazkideen kontzertua egingo du aurten ere. Maiatzaren 19an izango da, 19:30ean, San Migel parrokan. Oraingo honetan, zinemaren eta soinu banden munduan murgilduko dira, eta film eta telesail ezagunetako kantuak entzun ahalko dira, Ganbara Kantu Eskola, Ganbara Abesbatza, Hots Abesbatza eta Aequus Ensemble taldeen eskutik. Guztira, 180 pertsonak hartuko dute parte 5 izar izeneko kontzertuan.

Dani Alvarez aurkezle

Zinemari buruzko kontzertua izanik, aurkezle berezia ere izango du emanaldiak; hain zuten, *La noche D* telebista saioko aurkezle Dani Alvarez kazetaria izango da emanaldian aurkezle lanetan. "Haren testuekin eta bitxikeriekin zinemari buruz gehiago jakiteko aukera izango dugu, eta era berean, kontzertua modu dinamikoan gidatuko du", adierazi du Aitor Biain Bidartek, Ganbara Faktoriako zuzendariak, asteon egindako aurkezpenean. Adibidez, *Coco*, *West side story* eta *Miserables* filmen doinuak entzungo dira, eta horien ingurukoak azalduko ditu gonbidatutuen aurkezleak.



Ganbarako kideak bazkide kontzertuaren aurkezpen egunean. IÑIGO BARRENA

Sarrerak salgai

Egun, 125 bazkide ditu Ganbara Faktoriak. Haiez gainera, ohorezko bazkide dira Oñatiko Udala eta Ulma kooperatiba; datozen bi urteetan kopuru hori 150era heltzea dute helburu. Estimatuak dira oso Ganbara Faktoriako bazkideak, eta mimos prestatu ohi dute abesbatzek euren eskaintako kontzertua. Bazkide direnek dagoeneko jaso dituzte euren gonbidapenak, baina kontzertura joan gura dutenek ere aukera izango dute horretarako. Sarrerak

ohiko tokietan –Txokolateixan eta udal webgunean– daude salgai, zortzi euroren truke.

Balorazio "positiboa"

Bazkideen kontzertuaren aurkezpenarekin batera, ikasturteko balorazioa ere egin du Ganbara Faktoriak. "Positiboa" izan dela adierazi dute, tartean hainbat sari eskuratu dituztelako hainbat taldek eta proiektu berezietan murgilduta ere egon direlako. Bide beretik jarraituko dutela aitortu du Aitor Biainek.

Zabalik dago herriko pilota txapelketan izena emateko epea

Herriko pilota txapelketan parte hartzeko izen ematea dagoeneko zabalik dago. Gizonezko eta emakumezko txapelketak egongo dira eta bikote bakoitzeko kide bat, behintzat, federatuta egotea ezinbestekoa izango da. Hamabost euro da bikotearen inskripzioa eta Arrano tabernan edo *Instagram* bidez eman daiteke izena, hilaren 26a aurretik.

Etxafuegoekin hasiko dira gaur iluntzean San Migel Txiki jaiak

Iluntzeko zazpietan botako dute jaiari hasiera emango dien etxafuegoa, eta domeka iluntzera bitartean San Migel Txiki jaiak gozatu ahal izango da Kale Zaharrean. Ohiko ekitaldiak jasotzen ditu aurtengo egitarauak ere: auzoko emakumeendako luntxa, mendi bizikletako irteera, zuzeneko musika kontzertuak eta Oñatzeko dantza emanaldia.



NIRE USTEZ

LOREA SUAREZ IBARGUREN

Maiatzaren 16a, egun paregabea!

Badator maiatzaren 16a. EAE osoko hezitzaileak Mugimendu Autonomoaren Juntadizoetan Arrasaten elkartuko garen eguna. 206 eskola bilduko dituen juntadizo pedagogikoa. Egun guztiko jarduna izango da. Goizean Amaia antzokian maisu-maistrek formazioa jaso eta elkarrekin auzolanean aritutakoa elkartrukatu dute. Berritzeguneko aholkularien gidaritzapean hitza hartuko du Arrasate Herri Eskolak, beste zenbait eskolarekin batera. Eguerdian elkarrekin bazkaldu eta arratsaldean eskola ezagutzeko aukera izango dute eraldaketa ikusteko. Haurra bera dena izateko eskubidea, familia bakoitzarekiko akonpainamendua zein herri, hizkuntza, izaera, kultura garatu eta esku hartzen dihardugu. Ohi bezala, adituak diren eta eskolan bertan lanean ari diren maisu-maistrek euren ekarpenak egingo dituzte EAEko eskoletako esku-hartzeta eta begirada komuna eraikiz. Horietako bat Berritzegune Nagusiko Nere Inda Goikolea arrasatearra izango da. Arrasate Herri Eskolatik eskertu nahi diegu ere ibilbide honetan laguntza eman diguten eskolako familia eta komunitateko kideei.



M.U.

Aspaldiko irratiak ikusgai

Antzinako irratiaren erakusketa zabaldu du Javier Solerrek kultura etxeko erakusketa gelan. 60 mahai-irradi zahar, lau lurzoru-irradi, bost irrati-transmisore, magnetofoiak, disko-jogailuak... eta irrati horiek elikatzen dituzten voltmetroak daude bertan. Baita irrati bakoitza zein urtetakoa eta herrialdetakoa den ere. Hilaren 19a arte egongo da zabalik.

AUTLAN
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

ION ANDER CASTRO ZABALA

Era guztietako aulkien konponketa
Zuzeneko artikuluen salmenta

TAPIZERIA OROKORREAN

943 78 71 65
639 01 69 69

Aiiii... ze ondo... azkenian!
Bueno, eta oin,
zeiñek lagunduko dosta
hau dana txukun
eta polit jarten?



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

goienaOkmgida

Debagoieneran baldin badago,
hemen dago.



Goiena
Okm Gidaren
eskaintza osoa.

47 pilotu batuko ditu bihar Gorlako Igoerak

AUTOMOBILISMOA Bost urte lasterketa barik egon eta gero, bihar, zapatua, egingo dute Gorlako Igoeraren 29. edizioa. Lasterketak balio izango du, gainera, azken urteotan erretiroa hartuta ibili den Aitor Zabaleta ostera ere Lola BMWn ikusteko

Xabier Urtzelai BERGARA

Bost urteko etenaren ostean, bueltan da euskal zirkuituko igoera ezagunenetako bat, eta pilotuen artean harrera ona izan du, 47 automobil batuko dira-eta bihar irteera puntuan (15:00). "Kopuru oso polita da, eta, gainera, erreferentziazko pilotuak datoz. Horrek erakusten du jendea Gorlarako gogoz zegoela; lasterketa ona egiteko osagaiak badaude. Pilotuei asko gustatzen zaien igoera da hau, ibilbideak denetik duelako: tarte azkarrak ditu, tarte laburrak, paellak... Alde horretatik, trazatu osoa du", adierazi du Gorla racing taldeko Xabier Zabaletak.

Antolatzaileek garbi zuten lasterketaren etorkizuna kolokan zegoela eta zirt edo zart egiteko momentua zela: "Eta aurrera egitea erabaki dugu, lasterketa errekuperatzea". Hain zuzen, mendateko asfaltoa erabat konponduta ez badago ere -asfaltatze lana amaitzea geratzen da-



Bost urteko etenaren ostean, etxean bueltatuko da Zabaleta. GORLA RACING

hilabete hauetan konponketa lanak egin dituzte, eta antolatzaileek uste dute igoera txukun egin daitekeela. Hortaz, datorren urtean 30. edizioa antolatzen badute, orduan bai, asfalto berriaren gainean izango da.

Debagoieneko hamaika pilotu

Lasterketan Debagoieneko hamaika pilotu izango dira. Aipatu moduan, Aitor Zabaletak urte hauetan gelditu izan du Lola BMW autoa, baina zapatuan lanean jarriko du ostera ere, bergara-

rrari etxeko lasterketan parte hartzeak ilusioa egiten dio eta. Eta ez hori bakarrik: haren seme Aitor Zabaleta azken urteotan BMW 330 batekin dabil, baina orain arte ez dira aita-semeak lasterketan elkarrekin egon, eta bihar biak izango dira irteera puntuan. Hori bai, bakoitza auto eta kategoria ezberdinetan.

Esan bezala, eurekin batera ibarreko beste bederatzi lagun lehiatuko dira: Mikel Otxoa (BMW Touring), Ander Serrano (BMW M3), Iñigo Errasti (Clio Sport), Mikel Beretxina-ga (BMW 325i), Unai Jurado (BMW 325i), Asier Odriozola (Ibiza TDI), Gorka Urrutia (206 HDI), Jokin Mellado (Saxo VTS) eta Aimar Arriolabengoa (Citroen AX).

Auto azkarren artean egongo dira Abel Lombardoren Dallara F3, CM kategoriako Daniel Jimenezen BRC eta Iosu Beitiaren Speed Car. Eta auto *polotoak* ere egongo dira; esaterako, Igor Urienen Citroen AX E2, Bruno Scherer-en Porsche-GT3 eta joan den astean Izpegin irabazi zuen Lucas Scherer-en M3.

15:00etan hasita

Ohi bezala, lasterketak hiru txanda izango ditu, eta lehenengoa entrenamenduetakoa izango da. Sari banaketa ekitaldia, berriaz, Lainon egingo dute, 20:00 aldera. Antolatzaileek eskatu dute lanean egongo diren komisarioak errespetatzeko.

Ekainaren 1ean rallya Intxortan

A+Gas taldeak gertu du ekainaren 1ean egingo duten Intxortako rallysprinta. Besteak beste azken urteotan Udalak Igoera eta Gatzagakoa antolatzen ibili den eskuderiako lagunak lasterketa hori lehenengoz antolatuko dute, baina ekimena ez da berria, berez 2020an ziren-eta egitekoak. Orduan, pandemia tarteko, lasterketa bertan behera utzi behar izan zuten, eta, Gorlako Igoerarekin gertatu moduan, eten luze baten ondoren, ekainaren 1ean egingo dute proba.

Rallysprintak bi tramu kronometratu izango ditu: Bergara eta Kanpanzar artekoa izango da bata eta Angiozar eta Kanpanzar artekoa bestea.

DEBAGOIENEO HAMAIKA PILOTU IZANGO DIRA; TARTEAN, ZABALETA AITA-SEMEAK

Bergarak bikain eta Oñatik txukun hasi dute Herri Artekoa

PILOTA Herri Artekoan mahoneroak bikain hasi dira; txantxikuek txukun jardun dute Amezketan, joanekoan

X.U. ARRASATE

Herri Arteko Txapelketako itzulerako partiduak jokatuak dituzte gaur, egubakoitza, Oñatin (18:30) eta Bergaran (19:00). Eta joan den asteko joaneko partiduak kanpoan izan zirela kontuan hartuta, bailarako taldeek ondo hasi dute torneoa.

Bergararrek ondo baino hobeto hasi dute, bikain, Amasa-Villabonakoei 0-3 irabazi zieten eta. Kadete mailan Etxabek eta Etxeberriak 10-22 irabazi zuten; gazte mailan Alberdik eta Ormaetxeak 1-22; eta senior

mailan Etxanizek eta Oterminek 5-22. Hala, kanporaketa oso bideratuta dute mahoneroek.

Oñatiarrena, parekatuago

Aloña Mendiko mutilei dagokien, oñatiarrek oso lan txukuna egin zuten Amezketako pilotalekuan, baina egia da kanporaketa oso irekita dagoela eta etxean erabaki beharko dutela, gaur. Kadete mailan Lizarralde eta Rodriguezek 22-5 galdu zuten; gazte mailako partidua oso parekatua izan zen, baina amezketarrak na-



Pilotari oñatiarrak, iazko Herri Artekoan, Amezketakoan kontra. GOIENA

gusitu ziren Lizarralderen eta Madinagoitiaren aurka (22-21); eta senior mailan bai, Erlek eta Perezek osatutako bikoteak 22-14 hartu zituen mendean amezketarrak. Hala, emaitza orokorra Amezketaren aldekoa

da, oraingoz (2-1), baina gaurko partidua geratzen da, eta, gainera, kalkulagailua eskuan izan beharko du batek baino gehiagok, tanto aldea ere erabakigarria izaten delako torneo horretan.

SASKIBALOIA Ointxe!-k haserrea helarazi dio Federazioari

Mondragon Unibertsitateko neskek fase "historikoa" jokatu behar dute oraingo asteburuan Easoren kantxan, Donostian. Baina Ointxe! saskibalo klubak, San Ignaciorekin eta Indautxurekin batera, ohar bidez jakinarazi du haserre daudela Federazioak jarritako ordutegiak, eta kantxa bera ere desegokia dela salatu dute. "Lauro finala baldintza hauetan jokatzeko kalte larria egiten dio emakumezkoen saskibaloari", adierazi dute (Ikus 13. orrialdea). MUko neskek zapatuan 20:00etan dute finalerdia. Berandu iritsiko dira partidu horretatik etxera, eta, sailkatuz gero, domekan 11:30ean izango dute finala.

Arrangurak atzean utzita doaz Eibarko "finalera"

FUTBOLA Saillapenean lehenengo eta bigarren postuan dauden Eibarrek (68) eta Aretxabaletak (68) elkarren kontra jokatuko dute domekan Unben (12:30). Deustoren kontra barkatu izana ahaztuta doaz aretxabaletarrak; hiru partidu geratzen dira

Xabier Urtelai ARETXABALETA

Hiru *final* geratzen zaizkie aretxabaletarrei, baina, zalantza barik, oraingo asteburuko jardunaldia erabakigarria izan daiteke Hirugarren Mailara nor igoko den erabakitzeko. "Eibarren kontrako partidua final bat da, bai, baina ezin ditugu ondoren etorriko diren beste bi partiduak ahaztu. Izan ere, Eibarren kontra irabazi egiten badugu eta ondoren Elgoibarren edo Oiartzunen kontra hanka sartzen badugu...", adierazi dio GOIENARI aste barruan Unai Calzonek. "Alde horretatik, denoi geratzen zaizkigu hiru partidu, baita eibartarrei ere. Alegia, euren kontra galduz gero ere ez litzateke dena galduta egongo. Hiru partiduak dira guretako garrantzitsuak".

Kontrario gogorra

Aretxabaletako entrenatzailea Eibarren mailak ez du ezustean harrapatuko: joanekoan Ibarren armaginak 1-3 nagusitu ziren. "Taldea oso ona dute, sendoak dira, eta, horrekin batera, futboleko ondo egiten dute. Baina seguru guk ere gure aukerak izango ditugula; talde oso ona daukagu, eta erabateko konfiantza dugu gure buruarengan. Lehia polita izango dela uste dut". Hala,

emaitzaren arabera, aurreikusuten du azken jardunaldietan kalkulagailua eskuan izango dutela. "Segurua den gauza bakarra da partidu guztiak irabazten baditugu ez diogula inori begiratu beharko".

Zaleen babesa

Izan ere, joan den astean Aretxabaletaren eta Deustoren arteko partidua ikusteko Ibarako harmailak bete egin ziren, eta entrenatzaile aretxabaletarrak espero du domekan Unben ere jendea egotea taldea babesten:

"Partidu polita izango da, guretako norgehiagoka garrantzitsua da, eta Eibar moduko talde baten kontra... Animateko nituzke zaleak, bai, partidua ikustera etortzeko".

Laugarren dagoen Bergarak (59 puntu) dagoeneko ez du askorik jokoan, eta postu horretan amaituko du liga, bai atzetik eta bai aurretik kontrarioak urrun daudelako. Baina geratzen diren bi jardunaldiak zapore onarekin amaitu nahi dituzte. Domekan Deustoren zelaira egingo dute bisita (17:00).



Aretxabaletarrak, domekan izandako gol aukera bat huts egin ostean. I.SORIANO

Aloña Mendik, igoera jokoan

Iaz, Mondrak eta Aloña Mendik galdu zuten Ohorezko Erregional Mailan kategoria; matematikoki Mondrak kategoria errekerperatu du, eta oñatiarrak ere hori lortzeko lanean dabiltza burubelarri. Gotzon Urtelairen mutilak bigarren daude saillapenean, eta postu horrek igoera fasea jokatzeke aukera ematen du, beste multzoko bigarrenaren kontra. Gainera, partidu berezia izango da, 1994an Hirugarren Mailara igo ziren oñatiarrak omenduko dituzte eta (Ikus 43. orria).

Debagoiena Bailara, larri

Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailan Debagoiena Bailarako neskek zail dute mailari eustea. Hasiera batean, azken hiru sailkatuek maila galduko dute, eta, hain justu, Hernanikoak (19) debagoiendarrak (11) eta Oiartzungoak (3) daude hor. Karanbolak tarteko posible da bi talde bakarrik jaitea, baina Hernani harrapatu behar dute libratzeko. Zapatuan Goierri Gorri taldearen bisita izango dute Ibarren (12:45). Emakumezkoen Gorengo Mailan, mailaz igota dauden Bergarako neskek ere kontrario bera izango dute, Goierri Gorri (zapatua, 15:30, Agorrosin).

Bergarako gazteak, ikusgarri

Bergarako Maila Nazionaleko gazteek ere igotzeko aukera dute (Ikus 40. orria). Zazpigarren daude saillapenean, baina aurretik dauden zenbait ezin dira igo, goiko mailako taldeen filialak direlako. Hala, bi partiduak irabazi behar dituzte mahoneroek, eta Gasteizko Aurreraren akatsaren zain egon. Zapatuan liderra izango da Bergaran (17:30).



Aitor, eskuinean, behean. MAXIXATZEN

TENISA Aitor Magallanes, Hirugarren Mailara

Azkoitiko Juaristi tenis taldearekin Hirugarren Mailara igotzea lortu du Aitor Magallanes arrasatearrak. Txerloia tenis klubeke VNRC ligako gizezkoen maila absolutuan, Juaristi taldekoeke 5-2 irabazi zieten asteburuan Gasteizko kontrarioei. Ondorioz, txapelketako jardunaldi guztiak irabazita, Hirugarren Mailara igotzea lortu dute azkoitiarrak.

ZIKLISMOA Itzulia Women gaur goizean pasako da bailaratik

Gaur hasiko duten Itzulia Womeneko lehenengo etapak Debagoiena zeharkatuko du goizean zehar, 11:00 aldera. Etaparen ibilbideak ez du ziklistez gozatzeko aukerarik emango, Debagoienean ez dutelako mendateirik igoko eta Aramaiotik sartu eta saihebidetatik joango direlako kostalderantz. Elgoibarren amaituko da etapa (13:30)



Realaren eta Atletico Madrilaren arteko partidarako sarrerak
futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Atletico Madril norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeraturako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partida malatzaren 26an.

Parte hartzeko azken eguna: malatzaren 19a.

Ezin errazagoa da
zozketan
parte hartzea!



1.
Aplikazioa
deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu
eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!



Egin
Goienakide
eta Reala
ikusteko aukera
izango duzu!

goiena
kide

Okm:
batzen gaituen
distantzia



Algaraka bakarriketa lehiaketako lehenengo parte-hartzaileak. GOIENA

Hitzekin emozioak azaleratzeko, 'Algaraka' bakarriketa lehiaketa

Gaur abiatuko da Jardun euskara elkarteak eta Goienak Bergarako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin eta Urretxuko, Zumarragako eta Zumaiako udalen eta EITBren laguntzarekin antolatutako lehiaketa, Bergarako Seminarixoan

Aitziber Aranburuzabala Juldain BERGARA

Berben esanahia eta tonu egokiak erabilita aurrean duten publikoaren emozioetara heltzeko gogoz nor baino nor ibiliko dira Aretxabaletako Maider Triviño *Maidar Mimi*, Orendaingo Xabin Fernandez, Mikel Iriarte *Joxemiel* donostiarra eta Muxikako Asier Galarza Seminarixoan gaur 20:00etan abiatuko duten euskarazko bakarriketa lehiaketan.

Hiru saiotan banatuta, hamabi bakarriketarik jardungo dute, guztira, lehian; aurrez aipatutakoez gainera, maiatzaren 17an, Urretxuko Labeaga aretoan, Ion Urretxuko Labeaga aretoan, Ion Urretxuko Labeaga aretoan, Josu Arrizabalaga eta Joana Arakistain izango dira, eta hirugarren kanporaketa Ander Malbadik, Manex Astigarragak, Joxe Aldasorok eta Amaia Ruiz de Galarretak jokatu dute maiatza

ren 24an, Zumaiako Aita Mari aretoan. Sei minutu izango ditu lehiakide bakoitzak, eta saio bakoitzean irabazle bat aukeratu dute epaimahaikideek; hau da, kanporaketa bakoitzetik finalista bat aterako da, eta laugarren finalista *coach*-ek erabakiko dute. Maiatzaren 31n jokatuko dute finala, Seminarixoan.

Zuzeneko musika eta gehiago

Miren Nogales eta Jon Olivares izango dira *Algaraka*-ko aurkezleak –gaur, Nogalesek jardungo du–, eta Iosu Zubiak, Idoia Torregaraik eta Aner Peritzek jardungo dute epaimahaikide lanetan. "Saio bakoitzean, baina, gonbidatu bat izango dugu; esaterako, Ana Goitia izango da oraingoan, Iker Plazaola oñatiarra izango da Urretxuko saioan eta izen ezagun gehiago izango dira hurrengo saioetan. Gonbi-

datu horrek, epaimahaikideei laguntzeaz gainera, mikroa hartu eta bere saiotxoia egiteko bidea ere izango du", azaldu du Goienako Ikus-entzunezko zuzendari Oihane Agirrek.

Hitzak izango dira, zalantza barik, *Algaraka*-ren osagai nagusi, baina ondo landutako eszenografia izango da, eta baita Iker Pirisek gidatzen duen taldeak zuzenean sortutako musika pasarteak ere.

Adituen laguntzarekin

Profil eta bakarriketa arloan ibilbide askotarikoak dira par-

BERGARAKO SEMINARIXOAN 20:00ETAN ESTREINATUKO DUTE GAUR 'ALGARAKA'

te-hartzaileak, eskarmentua dute batzuek eta hasiberriak dira beste hainbat, baina guztiek izan dute *coach* edo aditu baten laguntza, taularatu aurretik behar dituzten tresna guztietan trebatu ahal izateko. Nerea Arriolak eta Getari Etxegaraik jardun dute asteon Bilbon eta Errenterian egin dituzten entrenamendu saio horietan. "Banakako *coach*-saioak egin dituzte, bi zatitan banatuta: prestatu duten gidoiari begiratu diote, lehenengo; eta ikusitako ahulguneak eta indarguneak identifikatu dituzte, ondoren; eta segidan, gorputza eta ahotsa egoki erabiltzeko aholkuak jaso dituzte, bakarriketari gorpuzkera sendoagoa emateko", azaldu du Oihane Agirrek, eta zera gaineratu du Getari Etxegaraik: "Gustu handiz hartu nuen *coach* moduan jarduteko proposamena; niretzako ere erronka da, eta plazeraz hartu dut. Izan ere, bakarriketari amorratua naiz. Ni ere hala hasi nintzen bidea egiten, eta sekulako ilusioa egiten dit orain beste batzuei laguntzeak. Oso lasai sentitu naiz paper horretan. Plazer hutsa da parte hartzaileen artean halako aniztasuna ikustea".

Estimatutako laguntza izan da lehiakideendako; honela dio Maider Mimi (Maider Triviño) aretxabaletarrak: "Aukera ikaragarria da aditu baten laguntza jasotzea eta oso lagungarriak izan dira jasotako aholkuak. Eskerrak eman gura dizkiet antolatzaileei halako ekimen eder bat bultzatzeagatik".

Aretoetan eta pantailan ikusgai

Aretoetan batutako publikoaren aurrean egingo dituzte bakarriketariet zuzenean lau saioak; *Seminarixoa.eus* atarian eskura daitezke gaurko emanaldirako sarrerak, lau eurotan. Baina aurrez aurrez gainera, geroago Goiena telebistan eta *Goiena.eus* atarian ikusteko aukera ere izango da, eta baita Primeran plataforma digitalean ere; izan ere, EITBekin batera ekoiztutako euskarazko bakarriketa lehiaketa da *Algaraka*.

PROFIL ETA IBILBIDE ASKOTARIKO HAMABI EUSKAL BAKARRIKETARI LEHIATUKO DIRA



GOIENA

"Mikrofono batek indarra ematen dit"

MAIDER TRIVIÑO 'MAIDER MIMI' BAKARRIKETARIA

Orain dela bi urte murgildu zen antzerki kontuetan Maider Triviño *Maidar Mimi* aretxabaletarra, eta "gogotsu" dago gaur agertokira igotzeko.

Zelan zaude?

Urduri, tentsio handiarekin, baina pozik, indartsu eta gogoarekin ere bai.

Zer dela-eta sartu zara *Algaraka* saltsan?

Pertsona oso lotsatia nintzen eta ez nintzen gai jendearekin berba egin edo gauzak egiteko, eta antzerkiak asko lagundu dit beldur horiei aurre egiten. Bakarriketarako egiten hasi nintzen iaz, nahiz eta azkeneko hilabeteetan erretiratu samar ibili naizen, baina orain prest sentitzen naiz taularen gainera igotzeko. Mikrofono batek indarra eta boterea ematen dit.

Zelakoa da zure gidoia?

Barrea eraginez publikoak hausnartzera bultzatu gura nuke; gizartean ikusten ditudan injustiziak, euskal kulturari buruzkoak eta sexu kontuak ere badituzte.

Lehiakide dituzunei buruz zer diozu?

Pertsonalki ez dituzte ezagutzen, baina sareetan begira ibili nintzen euren ibilbideari buruz jakiteko, eta gustatu zait ikusitakoa. Zein da zure helburua? Irabazteko asmo gutxi; publikoak ondo pasatzea eta neure burua ezagutzera eman gurako nuke.

Bidaia musikal bat Eñaut Zubizarretaren eskutik

Martxoan Bilboko Loraldia jaialdian aurkeztu ostean, atzo jarri zuen eskuragarri 'Doodem' lan berria Eñaut Zubizarreta 'Trigger' biolontxelo-jotzaile aretxabaletarrak. Folk doinuuz jantzitako bidaia musikala da, Euskal Herritik Afrika hegoaldera doana

Gontzal Belategi Zubia ARETXABALETA *Doodem* izeneko lana aurkeztu du Eñaut Zubizarreta *Trigger* (1992, Aretxabaleta) biolontxelo-jotzaileak. Hirugarren lana du aretxabaletarrak, eta, beste behin, Euskal Herrian biolontxeloaren gaineko beste ikuskerak bat zabaltzeko asmoz prestatu du lan berria. Atzo jarri zuen lana plataforma digital guztietan eskuragarri.

Afrikako folk

Rock doinuak landu izan ditu, hein handi batean, Zubizarretak, baina disko berrian folk doinuak garatu ditu: Afrikako folk musikaren doinuak, zehazki. "Bestelako musika batzuetan sakondu nahi nuen. Beti gustatu izan zait gauza ezberdinak ukitu eta ikastea. Poliki-poliki ikertzen hasi nintzen, erreferentzia ezberdinak entzuten. Erreferentzia horien bidez, teknikak kopiaitzen eta barneratzen joan nintzen; eskuineko eskuan, batez ere. Hortik eratorrita pieza batzuk egin nituen eta horiei forma ematen joan nintzen poliki-poliki", adierazi du aretxabaletarrak.

Hain zuzen ere, Euskal Herrian hasi eta Afrika hegoalderaino doan bidaia musikal batean murgiltzen da entzulea *Doodem* diskoak. Kultura askotariko folk musika oinarri izan arren, lehen momentutik folklorismoa eta apropiazio kulturala hautsi nahi izan du biolontxelo-jotzaileak: "Lehen kezka folklorismoan ez erortzea zen, baina horrek soluzio erraza zuen. Musika hori biolontxeloarekin jotzean, kanon hori nahikotxo apurtzen duzu. Abesti bat, adibidez, Euskal Herriko folk nahasketa bat da, baina trikiti eta pandero zein txistutik ateratzen duzunean folklorismo horri hesi bat jartzen diozu, eta Afrikako musikarekin berdina gertatzen da".



Eñaut Zubizarreta *Trigger*, biolontxelo jotzen. JON ANDER ALBERDI

AFRIKAKO FOLKEKO ASKOTARIKO DOINUETAN OINARRITU DU 'DOODEM' LANA

Apropiazio kulturalaren kontuak, oster, lanketa sakonagoa eragin dio Zubizarretari: "Hasieran, *Poliedro Vol. 1* lanean egin bezala, lanketa musikologo bat egitea pentsatu nuen, hainbat liburu erreferentziatzen hartuta. Horrek proiektua asko luzatzea zekarren, eta aurreko proiektuko esperientziak erakutsi zidan zuzentzen natzaion komunitateak ez duela interesik erakusten horretan. Orduan, bide hori itxi eta beste gauza batzuk egiten saiatu naiz; adibidez, kontrazalean gai kulturak lantzen dituen liburu baten aipuak sartzen ahalegindu naiz. Barrurako, Hedoiri, Asierra eta Leori testuak idazteko eskatu nizkien, eta apropiazio kulturalan erortzea ekidin eta lengoia berri bat zabaldu ahal izateko partiturak argitaratzea ere lor-tu dut, azkenean".

Bakarka, kolektiboan

Doodem bakarkako lana den arren, kolektiboan jardun du diskoa aurrera ateratzeko. "Bakarkako bezala aurkezten dut, konposizioak nik eginak direlako, baina lantaldea oso zabala izan da", dio. Larraitz Iparragirrek egin dizkio diseinuak, Ainhoa Iraolak maketazioa eta Jon Ander Alberdik argazkiak. Forbidden Colours diskoetxearekin argitaratu du eta taula gainean ez da bakarrik egongo: Iñigo Xalbador saxo baritonon arituko da eta Amañur Luluaga, dantzan.

Zuzenekoak

Xalbador eta Luluagaren laguntzarekin zuzeneko oso bereziak osatu ditu. Hainbat pase egin zituen zuzeneko horiek probatzeko, Pasaian eta Arrasaten, eta, oraindik ere egokitzten dabilela onartu arren, ongi funtzionatu zuten. Martxoan eman zuen lehen zuzeneko, Bilboko Loraldia jaialdian, eta gaur izango du bailarako estreinaldia, Aretxabaletako Zairaia aretoan, 20:00etan. Maiazaren 26an, berriz, 19:30ean, Arrasateko JAMERen auditoriumean izango da.

Goienakideen txokoa

MAIATZEKO SARIAK

Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Errigora

ERRIGORA



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
ONATIKO BAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.harremandenda.org
Bidezko merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bakzidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

*goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez lagun LOPD 15/1999 legearen arabera jakingarria diraguz eta datu pertsonak Goiena komunikazio zentralizatuan biolontxelo-jotzailearen sariak dira. Datu bilaka haren helburua bakarra da indarrez lagun sariaren gozatzeko. Erabileraren argi eta zabala izateko, hain zuzeneko edo ez zuzeneko, helbide honetan datuak: goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteari esker

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako sarrerak ditugu. Oñati | Santa Ana antzokia | Malatzak 17 | 19:00

Arrasateko Udalari esker

"Passport" antzerkiarako sarrerak ditugu. Arrasate | Amaia antzokian | Malatzak 19 | 19:30

PARTE HARTZEKO:

E-posta: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "bertsozale" edo "passport" [bakzidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

*goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez lagun LOPD 15/1999 legearen arabera jakingarria diraguz eta datu pertsonak Goiena komunikazio zentralizatuan biolontxelo-jotzailearen sariak dira. Datu bilaka haren helburua bakarra da indarrez lagun sariaren gozatzeko. Erabileraren argi eta zabala izateko, hain zuzeneko edo ez zuzeneko, helbide honetan datuak: goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

HIRUSTA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: maiatzak 14.

943 25 05 05

goienakide@goiena.eus

*Goiena app'-a / zozketa atalean.

GOIENAKIDE

Jatetxea

[bakzidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA
APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

ESKER ONA



Fermin Aranguren Sanchez 


2024ko apirilaren 30ean hil zen, 76 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean. Elgetan, 2024ko maiatzaren 10ean.

ESKER ONA



Paco Azpiazu Aranburu 

2024ko maiatzaren 4an hil zen, 72 urte zituela.

*Senarra, aita, aitona, laguna
Zure bizitzan asko eman duzuna
Gurekin beti izango dira
Zu eta zure zoriontasuna*

Mila esker hiletara etorri eta egun hauetan gurekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean. Arrasaten, 2024ko maiatzaren 10ean.

ESKER ONA

Jesus Irizar Etxezarreta 

'Txutxin'

2024ko maiatzaren 1ean hil zen, 74 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean. Oñatin, 2024ko maiatzaren 10ean.

ESKER ONA

Carlos Odriozola Odriozola 

2024ko maiatzaren 3an hil zen, 91 urte zituela.

*Erreza izan zen zu maitatzea,
Ezinezkoa ordea zu ahaztea,
Beti gurekin izango zara.*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Eta eskerrik asko etxeko ospitalizazioko eta Arrasateko ospitaleko langileei gure senideari eskainitako arreta on eta tratu goxoagatik.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean. Oñatin, 2024ko maiatzaren 10ean.

ESKER ONA




Margarita Azcarraga Zarraoa 


2024ko maiatzaren 8an hil zen, 93 urte zituela.

Haren senarra: Javier Aguinale; seme-alabak: Maribi eta Jesus Aguirre, Jon eta Maribel Errasti; bilobak: Ander eta Haizea, Alazne (†), Iker eta Oier, Andoni eta Agos, Josu eta Ane; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.

ESKER ONA



Isidro Askasibar Sarrao 

Mari Karmen Agirrerren alarguna

2024ko apirilaren 28an hil zen, 84 urte zituela.

*... eta izan direnak,
izaten jarraitzen dutelako...*

Esker oneko besarkada handi bana guztientzako, familiaren partetik.

Elgetan, 2024ko maiatzaren 10ean.

URTEURRENA

Joxe Lopez Sainz 

2023ko maiatzaren 11n hil zen, 75 urte zituela.

*Urtea pasa da eta,
gure gogoan zaude.
Egunerokoan presente.
Zuk emandako pausuek
arrastoa utzi digute.
Etxekoak.*

Urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 12an, 12:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian.

Bertaratuko zaretenoi, alde zurretik, mila esker. Bergaran, 2024ko maiatzaren 10ean.

URTEURRENA



Jose Luis Aranzabal Gallastegui 

'Bolinbo'

2023ko maiatzaren 4an hil zen, 75 urte zituela.

*Senar, aitxa, aitxaginarreba eta aitxaitxa.
Urtebete dala joan zinela,
baina beti egongo zara gurekin.
Etxekuak.*

Urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 12an, 12:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2024ko maiatzaren 10ean.

BABESLEA

Oroilore
Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

*Gure artean agurtutako guztiei
esuren bidean aurkitzen lagundu
digu, orain arte bezala, eta guztiek
izango dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beronesak gogon
izan dituen konfiantzagarri eta
maitasunagatik.*

Mario, Iban, Maribi eta Cristian

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • MOYNA OÑATI



HILDAKOAK

- **Maite Iturriaga Etxebarriarteun.** Aretxabaletan, maiatzaren 4an. 79 urte.
- **Antonio Fernandez Sierra.** Aretxabaletan, maiatzaren 7an. 76 urte.
- **Margarita Azcarraga Zarraoa.** Arrasaten, maiatzaren 8an. 93 urte.
- **Maria Pilar Aldazabal Salegui.** Bergaran, maiatzaren 5ean. 93 urte.
- **Elisabeth Badiola Arana.** Eskoriatzan, maiatzaren 4an. 89 urte.
- **Benedicta Lazkanoiturburu Madina.** Oñatin, maiatzaren 3an. 101 urte.
- **Carlos Odriozola Odriozola.** Oñatin, maiatzaren 3an. 91 urte.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo eskelak@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena

Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € /

Goienakideko bazkideendako 195 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en:

195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

ELGETA Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 78 80 80.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

ZORION AGURRAK



BERGARA
Ager Esnaola Tello
Maiatzaren 13an, 8 urte dagoeneko! Ze azkar igaro diren baina zenbat alaitu diguzun bizia zure gauzatxoekin, txiki! Asko maite zaitugu denok.



BERGARA
Garazi Eraso Lete
Maiatzaren 11n, 3 urte. Zorionak, Garazi! Etxeko txikixak 3 urte bete ditxu. Disfrutatu eguna bihotza! Familia danan partetik asko maitxe zaitugu.



ARRASATE
Iargi Moraza Atxaga
Maiatzaren 11n, 3 urte. Zorionak, sorgintxo! Primeran pasatu eguna eta asko disfrutatu maitxia! Tia Le-n eta Tio Pun-en partetik, patxo haundi bat!



OÑATI
Hegoi Aranburu Zabaleta
11n, 8 urte. Zorionak, maitia! Zelako haundi in zaren! Egun politta pasatu ta patxo haundi haundi bat danon partetik! Asko maitte zau!



OÑATI
Helene Erle Agirre
9an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako, Helene! Primeran ospatu eguna lagun eta familia artean! Patxo potolo bat etxeko denon partetik! Asko maite zaitugu!



BERGARA
Jurgi Retegi Cano
Maiatzaren 8an, 7 urte. Zorionak, Jurgi. Muxu handi bat etxeko denon partetik. Ondo pasa zure egunean.



ARETXABALETA
Xabier Carbajo Alvarez
Maiatzaren 8an, 11 urte. Zorionak, Xabier! Oso ondo pasa zure egunean, muxu asko denon partetik. Maite zaitugu.



BERGARA
Martin Arregi Lopez
3an, 3 urte. Zorionak, prexioso! Patxo pillo bat, Amatxo, Aitita Mario, Amama Lore ta familixa guztian partetik! Asko maite zaitxugu!



OÑATI
Gotzon Aranguren
Maiatzaren 9an, 50 urte. Zorionak, makina! Urte askotarako. Datorren urterako badakitzu 2:29!!!



ARRASATE
Joseba Ortiz
Maiatzaren 9an, 38 urte. Zorionak, txapeldun! Urte askotarako!


ZORIONTEKO HIRU BIDE

- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *Goiena.eus/zorionagurra* helbidean sartu.
- Mezua bidali *zorionagurra@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goleinara edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



OÑATI
Garazi Abarzuza
Maiatzaren 9an, 36 urte. Zorionak, amatxu! Urte askotarako. Pilla bat Maite zaitugu!!!

BERRI-ZAKUA

**Urrezko ezteiak**

Elias Igartuak eta Arantxa Igartuak bihar, hilak 11, beteko dituzte 50 urte ezkontuta. "Zorionak, familiaren eta lagun guztien partetik! Segi zoriontsu izaten!".

**Mendiko bizikletan**

BTT-zaleek ez zuten hutsik egin Musakolako jaiei hasiera ematen dien bizikleta martxan. Gozatu ederra hartu zuten txirringulariek, lokatz gutxi egon arren.

**Santikurutz Eguna**

Bergarako San Juan auzoan Santikurutz Eguna ospatu zuten hilaren 5ean. Auzotarrek elkarrekin egin zuten hamaiketakoia, eta dantza egitera animatu ziren batzuk.

**Loratu ekimena**

Eskoriatzako Axtroki Merkataritza Elkarteak antolatuta, lorez bete zen Fernando Eskoriatza plaza hilaren 4an. Usurbilgo Urtinea lorategikoek 400 inguru saldu zituzten.

**Bioaniztasuna ezagutzen**

Aranzadi Zientzia Elkartearen eta Elgetako Udalaren ekimenez 2022an sorturiko urmaelak duen bizitza ezagutu zuten herriko eskolako haurrek eta haien gurasoek.

**Musika eta dantza**

Korrontzi taldeak eta Bergarako Moises Azpiazu dantza taldeko kideek bat egin zuten *K dantzan* ikuskizunean. Ikus-entzuleek gozatu ederra hartu zuten.



Amaiera

Oñatiko idazketa tailerreko lagunek bukatu dute ikasturtea. Joxemari Iturralde izan dute bidelagun, eta harekin ospatu zuten ikasturte bukaera, mahaiaren bueltan.



Arabako txapeldunorde

Igamo Packaging taldeko kide Ziortza Heredia kadete mailako bigarren ziklista onena izan zen Duranan jokaturako Arabako Itzuliko bigarren etapan. Hirugarren eta azken etapa Laudion jokaturako dute, hilaren 18an, Igamo Packagingeko neskek.



'Ehun urte, ehun mendi' ekimenarekin

Euskal Herriko 100 menditara igotzeko deialdia egin zuen Gipuzkoako Mendi Federazioak apirilako azken astebururako, 100. urteurrenaren harira. Arrasateko Besaidek bat egin zuen ekimenarekin.



Udal ordezkariak San Andresko erretiratuekin

Maiatzaren 1ean egon zen Arrasateko Udal Gobernuako ordezkariak Etxaluze egoitzan; tartean, Maider Morras alkatea. Auzoko jaiak aprobetxatu zituzten auzoko pertsona nagusienei aitortza egiteko.



Marokon

Oñatiko Pake Lekuko erretiratuak Marokon egon dira apirilaren 29tik maiatzaren 9ra arte. Eguraldia lagun, "ederto" ibili dira.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 10

ARRASATE Musakolako jaiak
Kalejira, umeen danborrada, ikurrinaren igoera eta rock kontzertua.
Musakolan.

ELGETA Puntaik Punta 2024
Informazio osoa 6. orrian.
Elgetan.

ARAMAIO Ipuin eta mikroipuin lehiaketako sari-banaketa
Lan onenak sarituko dituzte.
Kultura etxe aurrean, 17:00etan.

OÑATI San Migel Txiki jaiak
Informazio osoa 44. orrian.
Kale Zaharrear.

ARRASATE Suggar Ensemble taldea
XX. Udaberriko Musikaldia. Debalde, edukiera bete arte.
Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:30ean.

BERGARA 'Algaraka' bakarriketa lehiaketa
Lehenengo kanporaketa.
Seminarioan, 20:00etan.

ARETXABALETA 'Doodem' emanaldia
Eñaut Zubizarretaren proposamen berria. Iñigo Xalbador eta Amair Luluaga izango ditu lagun oholta gainean.
Arkupen, 21:00etan.

BERGARA Hegazkin eta Orhi taldeak
Sarrerak, bost euro.
Kartzela zaharrear, 22:30ean.

BERGARA Nerea Ibarzabal eta Eli Pagola bertsolariak
Udaberri Feminista ekimenaren baitan. Jone Igartuak jardungo du gai-jartzaile lanetan.
Arrano tabernan, 22:30ean.

ZAPATUA 11

ESKORIATZA Atxorrotx Kultura Elkartearen Eguna
Informazio osoa 18. orrian.
Eskoriatzan.

ELGETA Puntaik Punta 2024
Informazio osoa 6. orrian.
Elgetan.

BERGARA Mariaren Lagundia Ikastolako jaiak
10:30ean, etxafuegoa jaiak hasteko, marrazki zozketa eta ginkana; 11:30ean, dantza emanaldia eta futbol partidua; 12:00etan, *talent show-a*; 14:00etan, sari banaketa; 14:30ean, bazkaria eta bingo-jolasa; 16:00etan, poneyak; eta 17:30ean, DJ Oihan Vega.
Mariaren Lagundia Ikastetxean.

OÑATI San Migel Txiki jaiak
Informazio osoa 44. orrian.
Kale Zaharrear.

OÑATI Hotz Oñati elkartearen azoka
Elkartasun taldearen merkatu txikia.
Foruen plazan, 11:00etan.

ARRASATE Musakolako jaiak
Informazio osoa 12. orrian.
Musakolan.

ANTZUOLA Beheko auzoko jaiak
Goizean, umeendako zumba, buruhandiak eta globo gerra; bazkaria; ostean, musika, eta mus txapelketa; eta 18:00etatik aurrera, rock kontzertuak.
Beheko auzoan.

ANTZUOLA Tomateen banaketa
Bertako tomate barietateen landareak banatuko dituzte. Hazien Liburutegia ekimenaren barruan.
Hazien Liburutegian, 11:00etan.

ARAMAIO Lorabarri azoka
Elikagai ekologikoa, orturako landare ekologikoak, kosmetika naturala eta argizari oihalak izango dira salgai.
Bizente Goikoetxea plazan, 11:00etan.

BERGARA Bisita gidatua
11:00etan eta 12:30ean. Izena emateko: 943-76 90 03.
Laboratoriumen.

BERGARA Bazkaria eta mahai-ingurua
Alokairuen inguruko jardunaldien baitan.
Zubitxako eskolan, 14:30ean.

ARETXABALETA Artzain txakurren III. txapelketa
Otala Zelai Eguna girotzen hasteko.
Aozaratza auzoan, 17:30ean.

ANTZUOLA 'Erreka ondoan, bi gezur' ikuskizuna
Mari Zaunka konpainiaren eskutik. Ondoren, solasaldia.
Torresoroan, 19:00etan.

DOMEKA 12

OÑATI San Migel Txiki jaiak
Informazio osoa 44. orrian.
Kale Zaharrear.

ANTZUOLA San Isidro Pilota Txapelketa
Finalerdiak jokatu dira, benjamin, alebin, infantil eta kadete mailetan.
Pilotalekuan, 10:00etan.

ARRASATE Musakolako jaiak
Informazio osoa 12. orrian.
Musakolan.

ELGETA Puntaik Punta 2024
Informazio osoa 6. orrian.
Elgetan.

ARETXABALETA 44. Otala Zelaiko krosa
Urkulu urtegiari bira emango diote lasterkariak.
Otala Zelain, 11:00etan.

BERGARA Elortza-Bolu errotara bisita gidatua
San Juan auzoko errota ezagutzeko aukera. Izena emateko: *Bergara.eus*.
Errotan, 12:00etan.

ARETXABALETA Otala Zelai Eguna
Informazio osoa 16. orrian.
Aozaratza auzoan.

OÑATI 93/94ko denboraldiko futbol taldeari omenaldia
Aloña Mendi elkartearen 75. urteurrenaren harira.
Azkoagainen, 16:30ean.

OÑATI Buztin tailerra
Kuboko erabiltzaileendako. Gaur, lehenengo saioa. Bigarrena, hilaren 19an.
Gaztelekuan, 17:00etan.



SUGAAR ENSEMBLE

ARRASATE Sugaar Ensemble boskotea

XX. Udaberriko Musikaldia hasiko duen emanaldia. Haize-instrumentuak erabiltzen dituen boskoteak erreperitorio zabala dauka. Debalde, aretoaren edukiera bete arte.
Gaur, egubakoitza, 19:30ean, Juan Arzamendi Musika Etxean.

ANTZUOLA Karena taldea
Loak irauteko diskoa aurkeztuko du. Tartean daude Irati Gardoki eta Andoni Zabalo antzuelarrak.
Torresoroan, 19:00etan.

ARRASATE 'All'antica' ikuskizuna
XX. Udaberriko Musikaldiaren baitan. Debalde, edukiera bete arte.
San Frantzisko elizan, 19:30ean.

ASTELEHENA 13

ARRASATE 'Negazionismoari buruzko gogoetak' hitzaldia
Agustin Arrietak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Kulturaten, 10:00etan.

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatuko dituzte Oñatin, Antzuolan, Arrasaten eta Bergaran.
Herri horietan, 12:00etan.

MARTITZENA 14

ESKORIATZA 'Debagoieneko egoera eta aukera energetikoak' erakusketa
Hainbat panel egongo dira ikusgai, hilaren 17ra arte. Orduetgia: 11:00-13:00 eta 17:00-19:00
Ibarraundin.

ANTZUOLA Odol-ematea
Odol-emate guztiendako deia.
Olaran etxean, 16:00etan.

OÑATI Oñatiko errotei buruzko hitzaldia
Tomas Igartuak egingo du berba. Ostean, Turismo Bulegoan dagoen San Migel errota bisitatzeko aukera egongo da.
Pake Lekun, 18:00etan.

ARRASATE 'Familian, sexualitateaz hitz egiten' hitzaldia
6-12 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoendako, Sexologia Zerbitzuaren eskutik. Izena emateko: 943-25 20 00.
Kulturaten, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Digitalización y prevención de fraudes' hitzaldia
Jokin Goyak eta Eila Hernandezek egingo dute berba, Olazar erretiratuen elkarteak gonbidatuta.
Kultura etxean, 18:00etan.

ELGETA Hitez Pitz irakurketa taldea
Euskarazko liburu baten irakurketa taldean. Saio irekiak. Izen-ematea liburutegian.
Liburutegian, 19:00etan.

BERGARA 'Markos Gimenez karteletarak' erakusketa: bisita gidatua
Joseba Sarrionaindiak gidatutakoa izango da.
Olaso dorrean, 19:00etan.

ARRASATE Mendi Tour
Hainbat dokumental ikusteko aukera.
Amaia antzokian, 19:30ean.



AZKEN BERBA
MIKEL
ARREGI ASKASIBAR

Xi Tourmaleten

Gerra Hotzak oroimenerako irudiak utzi zituen: Nikita Krutxev Pepsi edalontziari eusten Richard Nixonen parean, Leonid Brezhnev Erich Hoeneckerri ahoan muxu ematen edo Henri Kissinger zotz txinatarrekin jaten ikasten Zhou Enlai Txinako lehen ministroarekin lasai eserita.

Hamarkada batzuk geroago bada ere, potentzien arteko irribarre-gerran beste pasarte bat ikusi dugu aste honetan bertan. Poztasuna aurpegian, Emmanuel Macron presidenteak Tourreko maillot horia eman dio Xi Jinping Txinako presidenteari, non eta Tourmalet gailurrean den taberna barruan.

Aurreko mendean bezalaxe, potentzien arteko lehia propagandaren alorrean libratzen da egun ere. Ameriketako Estatu Batuak munduari su emateko prest daude Txinari hegemoniaren maillot horia janzteko aukera kentzeko eta Europak, bere dekadentzia geldiezinan, bi aldean arteko ezinezko oreka mantendu nahi du.

Zer pentsatuko zuen Xik Tourmalet ganean? Jakingo ote zuen Indurainek han bertan eraso jo eta estatubatuar batek, Greg Lemond-ek, ordura arte zuen nagusitasunarekin amaitu zuela, Tourrean sekula izan den arrakasta arorik handienetako bati hasiera emanda? Indurainen bidetik Xik ere irabaziko ote du potentzien arteko Tourra?

BUKATZEKO



Ikus-entzunezkoetako baten grabazioan ateratako argazkia. THE BADASS PROJECT

Mikroarrazismoen lau adibide, bideo laburretan

Egunerokoa gertatzen diren arrazakeria egoerak azaleratzeko lau bideo labur grabatu ditu Bergarako Ndank Ndank elkarteak: "Asmo txarrekin egiten ez ditugun galderek edo izaten ditugun jarrerak ere ze eragin izan dezaketen ikusarazteko"

Oihana Elortza Gorostiza BERGARA Bergarako Ndank Ndank elkarteak lau ikus-entzunezko labur sortu ditu egunerokotasunean gertatzen diren arrazakeria egoerak azaleratzeko. "Intentzio txarrik gabe gertatzen diren egoerak dira askotan, baina herritar horiek egunerokotasunean bizi dituzten mugen zakuaren pisua gehitu egiten dute pasa-

dizo horiek, eta grabatutako labur hauekin nahi duguna esan da pentsatzeko ariketa egitea hitz egiten hasi aurretik", azaldu du Ndank Ndank elkarteak Eli Dominguezek.

Begararrak grabazioetan Bergararrak ageri dira bertako The Badass Project osatzen duten Ion Andueza eta Jone Albe-

nizekin batera grabatutako ikus-entzunezkoetan, eta egunero gertatzen diren egoerak antzeztu dituzte; kalean zein ikastetxean gerta daitezkeenak, esaterako

"Nongoa zara?" galdera, adibidez, pertsona arrazializatuek sarri entzuten duten galdere-tako bat da. Askotan, gainera, Euskal Herriko herri batekoa

dela erantzun ondoren, "bai, baina nongoa?" galdetzen diete berriro. "Iruditeria bat egina dugu guztiok, eta, gehienetan, hortik tiraka, pentsatu gabe, jarduten dugu. Galdera horrekin pertsona hori nola ikusten dugun ari gara transmititzen, eta horrek min egin dezake". Izenen ahoskatzeak duen garrantzia gogorarazi gura izan dute beste labur batean. Hala-ber, ondo ahoskatze ahalegina ez egitean, gutxietsiak sentiarazten diren mezua dakar horrek. Beste adibide bat da zuzenean pertsona arrazializatuengana gaztekeraz zuzentzea. Ndank Ndank elkartearen esanetan, oraindik harrigarri egiten da pertsona arrazializatu bat euskaraz hitz egiten entzutea. "Asko dira hemen jaio edo hazi diren eta euskaraz bizi diren pertsona arrazializatuak", eta hori ere ikusten da egindako bideo labur horietako batean.

Aldundiarekin batera

Gipuzkoako Foru Aldundiaren elkarbizitza eta elkartasun programaren barruan daude egindako lan horiek. Apirilean grabatu zituzten, Pazko Astearen ostean, eta sare sozialen bitartez ari da egunotan zabaltzen Ndank Ndank elkarteak. Diote pertsona zuri asko identifikatuta sentitu direla bideoekin, baina ez zela hori euren helburua, eraginean hausnartzea baizik. "Horrelako egoeretan gure jarrerak edo galderek pertsona arrazializatuengan izan dezaketen eraginean arreta jartzea da ikus-entzunezko horiekin lortu gura duguna", azpimarratu nahi izan du Ndank Ndank elkarteak Eli Dominguez bergararrak.

NEREA AGIRREZABAL

ARRAUNLARIA

GOIENA TELEBISTA, 'GALDEGAZTE' SAIOAN

MAIATZAREN 14AN, MARTITZENA, 19:30EAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

ARANZADI IKASTOLAKO IKASLEEK EGINDAKO ELKARRIZKETA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

